

Charles Dickens

Eguarri Abestia

“Luzear”ek euskeratua

EIZIE



CHARLES DICKENS

Eguarri abestia

“Luzear”ek euskeratua

Inazio Mujika Iraolak prestatutako edizioa



Jatorrizko izenburua:
A Christmas Carol



Diseinua: J.L. Agote

© Itzulpena: Ander Arzelus Toledo

© Hitzaurrea eta edizioa: Inazio Mujika Iraola

© Argitalpen honena: EIZIE
Zurriola hiribidea, 14 - 1. esk
20002 Donostia

ISBN: 84-XXXXXX-XX

Legezko gordailua: SS-XXXX

Inprimatzaile: Itxaropena, S.A. – Araba kalea, 45 – 20800 Zarautz



Ander Arzelus "Luzear"

Ander Arzelus Toledo “Luzear” (1898 - 1949)

Sei Eguberriren abestia

Berandu dator trena Donostiako geltokira. Bost urte eta erdi berandutu da. Eta ez dator Santoña aldetik, 1937ko abuztuan bidea hasi zuen lekutik. Burgostik barrena baizik. Bost urte eta erdi. Geltokiburuaren bulegoa zabalik dago. Egutegia ageri da horman: “El Corazón de Jesús. 1943 / Enero / 13”.

Bi lagun jaitsi dira trenetik. Zaharrenak berrogeiak ongi paseak izango ditu; gazteenak, hogeita hamarrik ez. Goizean atera dira Burgosko kartzelatik, elurretan. Isilik datoz. Zaharrenak txapela jantzita dakar, buru ongi soildua estaltzeko eran. Gazteenari ilea sendo datorkio, zuztarretik gora askorik ez bazaio ere ageri. “Bulebarreraino lagunduko dizut”, esan du gazteenak. Maleta zahar bana daramate, eta noizean behin geldiarazi egiten ditu kargaren handiak. Bost urte eta erdi. Ez da asko maleta zahar bana. Kale ize-netan erreparatzen dute. Hermanos Iturrino. Avenida de España.

Diputazio parean, zaharrenak beste espaloira bultzatu du laguna. Gazteak segituan ulertu du ikusi nahi ez lukeenen bat zetorrela espaloian aurrez aurre. Alameda de Calvo Sotelo. Bulebarreko musika-kioskoraino iritsi dira. “Orduan ez duzu gure etxean afaldu nahi?”, esan du zaharrak, nonbait lehen ere erabili duten kontua berrituta. Gazteenak txanpon bat atera du patrikatik eta “zau-de” esan nahi duen keinua egin dio. Telefono kabina batera joan, eta handik aritu da hizketan. Labur. Txanpon bat. Atera egin da gero. “Estimatuta dago, Ander, baina zain dauzkat Erreterian. Agur, Ander”. Besarkada bat eman diote elkarri. “Agur, Koldo. Toporik ez bada, gurera etorri. Bihar joango zara”. Anderrek San

Jeronimo kale aldera egin du. Begi bistatik aienatu zaion arte jarraitu du Koldok Anderren eta bere maleta zaharraren errainua.

Bertatik bertara, Kontxa aldera jo du Koldok. Itsasoa. Ez du nahi, baina kresal usainak Duesoko giroa ekarri dio zaplada batean. Ez da itsasoari begira geratu. Utikan Santoña eta Dueso. Easo kalean barrena... ez, Victor Praderan barrena, Toporaino. Karmeldarren elizaren parean bonbilla hori bat poste batetik zintzilik, hai-zeak hara eta hona darabilena. Harantzago, Amarako zingiradia noski. Geltokian galdetu du: "¿El próximo?". Ordu erdi barru. Azkena. *Beniton* hartuko luke kafesne bero bat. Tabakoa erosteko xahutu ditu, ordea, gelditzen zitzaizkion sos apurrak. Zigarroa piztu, jakaren lepoa jaso, eta paretaren kontra bermatu du bizkarra. Ordu erdi.

Ez du nahi, baina kresalak ekarri dio berriz ere Duesoko garaia. Han ezagutu zuen Ander, seguru-etxe batek bezerotzat ez hura eta ez bera hartuko ez zituzkeen garaian. Ander gutxiago, aurrera samar zebilen-eta alderdian, Ajuria, Rezola, Lukirekin. Eta Markiegirekin. Markiegi zenarekin. Teniente izatera iritsi zen bera. Mitxelena tenientea. A ze tenientea, arraioa! "Beherako" Batailoian, azken putz. Hala ere, heriotza agindu zuten berarentzat ere. Mitxelena tenientea, paretara. Zain egon zitzaion Herioari, bere inguruko asko bezala, Ander ere bezala; ez zen etorri, ordea. Lan handia nonbait aurretik. Egidazurekin hasi ziren, "Perezagua"koa. Otamendi, gero; berarekin epaituak biak ere. Ezin konta ahala, handik aurrera.

Paretaren kontra zeramatenen bati entzun ziola uste du Anderri "Luzear" deitzen. "Luzear, Ajuriak esan dit... Gaur ni". Gau osoa pasatu zuen gizajoarekin errezatzen. Biak ikusi zituen joaten. Goizaldean itzuli zen Ander. Bakarrik. Zuri. Bazkalorduan ausartu zen hitz beste egitera. "Zu al zara Luzear?". Haren baiezkokoak barru-barruan sentiarazi zion poza du gogoan. "Zu zara orduan *El Díako* Euskal Orriaren arduraduna". "Nintzen, gazte; hala nintzen bai". "Etxean gordeta daukat zuk euskaratu zenuen Dickensen *Eguarri abestia*, izparringitik moztu eta neronek josia". Beste erre-

alitate bat bazegoela, izan zela behintzat, eta hartaz hitz egiteak on egiten zien.

Topoaren traka-trakak ekarri du berriz Koldo oroitzapenen erresumatik urtarril hartako iluntze haize finak erasanera. “La Herrera”. Uztarrria eta geziak. Karramarroa... Nahiago oroitzapenen erresumara bidaia atzera egin.

Hamasei urte egin gabe, Erreterian. Martxoa zen. Epaila. Egunero bezala *El Día* erosi, eta *Euskal Orrian* iragarki hau: “IGANDEAN asiko gera noski, ingeleraetik itzulitako ‘nobelatxo’ bizi, irakurgarri, labur bat argitaratzen. Ebaki ta jasotzeko eran azalduko da”. Jakin-minak egon zen igandea noiz etorriko. Larunbatean beste iragarki bat: “Dollorkeria... Eguarri... Alaitasuna... Illunpea... Kate soñuak... Sorginkeria... Atzo... Gaur... Biyar... Dickens-en ‘Eguarri Abestia’ biyar ezkeru ‘Euskal Orria’n”.

Ordurako hasita zegoen euskal gauzak irakurtzen. *Argia* batez ere. Liburutxoren bat edo beste ere bai. Baina Dickens... Hainbeste aldiz irakurritako *David Copperfielden* egilea, euskaratuta! Ezin galdu inola ere. Igandean, goizean goiz jaitsi zen egunkariaren bila. Alamedan zabaldu zuen. Aulki batean eserita ikusi zuen orri barrenean, “EGUARRI ABESTIA / Charles Dickens / ‘Luzear’ek euskera-tua / El Día / 1931 / Donostia”. Dickensen irudia zetorren aldameneko orrian. Nobelaren hasierarik ez. Ohar bat: “Gaur asten gera, egunkari au eraberritu genunean agindutakoa, betetzen. Ez degu gure asmoa osoro egiterik izan. Euskal irakurgairik atsegiñe-netako bat argitaratzekotan baigebiltzan. Baña ori ezin izan dan ezkeru, beste bide batetik jo degu: arrotz elertietara juan eta idazle ospetsuenen idaztirik gallenenak euskeratzeko gogo biziak garabil. Saio bidez, Dickens, idazle bikañaren ipui bat dakartzutegu. Aur biurturik irakur ezazute biotzikaraz dardar jarri zaitezten; baña larrientzat ere ikasbide egokirik arkituko dezute aur-ipuitxo azalpean. Zuei dagokizute, saio au atsegin zaizuten ala ez azaltzea: txaloak, izatekotan, idazlearentzat bitez... euskeratzalleak ez baitio akats pilla bat besterik erantsi. Gure idazti-zatiak gaurko neurri berean azalduko dira. Ara nola jaso bear dituzuten: Aurrena, guzia ixten duten lerrotatik kontuz ebaki. Gero, ezkertera daukazuten

goitik-berako lerrotxo ortatik goruntz zuenganuntz tolestu (doblatu). Erdi-erdiko lerrotik berriz beste aldera, atzeruntz tolestu. Eta ortan, onela geldituko zaizute gaurko zatitxoa: Ezkerrera idaztia josteko utsunea (*El día* ta abar diona). Aurrez-aurre, idazti gaña. Atzera tolestuta, Dickens-en irudia. Ta egunero auxe egiten dezutela idazti polit baten jabe zerate laster. Agur ba, ta egunero artu *El Día*".

Nobelaren hasierarik ez, ordea. Astelehenean, berriz, egunkaririk ez. Asteartekoan, bi orri mozteko: "Lenengo aapaldia: Marlegiren Mamutzarra". Ahoz gora hasi zen ohe gainean irakurtzen: "Marlegi illa zan. Au iñork zalantza apurrik gabe sinisteko eran idatzi nai nuke aurren-aurrena..."

Bi hilabete iraun zuen kontuak. Apirilaren azkena arte, hogeita bost emanaldi, Aste Santuko etena eta Errepublikari berriaren aldarrikapena tartean. Hogeita bostak ebaki, tolestu, eta jostarazi egin zituen. Bera-Lopez Mendizabalen hiztegia ezkerrean, eta koardernotxo bat eskuinean, ipuin osoa segidan irakurri eta ulertzen ez zituen hitzak apuntatu zituen. Gozatu egin zuen liburua.

Sei Eguberri jai igaro dituzte elkarrekin itzalpean. Koldok, Villarrealgo guda-oinan, euri, odol eta basatza artean pasatu zue-narekin, zazpi. Elkarrekin pasatu zuten aurrenekoa, Larrinagakoa, laborriz oharkabean pasatu zen, azkena izan zitekeelako uste osoan baitzeuden; eta Burgosko azkena, berriz, esperantza betean joan berri zaie. Sei Eguberritan ez zaie gogoutsik agertu. Ezkurak edo Scroogeak bai, makina bat, zintzotze handirik gabeak gainera. "Kartzelarik ez al dago?" galdetzen duen jende modua, asko. "Gehiegi bezala" erantzuten duena, gutxi. Sekulan ez du ahaztuko Burgosko espetxera zihoazela, tren geltokitik abiatu eta kartzelairaino herri barrutik nola eraman zituzten preso guztiak binaka elkarri lotuak, eta nola Burgosko jendeak iraindu, karkaxa bota eta jo arterainoko guztiak egin zizkieten. Anderri txapela bota zioten esku-ukaldi batez, eta, ez makurtzeagatik, bertan utzi zuen.

Ikasteko erabili du kartzela Koldok. Eta ez du gizalegea ikasgairik kaxkarrena izan. Betiko atxiki nahi du gai horretan maisu, beste gutxi batzuen artean, Ander. Luzearek euskara irakasten

zuen kartzelan. Irakasbide bat ere taxutu zuen osorik ez bada ere askotxo. Koldok “au maia da” eta horrelakoez aurrerakoak behar zituen, ordea. Aditzaren malkarretan gora egin nahi zuen, eta horretarako Felipe Lizaso hartu zuen maisu (“El verbo alemán” jarri zioten irakasbideari azalean, zaindarien susmo txarrik har ez zezaten); Paco Jordá eta Aguado komunista, latinerako eta grezierarako; baina gehiago ere nahi zuen: idazkortza, luma, zorroztu. Idatzi. Esaldi bat besteari josi, *Eguarri abestian* bezala, irakurri eta gozatzeko moduko testuak sortu. Horretan Anderrek zekien, inork jakitekotan. Gai horretan ordu arte egin zenaz asko zekien; egin nahi zuenaz, ez gutxi. Gustura hartuko zuten *Eguarri abesti* hura elkarrekin lantzeko berriz. Ezin, ordea. Modurik ez, hura itzalpera sartzeko. Dickensen beste Eguberri ipuin bat oinarri hartuta, Anderrek antzerki lan bat idatzi zuen, *Kilkir abestia*, “Eresidun antzerkia”. Beste preso batek, Bengoak, jarri zion eresia, musika.

Espetxeak anaitasun-lokarriak sortzen baititu idazle izan diren eta ez direnen artean, gogoan du Koldok Wilderen ipuin hura itzultzea pentsatu zuen garaia. *Erraldoi berekoia*. Gogoan ditu atera zituen izerdi hotzak testu ustez xume hura euskaratzen. Gogoan ditu Anderren aholkuak, eta haren zuzenketak ere gogoan. Gogoa du, batez ere, Anderren umorea, 1940ko estropaden berri jakin zutenean, esaterako –gauza sakratuen zerrenda egiten hasi eta Jainkoa, euskara, aberria eta familiaren hurrena, estropadak jarriko zituen Anderrek–: urte hartakoak donostiarrek irabazi zituztela etorri zitzaizen gaztigua kanpotik. Koldok, erreteriarra izaki, bertso batzuk idatzi zituen donostiar panparroien kontura barre eginenez. Anderrek barrez irakurri zituen, eta baita kantatu ere Iradi eta Mendizabal donostiarrekin batera. Azkeneko arrazoi hura dator kio bat-batean: “Beste olakorik ikusterako / luza bear zaizu bizarra!”.

Kokotspea igurtzi du esku gainaz eta gogorapen gozo batek eragindako irribarrearekin sartu da trena Erreteriarreko geltokian. Zain dauzka aita pontekoaren semea, Pio Etxeberria, eta bere familiakoak. Besarkadak labur, eta etxe aldera abiatu dira. Biharamunean ikusiko dituela denak, orain uzteko amarekin bakarrik.

Mikela Zuloko arkupean pasatu da, ama alargunaren aurpegia gogoratu nahian, Larrinagako Eguberri haietatik ikusi gabea baitzuen; Gabon aurreko astean, ehun eta hogeitaka lagun fusilatu zituzten, eta suerte txarra da guztia, baina aste hartan egokitu behar kartzelaldi osoan amak egiterik izan zion bisita bakarra. Goiko kalera dator bueltan, zazpi Eguberriren buruan, xextogilearen semea. Atarian, eskua eraman du patrikara. Alferrik. Ez du giltzarik. Atea jo du. Ama jaitsi zaio. Irribarre murriz bat. "Etorri altzea?"

Ama afalduta dago. Begira egon zaio semeak afaldu duen bitartean. Ez dute kontu handirik erabili. "Etorri altzea?". Ohera baino lehen, ganbarara joan nahi du semeak. Han maletatxo gorri batean gorde zituela gauza batzuk. "Liburuak?", igarri dio amak. "Bai, haietako bat irakurri nahi nuke oheratu aurretik". "Sentitzen dut, seme, zu egon zaren lekua ez zen txukun-txukuna izango, baina hemen ere senperrenak ikusarazi dizkigute. Edozein huskeriagatik hiltzen zuten jendea...". "Bota egin zenituen...". "Ez, erre... Baina denak ez; euskarazkoak eta..."

Luzear eta Mitxelena

Gaur hemen aurkezten dudan *Eguarri Abestiaren* argitalpen hau ez litzateke irakurlearen eskuetara iritsiko, Koldo Mitxelena-ren seta berezi bat egon izan ez balitz tarteko: bai bere idatzietan, bai berari egindako hainbat elkarrizketetan maiz aipatzen du adiskide eta maisu izan zuenaren izena; eta Luzearrez ari dela, errenteriarrek beti edo gehienetan aipatzen du Arzelusek itzuli zuela Dickensen *A Christmas Carol*. Aipu horiek, harri txuri horiek utzi izan ez balitu han eta hemen itzulpen horren bilaketarako, orain arte bezala ahaztua egongo litzateke *El Día* gordetzen duten heme-roketetan. Nik behintzat Mitxelenak akuilatuta jo nuen orri mikrofilmatu horietara, eta kostatu bazitzaidan ere *-El Díak* iraun zuen urteetako Eguberri garaietatik hasi bainuen bilaketa, eta erre-alitatea ez baita askotan horren logikoa izaten-, azkenean behint-

zat aurkitu nuen, 1931ko martxoaren 15ean hasi eta apirilaren 30ean buka, *Eguarri Abestia* osorik.

Osorik irakurri ondoren, garbi edukiko du irakurleak arrazoi zuela Mitxelenak bere setarekin. Arrazoa zuen, baita ere, inoiz errietan egiten zigularik ohartaraziz zein ahanzkorrak garen euskaldunok iraganean egindako lanekin eta zein eskergabe, onerako nabarmendutako pertsonekin.

Ander Arzelus Toledo

1898ko abuztuaren 15ean jaio zen Ander, Donostiako parte zaharrea, San Jeronimo kaleko 21ean. Hilabete gutxi zituela, kale bereko 23ra joan zen familiarekin bizitzera. Andres eta Naxari zituen gurasoak. Hamabi anai-arreben artean, bera zen zaharrena. Ikasketak Donostiako Marianistekin egin zituen. Hamasei urte bete zituenean jarri behar izan zuen lanean, Donostiako Aurrezki Kutxan, eta bertan aritu zen lanean, harik eta, 1936an, gerra piztu zen arte. 1923an, Amalia Arrietarekin ezkondu zen. Lau seme-alaba izan zituen.

Kulturgintza

1921ean sortu zen *Argia* asterokoa, Donostian. Hura izan zuen Arzelusek euskal idazle izateko aurreneko eskola. Horrela ematen du berak, 1931n, Gregorio Mujika hil dela eta, bere irakasleen berri: “Beste eriotz negargarri batek, Karrera apaiz jaun argiarenak, onen utsa betetzera eraman nindun [*Argiara*]. ‘Anabi’-ri [Augustin Anabitarteri] eskerrak, nere burua euskal elerti bidean arkitu nuanean, nere aldamenen neramazkien bidelagunai begiraturik, neronen ausardiak txunditu ninduan: ‘Garbi’ (Garitonandiatar Bitor), ‘Elurmendi’ (Intzagarai apaiz jauna), ‘Jeme’ (Mujikatar Gregorio), ‘Anabi’ bera, ‘Egizale’. Baña beingo ez nuan atzera egin, eta ‘Kirikiño’ elerti azikeran aurzai bezela izan banuan, oek izan ziran aurrera bideak urratu zizkidaten lagun ikasiagoak. *Argian*, ditadurako urteak zalantza bizian, ekaitzik gogo-

rreanean 'oraingo onek zapalduko gatxiok' esanaz olatu amorratuai begira itxaso erdian larritasunik gorrienak elkarrekin ikusi dituzten arrantzale gizajoak bezela bizitu geranok ezin inola ere elkar aztu, naiz ta gero, nola ez dakigula, oraindik ere garbi ikusten ez degun eran, elkarrengandik, bat-batean, sakabanatuta arkitu".

Idazten hasi eta berehala asmatu zuen, orduan ohikoa zen bezala (beharrezkoa ere bai, ez ahaztu diktadurapean zirela), bizitza osoan idazlanak izenpetzeko erabili zuen izenordea: "Luzear" (Arzeluz silabaka alderantziz jarria, alegia). Urteetan, herrietako berriemaileen saila, "Euskalerriko berriak", kudeatu zuen *Argian*. 1926tik aurrera, borroka pertsonal batean jardun zuen: *Txistu* proiektua, haurrentzako aldizkari bat komikiz eta ipuinez betea, *Argiarekin* batera banatu izan zena, ez eragozpenik gabe.

Argiaren zuzendari izatera ere iritsi zen, Bitor Garitaonandia hil zenean (1929), baina denbora gutxiko. Hain zuzen ere, beste proiektu handi batean sartu baitzen buru-belarri. 1930eko ekainean sortu zen *El Día* egunkaria. Bertan "Euskal Orria"ren arduradun jarri zuten Luzear. Eta bertako arduradun izaten jarraitu zuen gerra piztu zen arte. Primo de Riveraren diktaduraren azken urteetan, eztabaida bat sortu zen Euskaltzaleak bazkunaren eta Eusko Ikaskuntzaren baitan, eta guregana heldu da, gehienbat, Lizardiren hainbat artikuluren bidez, euskal egunkari baten beharrari buruzkoa, hain zuzen ere. Eztabaida eta ametsa esan beharko dugu, ordea. *Argia* asterokoa eguneroko kazeta bihurtzea izan zuten amets lehenbizi; Euskal Orria, Euskal Eguneroko bihurtzea gero. Eta hori iristen ez zen bitartean, *El Día* zeukaten. Orrialde bat. Eztabaida horien atzean zebilen Luzear, buru-belarri. Amets horren atzetik orpoz orpo.

Eztabaidak gogoko zituen Luzearrek, eta bero dihardu eztabaidan. Karlisten *La Constancia* eta ezkertiarren *La Voz de Guipúzcoa* egunkarietan argitaratzen ziren iritzi emaileen kontra ari zen sarri askotan. Baina baita *El Día*n bertan edo *Euzkadi* egunkari abertzaleetan agertutako iritzi batzuen kontra ere. Lauaxetarekin badu eztabaida sutsu pare bat, "Gurbindo"rekin beste bat, eta beste hainbatekin ere bai. Nor zen orduantxe sortzen ari den

Euskal Idazleen Batzan sartzeko gai? Batzuek zioten, Lauaxeta tar-teko, abertzaleak bakarrik sar zitezkeela delako elkarte horretan; Luzearrek, Lizardi dakar gogora kontrako iritziaren alde egiteko: “Aberri errota ibiltzeko, abertzale guzian kemenak bat egiñik ere ez ditugu naikoa. Abertzaletasuna, gurea dana maitasunez zaitzea izanik, euskera, aberri ezaugarririk bizi ta nabarmenena maite duan, aberria neurri txikian bederik maite du. Ta aberri maitasun apur oiekin, aritxo bat emendik, beste bat andik, errekatxoa osatu; errekatxo onen ura beste arenarekin bat egiñik, ibaitxoa; ibai bat, bi, iru ibairen indarra batu ta gure indarrari erantsita, guzien errota ibilaraztea ez ote genuke errezagoa?”. Luzearren eztabaidarik gogokoena, sutsuena, euskara jakintza bidean eragozpen ikusten zutenen aurkakoa da: “Ez da munduan jakintza bide izateko gai ez dan izkerarik. Gor-mutuai ere erakutsi bear zaiena, beren izkera (?) bereziz egin bear ko zaie, Fray Luis de Leon-en Odarik ederrenak belarri ertzera esatea alperrikakoa litzaken ezker. Danik eta izkuntzik atzeratuanagatik ere ezin esan leike, beraz, jakintza gaitan eragozpen danik. Gañontzean españeragatik ere berdin esan genezake, doixtar eta parantzetarrek beren izkeratan idatzi oi dituen idatzi sakonak, españera utsa dakitenentzat, Castelar-en itzaldirik apañena gor-mutuentzat bezin lokotx uts lirakelako. Euskera, berez, beste edozein izkuntz bezin aberatsa izanik, ez bedi beñere esan jakintza bidean eragozpen danik. Geron buruen gain bota dezagun erru guzia, esan dezagun argi ez degula euskera jakintza-izkera izatea nai, gerok maite ez degulako besterik ez”.

El Díako “Euskal Orria”n bere artikulua argitaratzea ez ezik, eta batez ere, besterenak argitaratzea zuen buruhausterik handiena, eta idazle eginak eta ez hain eginak idazten jartzea izan zuen merituetariko bat. Mutila zen zirikatzen. Zirikatzen ditu idazleak, gehiago idatz dezaten; zirikatzen ditu haurrak, zerbait idatz dezaten; egunkariko linotipistak, akatsik egin ez dezaten; beste egunkarietako iritzi emaileak zirikatzen ditu... *El Díako* zuzendaritza bera ere ez da libre geratzen. Euskarazko orrialde bakarra zeukan egunkariak, eta zazpi urteko bere ibilbidean nabarmen ikusten da

zuzendaritzarekin eduki zuen tirabira, alde batetik, "Euskal Orria" euskal orri osoa izan zedin, eta, iragarkiak edo bestelako premiak zirela-eta, ez ziezaioten orri erdia jan; eta bestetik, euskara bere orri-txokotik atera eta lehen plamara eramateko. Euskararekiko konpromiso osoa eskatzen baitzuen: "Itzez buruz gain eginda gaudе. Gizonai gizon bezela itz egitea dagokio. Ta garbi esan: euskaltzaleak al zerate ala ez? Ez!? Onela, gauzak garbi, nor norekin gabiltzan jakiteko. Ta ez umeak bagiña bezela gurekin jostaketan ibilli. Jaunak, euskaltzale ezpazerate, jakin dezagun, oraintxe one-rño bete gera ta".

Hitz batez definitu behar bagenu Luzear eta bere bizitza oso-ko lana, baina batez ere, Errepublikara garaiari aurrera atera zuena, "euskaltzalea" izango litzateke hitz hori. Lan idatzia da batez ere bere arloa, hor aritu zen beteen, baina horretaz gain, bazuen beste alderdi bat, bultzatzaile eta antolatzailearena. Esan dugu jendea idaztera jarri zuela, *Argiako* idazle-agenda ia osorik hustu zuen *El Dían*, eta emakumeak jarri zituen idazten; bere eskutik eduki zuten plaza irekia Elbira Zipitriak eta Tene Mujikak, esaterako: "Beti entzun oi degu, 'Euskal Orria'k motelak, gatzik gabeak, irakurtze-ko gogorik ematen ez dutenak izaten dirala. 'Erritako berriak, erri-tarrentzat ainbestean, baña gañontzekoai zer dijuakigu ba?' ent-zungo zaiote bein eta berriz. Gai politik ez omen darabilgu euskal idazleak. Arrazoi dutela esango al degu? Alabaña bete-beteian oker daudenik ezin esan dezakegu ordea. Ala ere, ikusi bezate euskal idazle arinok nola jaio eta indartu geran: nai bada umekeriak idat-ziaz. Zokoratu ditzazute umekeriok, zokoratu erri izperrak, zoko-ratu erdipurdi idatzita datorren idazkia, euskal idazle izan zitezken idazkigille oiek guziak ere beren lanakin batera zokoratu ta baz-tertu dituzute, ta nortzun irakurgaiak argitaratuko ditugu 'Eurkal Orri'etan? Salaberriarenak? Unamunorenak? Barojarenak? Euskal idazle jator askoak baditugula? Bai orixe. Baña... erderaz idatzita-koak 'biotzian poza eman oi digun otsa darion txintxin'a ematen ordea, ta euskerazkoak, oraingo, 'txintxin otsik gabeko poza' oxta-oxta. Onegatik, idazle txukun, alai, goxo, irakurgarriak sor-tu naiaz, emakumezkoak begiz jo ditut. Gaurkoz 'txintxin ots'

gabe errexago dantzatuko ote diran derizkiot, arreba maitiok euskera aldez gogor jardun naiean nabaitzen baiditut. Badira oen artean ere idazle egiñak, eta ez gutxi errex egingo diranak. Aiek mugatu, ta oek bultzaka bada ere ateratzea, nere gain artu nai dedala jakitea, ez deritzait beraz irakurleari ez dijuakion arazoa. Guzien gogoia ez al da ba, alik laxterren, ‘Euskal Orria’ edozein erdel orri bezin irakurgarria arkitzea?”.

Nekez aurkituko da ekintza euskaltzale bat garai hartan Luzear bertan egon gabe, edo are, haren parte-hartze zuzenik gabe. Donostian eta Gipuzkoan behintzat, ez. Orobat, Donostiako euskaltzaletasunaren bultzatzaile handiak laguntzaile ederra izan zuen, eta ezin hemen aipatu gabe utzi. Bata bestearen laguntzaile baino, elkarren laguntzaile izan zirela esan daiteke: Joseba Zubimendi eta Ander Arzelus. Bi izen horiek, neurri handi batean, elkarrekin doaz itxaropen bideko urte horietan. Zubimendik sortu zuen, 1931n, eta berak kudeatu zuen 1936a arte, *El Pueblo Vasco* Rafael Picavea “Alcibar”en egunkariko euskal orria (asterokoa) “Euskal Eresi ta Izkuntzaren Alde” izenburua zuena. Beraz Luzear *El Día*n eguneroko atalarekin eta Zubimendi *El Pueblo Vascon*, astero, euskal erreferentzia nagusi bihurtu ziren Gipuzkoan. Maiz samar argitaratu zuten, gainera, artikulurik bion izenpearekin.

Bada artikulua bat Luzearrena, 1931ko irailean *El Pueblo Vascon* argitaratutakoa, urte haietako euskaltzaletasunaren egitekoa laburtzen duena. Izenburu adierazgarriagorik nekez aurkitu: “Irudipen zoroak”. “Antzokia! (Teatro). Irudibiltegia!! (Zinea). Irratizkiña!!! (Radioa). A zer iru lagun, gure zabalkunderako! Ta irurok, gure deiaren zai-zai bezela dauzkagunak. Jakiña, gauza guzitarako bezela, diru apur bat bear. Ta diru apur ori, duanaren eskutatik ezpadator...”. Hiru zutabe horiek ikusten ditu beharrezkoen, egunkariarenaz gain, euskaltzaletasuna zabaltzeko. Antzerkian aurrera egin zuten, eta ez gutxi. Zineman huts egin zuten, zezakeenak ez baitzuen eskurik zabaldu, baina irratigintzan, behintzat, lortu zuten “irudipen zoro” hori aurrera ateratzea. Astean behingo saio bat lortu baitzuten euskara hutsez egina, 1932tik aurrera,

Donostiako *Unión Radion*. Arduradunak, Joseba Zubimendi eta Ander Arzelus "Luzear".

Luzear kazetaria goraipatzea izan zen Mitxelenaren beste setatako bat. Maiz aipatzen du bere idatzietan eta elkarrizketetan adiskidearen alderdi hori. Era askotako idazlanak ditu *El Díako* "Euskal Orria"n argitaratuak, lehen aipatu dugun kudeaketaz gain, bere izenpea agertzen baita hainbat eta hainbat artikuluren barrenean. Hiru eratakoak dira nagusi: Iritzi artikulua daude aurrena, ez oso luzeak, labur-laburrak asko ("tantoak" izendatzen ditu halakoak), euskarari buruzkoak gehienak, baina baita politikoak ere, ahaztu gabe umorezko hainbat, antzerki kritikak... Ez dakit ausartegia ez ote den esatea zutabe-idazle aurrekaria izan zela Luzear; hurrena daude erreportaje tankerako idazlanak, Lizarrako bilera politikoa dela, Ama Birjina Ezkion agertu dela, Oleriti Eguna dela, Antzerti Eguna dela, edo Txirritaren omenaldia dela, han dago Luzear bere aterkiarekin eta beti baten batek autoz eramana edo bere kasa trenez joanda, ikusi duenaren kontakizun bizia egiten; eta azkenik daude handik eta hemendik hartutako antzerkitxo laburrak, ipuintxoak eta abar berak sortutakoak edo beste hizkuntzaren batetik berak egokitutakoak. Azken horiek gehienbat.

Ez dugu ahaztu behar hori dena Donostiako Aurrezki Kutxako lanaz gain egiten zuela. Alegia, Aurrezki Kutxatik ateratzen zuela bizibidea, eta euskarari eskaintzen ziola astialdia ia osorik.

Politikagintza gerra aurrean eta gerra garaian

Ander Arzelusen aita, Andres, Sabino Aranaren aurren-aurrenetako jarraitzaileetakoa izan zen Donostian. Donostiako abertzaleei "bizkaitarrak" deitzen zieten garaian hain zuzen ere. Anderek, beraz, etxetik jaso zuen politikarako zaletasuna.

1930ean eman zuen izena EAJ alderdian. Hain zuzen ere, diktadura osoan barrena bananduta egon ziren alderdiko bi sektoreak, "Comuni6n" eta "Aberri", atzera bildu ziren urtean. 1935eko otsailean, Gipuzkoa Buru Batzarreko kide egin zuten Zumarragan,

Doroteo Ziaurritz tolosarra EBBko buru zela, eta, besteak beste, Edorta Alberdi, Elias Etxeberría, Ander Bereziartua, Pablo Egibar edo Florentzio Markiegi Gipuzkoa aldetik kide zituela. Ez zuen asko pentsatuko EBBko bilera hartan ezagutu zuen gazte bat, Juan Ajuariagerra, izango zuenik urteetan hogeita lau orduko gelakide behartua.

Hurrengo urtean etorri zen bere bizitza irauli zuen gertakaria: Gerra. Gipuzkoan ibili zen antolaketa lanetan, harik eta probintzia osoa faxisten mende erori zen arte. Bizkaira pasatu zen gero, eta hango antolakuntza politikoan sartu zen. 1936ko irailean, Donostia erortzeaz, Jose Antonio Agirre, Franzisko Basterretxea eta Juan Ajuariagerrarekin batera, hegazkina hartu eta Madrila egin zuen txango, bidez esanda, nahikoa bidaia arriskutsua, Burgos gainera, matxinatuen gainera pasatu behar zutelako. Madrilén, Largo Caballeroren gobernuarekin negoziatu zuten Euskal Estatutua (edo "Araudia", garai hartako hainbat idazlek euskaraz esaten zioten bezala). Urriaren 7an eratu zen Eusko Jaurlaritza, Gernikan. Arzelus bertan zegoen. Bilbo faxisten mende erori zen arte, 1937ko ekainean, Bilbon bertan bizi izan zen, familiarekin. 1937ko urtarrean sortu zen euskara hutsezko aurreneko egunkaria: *Eguna*. Gerra garaian bihurtu zen paper hainbeste aldiz erabilitako ametsa. Sei hilabete, ekaina arte, iraun zuen amets horrek, amesgaizto bihurtu aurretik. Kazetaren sorkuntzan parte-hartze zuzena izan bazuen ere, ez dirudi gero askorik idatzi zuenik bertan. Berak izenpetuta, artikulu bakarra aurkitu dut, nik behintzat, hasiera-hasieran argitaratua eta bakea eskatzen zuena: "Ez gorrotorik" zuen izenburu.

Faxistak Bilbon sartu aurretik, emaztea eta seme-alabak "La Habana" itsasontzian sartu, eta Frantziara bidali zituen Luzearrek. Handik harakoak ezagunak dira. Bilbo utzi, eta Santander aldera. Han, azken uneetan, eta Lehendakaria eta EBBko presidentea hegazkinez salbo utzi eta gero, zozketa egin zuten alderdiko zein kargudun geratuko zen eta zein joango zen atzerrira erabakitzeke. Luzearri harri beltza egokitu zitzaion. Santoñan preso hartu, eta Duesora eramán zuten. Italiarren esku lehenbizi, frankisten atza-

parretan gero. Epaitu eta heriotza zigorra ezarri zioten. Italiarrek beren hitza hautsi zutela eta Ajuriagerra gose greban jarri zen; Ajuriagerrak gose greba hura gelditzeko agindua sinatu zuten buruki-deetakoa izan zen Luzear. "Reunidos en el Dueso hoy nueve de septiembre, Arzelus, Markiegi, Alberdi, Unzeta, Artetxe y Solaun, acuerdan comunicar a Axuriagerra, que en evitación de un conflicto mayor que pudiera resultar más perjudicial para todos, debe desde este momento deponer su actitud y empezar de nuevo a alimentarse". Duesotik Larrinagara itsasontzi baten sotoan sartuta, 1937ko azaroan, San Andres egunean hain zuzen; eta handik berehala, 1938ko uztailean, Burgosko "Prision Central"era. Burgosen lau urte eta erdi egin zituen, horietatik bat, heriotzaren errainua buru gainean zuela. 1942an etorri ziren errebisioak, eta kondena berriak: 14 urteko kondena aurrena, indultua gero. 1943ko urtarriaren 13an, Koldo Mitxelenarekin batera kartzelatik atera, eta Donostiara.

Amalek kontatzen ditu hortik aurrerako batzuk

«Donostira itzuli zanean, bereala lan billa asi zan, baita "bere lanetan" ere. "Lan" auetako bat, Santa Maria elizako gazteak bildu eta beraien barruan abertzaletasuna piztea izan zan¹.

»Kalean zebillen batean, bere laguna zan Lealtar Nemesio –Leal Garajeko burua– arkitu zun. Onen emaztea "Obras y Construcciones Elizaran"eko jabearen sendikoa zan, eta auek lur-beso (peninsula) guztian zabaldurik zuten etxegintza, Etxe Nagusia Madriden kokaturik. "Te necesito en Madrid" esanez, zuzendaritza eskeñi zion.

»–No te parece que ya he pasado suficiente tiempo fuera de Euzkadi? –Ez zegon prest gure aita, naiz eta irabazi onak eskeñi, Aberria berriro uzteko.

¹ Atal honetan ageri dena Ander Arzelusen alaba zaharrenak, Amalek, kontatzen du liburuxka batean: *Arzelus'tar Ander "Luzear" (1898-1949)*, Euzkeratzaintza, 1998.

»Gertakizun au izan eta illabete (gutxi gora-beera) igaro ondoren, erbesteratzeko agindua jaso zun; zeatz-meatz oroitzen ez banaiz ere, berreun ta berrogeitamarren bat kilometrora urrutiratzeko agindua. Leal jaunak, gertatutakoa adierazteko ots-egin bezin laster, Madrideo lana berreskeñi zion.

»Denbora txikia eman zun ba gure artean. Madrideo bidea artu eta an asi zan lanean. Bakardadea jasan eziña zitzaion. Espetxean baño okerrago zegola esaten zun, an beintzat lagun artean zala ta...

»Leal jauna, aita orrela ikusiz, etxe billa asi zan gu ara joan gintezen aal zan azkarrena. Orrela ba, [1943ko] garagarrillaren 15ean, San Isidro egunean ain zuzen, sendi osoa Madridera joan giñan berarekin bizitzera. (...)

»An urte t’erdi inguru egin genitun, naiz ta zigorra iru edo lau illabetera kendu. Zigorrik ez, ezta Donostira itzultzeko lanik ere... Lana arkitu arte, an gelditu bear...

»Alako batean, Donosti aldean, Ernanin ain zuzen ere, lan bat eskeñi zioten “Almidones Remy” olan, idazkola lanerako. Lanbide artan etzun ez Madrident zun malla, ezta irabazirik ere, baño zalantza txikirik egin gabe, aalik eta laxterren emen giñan, 1944ko iraillan. (...)

»Lamfus jaunak –orduko Kutxako zuzendariak–, aita Donostira etorri zala jakin zunean dei egin zion eta berriro Kutxan lanean asi bear zula esan. Eziñezko amets bat zala pentsatu genun.

»Lamfus leenengotako “Camisa Vieja” zan, eta guk uste baño aalmen aundiagoa zun nunbait, aita berriro an lanean astea lortu zun beñepein.

»Bitarte onetan, aita beti bezela bere “lanetan” asia zan². Au etsaiak nolabait jakin zuten eta egun batean, Kutxan lanean ari

² Bitarte horretan, lehenago bezala Madrilen, Koldo San Sebastian historialariak dioenez, EAJren buruzagi nagusi bihurtu zen Gipuzkoan. Horiek ziren alabak esaten dizkigun aitaren “lanak”. Ikus Koldo San Sebastián, “Ander Arzelus”, *Euzkadi* 1986/09/18. “Lan” horietako bat 1945eko ekainaren 1ean egin zuen. Egundatzuk lehenago, Joseba Rezola Euskal Erresistentziaren buruzagi nagusietako bat atxilotu

zala, bi gizon sartu eta gora, zuzendariarengana, igotzen ikusi zitun. Poliziak zirala ez zun zalantzik egin, onetarako oarmen edo zentzumen berezia dute-ta auekin arremana izan dutenak. Orduan, laneko lagun bateri gertatu zana esan, eta alde egin zun aiek goian ziran artean. Poliziak zuzendariarekin bera jetxi ziranean, aita an etzegola ta, ateraño irten ziran. Une artantxe bertan aitak bira egin aal izan zun izkiñan, eta ezkutatzeta lortu, bere lankideak gerora kontatu zigun bezela. Ozta-ozta iges egin zun beraz.

»Iru edo lau egunez ezkutatuta egon ondoren, Lamfus jauna Gobernadorearengana (edo alako batengana) joan, eta ea Anderrren aurka zer zuten jakin nai izan zun. Ezer gutxirik izango zuten, bere burua aurkeztuz gero, pakean utziko zutela agindu baitzioten. Eta orrela izan zan.

»Gau batean, nere bizi osoan iñoiz aaztuko ez dedan gaua, bi polizi azaldu zitzaizkigun gure aitaren billa. Gure amak, aita etxean ez zala esan eta ikustera sartu nai zuten, baña "Fuero de los españoles" zala ta, "mandamiento judicial"ik gabe, etxe batean ezin zirala sartu eta etzirala sartuko esan zien.

»-Pero, señora, si su marido no está en casa, déjenos entrar a comprobarlo.

»Gure ama, berean gogor; ez zitula sartzen utziko, eta aserre bizian aginduaren billa joan ziran, kanpoko atean polizi bat eta kaleko sarreran beste bi utziz.

»Minutu bat galtzerik ez zegoen, aitak oso argi baitzun ezin zutela arrapatu, geiegi zekila ta oso arriskutsua gertatuko zala. Nolabait iges egin bear zun, baña, nola? Gu irugarrenean bizi

.../...

egin zuten Madrilen, eta, egun hartan, Iruna zekarten epaitzera, bi guardia zibilen artean. Madrilgo geltokian Pello Irujo inguratu zitzaion Rezolari, ihes egin behar zuela esatera. Hernanin igo zen Arzelus. Aurrez aurre eseri, eta euskaraz esan zion zerbait presoari. Donostiako geltokian ihes egin zuen Rezolak. Arzelus traban jarri zitzaien guardia zibilei. Pentsatzekoa da, gainera, Luzearek eskuratu zizkiola Donostian ezkutatzeko lekuak, harik eta Iparraldera pasatu zen arte, handik bi hila-betera (Ikus Eduardo Jauregi Beraza; *Joseba Rezola, gudari de gudarís. Historia de la Resistencia*, Fundación Sabino Arana, 1992).

giñan, eta soka baten laguntzaz bigarren bizitzako balkoi batera jexten aalegindu zan, baña alperrik, ezin beko bi poliziak ikusi gabe egin. (...)

»Gure sukaldeak barne-bide bat zun zuzenean, baña bereala biurguneak zitun bi aldetara, eskubitara joz komunera iritxi zintezken eta ezker aldera egiñez, kaleko atera. Biurgunea zan zatian sapairik ez genun, arritzekoa bada ere, eta onen ordeztellatua genun gañean, baita laugarren bizitzako bi leio ere. Bitxikeri onegatik, aal zan moduan aita laugarren bizitzako leio batera igotzen lagundu eta bizitza ortan sartuz, andik tellatura irixteko aalegindu bear zula pentsatu genun. Baña au guztia zaratarik gabe egin bear genun, bi arrazoigatik batez ere: bata, atean zegon poliziak ez zun ezer entzun bear; bestea, laugarrenean bizi ziranak lagunak izan arren, auek esnatzea arriskutsua zan, soñurik entzuten bazuten, karrasirik edo egin zezaketen ta. Nola edo ala lortu zun goiko leio batera igo eta bizitzan sartzea, bi semeen laguntzari esker, eta an, argi-zulo batetik tellatura ateratzea, Anderrek (seme zaarrenak) lagunduta. Orduan onek esan zigunez, aita tellatuan ondo utzi zun eta berri onek pixka bat lasaitu gindun; etsaien atzaparretatik iges egin zun beintzat! Bereala oean sartu zan beste guztiak bezela.

»Andik pixka batera, antxe ziran berriro ere gure "lagunak", sartzeko baimena aldean zekartela. Ezin zuten sinistu aita an ez zegonik, eta ikusketa artan etxe guztia arakatu zuten, oe azpi, arasen atzekaldeak, eta abar. Oso asarre ziran amarekin, ez zuten ulertzen ta, zergatik bialdu zituzten aginduaren billa, aita an ez bazan.

»Kezkatuta euki gindun gau osoa, aita tellatuan bakarrik... gauez... nola egongo zan ez jakiteak!

»Urrengo goizean, ondo zegoela esanez, mezu bat bialdu aal izan zigun.

»Tellatuko ibillerak geroago, berekin itzegin aal izan genuenean, jakin genitun. Etxeko ataria San Jeronimo karrikan izan arren, bizitzak Puerto karrikako izkiña ere artzen zun. Ortaz, aita tellatura irten ondoren, Puerto kale aldera joan, eta ango balkoi bate-

an sartu eta antxe egin zun gau osoa. Etxe artakoak ezagunak ziran, eta auek Puerto kaletik ateratzen utzi zuten.

»Une artako arazoa gainditu bazun ere, ez da bearrezkoa, andik aurrera ezkutuan ibilli bearke zuela esatea. Donostin eman zitun illabete batzuk, baña ortarako bizarra utzi zun. Eta orrela, iñork ezagutzen ez zuela, ibillalditxoak ere egin zitun irian zear³. Orrela ezin zula jarraitu, eta “beste aldera” joan bear izan zun, 1946an».

Donibanen azkena

“Carte d’identité d’étranger temporaire. Arcelus, Andrés. Profession: Sans. 10 decembre 1946. Delivrée 30 decembre 1946. Lieu de résidence et adresse au moment de la remise de la carte: Pau 4 rue des Anglais”. Beste aldean, Donibane Lohitzunen bizi izan zen, Villa Briseis-en, EAJk alokaturiko etxean. Bertan sortu zuten Joseba Rezolak eta biak, alderdiaren aginduz, isilpean emititzen zuen Euzkadi Irratia. Harekin batera bizi ziren irratiko beste kideak ere: besteak beste, Leonardo Salazar eta Iñaki Durañona. Luzear irratiko zuzendaria izan zen, eta euskarazko egitarauaren arduraduna. Behin baino gehiagotan eten zuten Donostiako “Radio San Sebastián” en emisioa Francoren kontrako aldarriak jotzeko. Bere kronikak “Gorrititar Imanol” izenordez izenpetzen zituen. *Alderdi*

³ Juan Ajuriagerra Donostian ezkutatuta zegoela, Valdestarren Villa Izarra etxean egoten zen. Iñaki Valdesek kontatu zizkion Pelay Orozcori Luzearren ihesaldiaren berri gehiago: “Cuando se escapó Ander Arcelus, estuvo varios días viviendo, podríamos decir, como un gato, en los tejados. Por las noches intentaba cobijarse en cualquier sitio que le ofreciera abrigo bajo techado. En una de estas ocasiones, parece que quiso entrar en algún piso que estaba abierto y desde dentro empezaron a gritar: “¡Ladrones, ladrones!”, por lo que el bueno de Arcelus tuvo que salir de allí volando. Y así estuvo varios días, sin comer. Un buen día llego aquí, porque conocía el refugio de Juan [Ajuriaguerra]. Y te vas a asustar: aquel día se comió ¡catorce pasteles seguidos!”. Pelay Orozco, Miguel; *Juan Ajuriaguerra, su vida, su obra, su muerte*, Idatz Ekintza, 1987. Amale Arzelusi esker dakigu, aita ezkutatuta zegoela ere, Aldakonea gaineko Usandizagatarren etxera joaten zela gazte talde bat prestatzen ari zen euskarazko antzerki lana zuzentzera.

aldizkariko kontseiluan egon zen, eta *Euzko Deya* aldizkarirako ere hainbat artikulu idatzi omen zuen, izenik gabe.

EBBko lehendakariorde izan zen Iparraldean. Alderdiko txosten eta gutunetan “Anselmo” izena erabiltzen da hartaz hitz egitean (EBBko lehendakaria, Doroteo Ziaurriz, “Dionisio” zen): Ander, Andrés, Luzear, Imanol, Anselmo.

1949ko urtarrilean ondoeza egin zitzaion Anderri. Ziaurriz eta Gorostidi sendagile adiskideek begiztatu zuten eta ebakuntza egin beharra zela erabaki zuten; Parisa eraman zuten hango sendagile on batengana. Apirilean egin zioten ebakuntza, baina alferrik. Amale Arzelusek kontatzen du bere liburuxkan zer zailtasun izan zituzten amak eta seme-alabek aitaren ondoan azken hilabeteetan egoteko eta hari laguntzeko: mendiz batzuetan, itsasoz besteetan, beti isilpean, beti arriskupean ibili behar. Andreak behintzat azken lau hilabeteak senarraren ondoan igaro zituen. Lurdara ere eraman zuten mirariren baten esperoan. 1949ko abuztuaren 27an hil zen, ordea. Berrogeita hamaika urte bete berri.

Baina ez ziren hil eta gero arazoak bukatu. Espainian agintea zeukatenek ez bide zuten *Egunan* 1937an Luzearrek izenpetuta argitara eman zen artikulua irakurri: “Ez gorrotorik”. Amale Arzelusek ematen digu egun haien berri:

“Ez gorrotorik”

«Muñoatarrak Donibanen bizi ziran. Sendi au Donostin oso ezaguna zan. Aberatsak ziran, baña aberastasunak ez zitun itxutu, eta guda aurretik euskeraren alde lan asko egin zuten. Muñoatar Miguel jaunak jarri zun Donostin leenengo ikastola, 1920 urtearen inguruan. Laguntza bear zuenaren ondoan ziran beti. Gure aitona-amonaren etxe aurrean bizi ziran; betiko ezagunak genitun, beraz. Aita il zanean, Donostira ekarri bear zala bururatu zitzairen. Oso gauza zalla zan eta ez genun uste iritxiko zutenik. Alde batetik, onera ekartzeko baimena ematea ia eziña zala zirudin; bestetik, ortarako bear zan dirurik ez genun. Leenengo lortu bear zana, ekartzeko baimena zan. Ontarako Madridedeko norbaitengana jo

zuten eta baimena lortu. Diru arazoa ere bere gain artu zuten, eta, orrela, Donostira ekarri aal izan genun aita.

»Aitarekin gure ama eta aizpa etorri ziran; gure bi anaiak joan bezela, mendiz, etorri bear izan zuten.

»Ekarri zuten ba Donostiko illerrira. Baña illotz ere ez ziran istilluak bukatu. Biaramunean, amar edo amar t'erdietan illobiratzeke gelditu giñan, baña bertara iritxitakoan, lurperatua zegon. Polizia goizeko zazpiretan azaldu, eta indarrean eorztea beartu zutela esan zigun bertako apaizak. Sinesteziña da illa egonda ere pakean ez uztea, bañan illobiratzea zala-ta, giza talde aundia bildu eta agerkundea (manifestazioa) eratuko zanen beldur ziran.

»Ez zan onekin bukatu "festa". Illeta-elizkizuna ere, ezin izan genun nai bezela egin. Santa Maria elizan, goizeko amaiketari genun ordua, baña bezperan, gauez, erretoreak deitu zigun goizeko zortzi t'erdietara aurreratzeke agindua jaso zula Gobernutik esateke. Zearo beldurtuta ageri zan, eta bat-batean onartu egin bear izan genun. Baña ez giñan lasai gelditu, egunkarietan 11:30etan izango zala jartzen baitzun. Orduan, Donostiko Irratira deitu eta illetaren ordua aldatu egin zala adierazteke eskatu genien. Irratiko zuzendaria Molina jauna zan. Leen aitatu det guda aurretik gure aitak euskal irratsaioak antolatzen zitula; au zala ta, Molina jaunarekin arremana izan, eta onek begi onez ikusia zun. Irratira deitu ta, ematen ari zirana bukatu bezin laster, albistea zabaldu zuten. Gerora jakin genun, Molinak milla pezetako isuna ordaindu bear izan zula, eta diru asko zan garai artako ere.

»Orrela ba, goizeko zortzi t'erdietan izan zan elizkizuna, eta, irratiari esker, jende ugari bildu zan. Baña bagenekin askok ez zutela jakingo ordua aldatu zanik, eta Amarako Karmeldarrai ea amabitan meza eman zezaketen galdetu genien, eta auek baietza eman ziguten. Orduan, Ander eta Iñaki, gure anaiak, eta Andoni, nere senarra, amaika t'erdietan Santa Maria eliz-atarian jarri, illetara zetozenei gertatutakoa adierazi, eta Amarara bialdu zituzten. Oartu zeraten bezela, jende asko bildu ez zedin, illeta-elizkizuna aurreratu arazi zigutenei, oso gaizki atera zitzaizen beraien jokoak; batean izan bearrean, bitan ospatu baitzan».

Luzearren idazlanak

1931an argitaratu zuen, *El Díaren* orrialdeetan, bere lehen antzerkia: *Gibelaundi*. Lehen orrian honela dio: “Luzear-ek euskeratutako elkarrizketa. Donosti-ko Eusko Etxea-n antzestu zan lenengo aldiz”, 1929ko abenduan, Santo Tomas egunez. Koldo Mitxelena Kulturunean gordetzen dute eskuizkribua. Bertan ageri da urtea: 1929. Aldaketa nabarmenak daude eskuizkributik *El Díako* argitalpena.

Zenbat aldiz antzestu den ikusita, *Neskamearen marmarrak* bakarriketa laburra da zalantzarik gabe Luzearren lanik ezagunena. A.M. Labayenen *Antzerti* aldizkarian argitaratu zen lehen aldiz (1934), eta Luzearren alaba Amalek antzestu zuen aurrena.

Gibelaundi eta *Neskamearen marmarrak* biak elkarrekin bildu zituen Eugenio Arocenak A. Arzelus eta A.M^a Labayen, 98 *belau-naldiko antzerkilarik* izenburupeko liburuan, eta, Azpeitiko Antzerki Topaketak zirela eta, herri horretako Udaletxeak argitaratu zituen 1998an.

Gaur hemen aurkezten dudana, Dickensen *Eguarri Abestia* (*A Christmas Carol*), 1931n, *El Dían* argitaratu zen.

Bernardo Estornes Lasak gazteleraz idatzitako *Historia Vasca* eskola-liburua euskaratu zuen, eta “Beñat Idaztiak” etxeak argitaratu zuen, 1935ean, *Euskal-Edestia* izenburupean.

Horretaz gain, nik dakidala inoiz argitaratu ez diren lanak ditu Luzearrek. Koldo Mitxelenak *Historia de la Literatura Vascan* oharatzen zuen: “autor también de interesantes ensayos dramáticos aún inéditos”. Donostiako KM Kulturunean honako eskuizkribuak daude gordeta: *Exkonberri ameslari* (*Luzear-ek euskertua*) eta *Kirten-en gauzak*. Seguru asko bi pieza labur hauek gerra aurrekoak dira.

Donostiako KMn gordeta daukate Luzearrek, 1930eko urrian, Lezon eman zuen hitzaldi baten eskuizkribua. Hitzaldiak ez du izenbururik, baina Jon Garbizu “Zubigar” Lezotar olerkariari buruzkoa da. Aski interesgarria gainera, ez bakarrik Zubigarren

lana ezagutzeko, baita olerkigintzaren gaineko Luzearren beraren usteak eta hausnarketak jakiteko ere.

Antzerki asko idatzi zuen kartzelan. Eskuizkribu gehienak familiak gordetzen ditu. Lehen aipatutako *Kirkil abestia* da bat, eresidun antzerkia (Dickensen *The Cricket on the Hearth* ipuina oinarri hartuta egokitua; musika, beste preso batek, Franzisko Bengoak, jarri zion). *Gonagorritxo* eta *Marrakatxarra* haur antzerkiak ere espetxean idatziak dira. Azken hiru hauek Sabino Arana Elkargoak argitaratu zituen *Askatasun Ipuinak* izenburuean, 1998an. Garai hits hartakoa da *Dirugosea* antzerkia ere, hiru ekitaldiko drama. Antzerki hau ez da sekula argitaratu, eta eskuizkribuaren fotokopia bat Donostiako KMn dago. Familiak gordetzen du, bestalde, kartzelan eta komuneko paperean idatzia beste antzerki bat. *Eziñ-eramana* du izenburu.

Kartzela garaian abesti batzuk ere idatzi zituen. Bada bat, *Itun* izenekoa, "Tristesse... (tristeza de amor. Sobre un tema de Chopin)" Juan Ortiz de Mendivilen partituraren gainean idatzia. Gero beste bat, *Dueso-ko espetxeratuen ereserkiak* izendatu zituzten bi pieza, Luzearren letra eta Radaren musikarekin⁴. Eta azkenik, beste lau abesti, E. Errazkinen musika, F. Martiarenaren armonizazioa, eta Luzearrek letra idatzita: *Maitetxo*, *Nere emazteari*, *Ene Aberria!*, eta *Maitasuna*.

Kartzelatik atera eta Iparraldean zegoela ez zion idazteari utzi. Familiak gordetzen du *I ta ni, iru*, Enrique Jardiel Poncelaren antzerkiaren itzulpen-egokitzea eskuizkribuan. Jardiel Poncelak 1945ean argitaratu zuen *Tu y yo somos tres*, beraz, Luzearren azken urteetako lana da egokitzapena. Hil aurreko egunetan, Emmanuel Roblès-en *Montserrat* izeneko antzerki lana euskaratzen ari zen Luzear frantsesetik. Ekintza Bolivarren garaiko Karakasen kokatuta dago, eta, Montserrat, espainiar ofizial baten abizena da. Luzearrek abizena aldatu zion, eta *Ibarrola* jarri. Erdia

⁴ Bitxikeria moduan esan dezadan, familiak gordetzen duen eskuizkribuan ageri den letrakera ez dela Luzearrena. Nik esango nuke letrakera hori Koldo Mitxelenarena dela.

edo itzultzera iritsi zen. Bukaera, Luzearren adiskide eta bere suhiaren aita Joseba Zinkunegik eman zion. Bi eskuizkribuok familiak dauzka gordeta.

Familiak gordetzen dituen eskuizkribuen artean, bada lau orrialdeko bat, aski esanguratsua, eta izenburu hau duena: "Atzoko europar baten oroipenak. Stefan Zweig-ek". Idazle austriararren *Die Welt von Gestern (Atzoko mundua)* oroitzapen-liburuaren kapitulu baten itzulpen saioa da, *Austriara itzultzea* izeneko kapituluarena, hain zuzen ere. Uste dut badela Luzearren azken urteetako irakurketen eta interesen lekuko jator.

Arteako Meñaka Jauregian, Abertzaletasunaren Agiritegian, Sabino Arana Kultur Elkargoak gorde ditu Luzearren eta Luzearekiko hainbat agiri. Besteak beste, 1941ean kartzelan hasi eta hil arteko bere gutunak. Gutun trukaketa, batez ere, Ander Bereziartua adiskide eta burukidearekin egiten du, baina badira beste batzuk ere. Euzkadi Irratiarekin zerikusia zuten paperak ere (asko Luzearrenak) agiritegi horretan daude gordeta.

Eguarri Abestia

Badu zerbait ipuin honek, bestek ez duena nonbait, euskal itzultzaileak, orain bezain ugariak ez zirenean, aurren berritan bultzarazi dituen itzulpen-saioak egitera. Luzearren saioaren berri izan ez, eta Xabier Mendiguren Bereziartuk ingelesa ikasi eta zerbait itzultzea bururatu zitzaionean, Dickens lan horrekin abiarazi baitzuen bere itzulpengintzako bide oparoa. Saio harekin pozik ez nonbait, eta tiraderaren batean gordea gelditu zen urte askoan. Urteak joan urteak etorri, 1990eko egun batean, berak bezala Luzearren saioaren berri ez zuen argitaratzaile batengana joan, eta lehen bertsio hura erabat berrituta aurkeztu zion argitaratzeko. Urte hartako abenduan eman zen argitara liburua, Erein argitaletxean, *Gabon kanta bat* izenburupean. Lerro hauek idazten ari dena zen argitaratzaile ezjakina.

2003an, Hiria Argitaletxeak beste itzulpen bat kaleratu du, *Eguberri kanta*, Nerea Mujika Arandak egina.

Hitzaurre honen hasieran aipatu dut noiz-non-nola argitaratu zuen itzulpen hau Luzearrek. Ez naiz horretan luzatuko beraz. Esan behar da, argitalpena bukatu zuenean, azken atalarekin batera, ohar bat atera zuela egunkarian, nahikoa interesgarria, "Euskal-orri irakurleak, zer deriozkiozute?":

Amaitu det nere lenengo euskal ingurtitxo saioa. Egunkariak eskatzen duan tankeran, egunean egunekoa itzuliaz, juan zaizute Dickens-en "Eguarri Abestia". Ez det neronek ere nere lana osorik irakurri, baña akasduna izan bear naitanaez; orrexegatik gañera. Zatika-zatika, ta askotan astirik ezak beartuta egiña izanik asieratik azkenera bi eskuk idatzia ematea, ala atzo emana gaur berrizturik arkitzea gerta baileike. Ez natorkizue beraz gauza aundiren bat egin dedalakoan "koipe" bila, neronen burua iñork baño obeto ezagutzen det eta. Iñoren gogoa ase nairik egindako saio baten ondoren ordea, asenai ori bete ote dan ala ez jakin naiean idazten dizkizuet lerrotxo auek. Euskal-Orri irakurle guziak erantzutea nai nuke. Bi lerro idatzi, bi xentimoko sello batekin bialdu ta kito. Ona zer jakin nai nuken: "Eguarri Abestia", irakurri al dezu? Ebaki ta jaso al dezu? Ulerkaitza izan al zaizu? Euskal-Orrian onelako ingurtitxoak atsegin al litzaizkizuke, ala gañontzeko idazkaiak naiago dituzu? Beste esanbearrik ba al dezu? Bi lerro idatzi zaizkidazu, arren, eta EL DÍA-ko "Euskal-Orria" "Apartado 130 Donostia" zuzenbidearekin bialdu gaur bertan, idazkazal irikian, bi xentimoko selloarekin. Eta eskerrik asko.

Bertan esaten zaigu nola egiña zuen itzulpena: "egunkariak eskatzen duan tankeran, egunean egunekoa itzuliaz". Ez zaigu argitzen ingelesetik edo gazteleratik itzuli ote zuen. Gorago aipatu dudan iragarkian, ordea, horrela esaten digu: "Igandean asiko gera noski, *ingeleratik* itzulitako 'nobelatxo' bizi, irakurgarri, labur bat argitaratzen". Lana irakurri eta gero, gaztelaniazko itzulpena eta ingelesezko jatorrizkoa alboan eduki eta gero, bi gauza esatera ausartzen naiz, beldurrez bada ere. Bata, seguru asko bi bertsioak eduki zituela begien aurrean; eta bestea, hori bai seguru, ez dela hitzez hitzeko itzulpena, egokitzapena baizik.

Ez da harritzekoa egokitzapena izatea, Luzearrek irakurgai egokiak eskaini nahi baitzizkien orduko euskaldunei. Hori zuen helburu nagusia. Hori egin zuen itzuli-egokitu zituen gainerako ipuintxo eta antzerki lanekin ere. Batzuetan ez du nondik egokitzen duen ere esaten. Pentsatu behar dugu garai hartan ez zegoela orain adinako aukerarik euskaraz irakurtzeko. Luzearrek irakurgai goxo egokiak eman nahi zituen.

Eta goxotasuna eta egokitasuna ezin ukatu zaio *Eguarri Abestiari*. Ez naiz harritzen Mitxelenaren oroitzapenean harri xuri batez markatuta geratu izana hura irakurri zuen eguna.

Eta egokitzapenen artean, ez da txikiena izenena. Luzearrek euskaldundu egiten ditu bertako protagonistenak, nahiz eta ekintza "London"en kokatu. Pertsonaia nagusia, Ebenezer Scrooge, Iñaki Ezkurra bihurtzen du. Ez dut uste aliritzira egokitutako izena denik. Kontuan hartu behar dugu, Scrooge abizena xuhurkeriaren sinonimo bihurtu dela ingeles tradizioan, Harpagon bezala Frantziakoan. Ezkurra, euskal abizena izateaz gain, bada jakina haritzaren edo artearen fruitua, baina baita diruaren sinonimo ere. Honela dio Kirikiñok bere ipuin batean: "Iragintza kontratakin ezkurra polito baturik...". Orotariko Euskal Hiztegian Kirikiñorenaz gainera, Apaolaza, Erkiaga eta Uztapideren adibideak datoz.

Scroogeren baltzukide Jacob Marley, *Jagoba Marlegi* da Luzearrenean. Scroogeren umetako laguna: Valentine, *Balendin* da; Orsoni ez dio izenik aldatu eta Dick Wilkins-i *Jon Larzabal* jarri dio. Fan, Scroogeren arreba, *Garbiñe* da. Fezziwig jauna, *Lertxundi*. Andregai izandako Belle, *Josune*. Scroogeren idazkaria, Bob Cratchit, *Yon Zubiri* da; honen andreari ez dio Dickensek izenik jartzen, Luzearrek *Andre Miren* bataiatzen du; bi hauen seme-alabak dira: Belinda (*Iziar*), Martha (*Marte*), Peter (*Kepa*), Tiny Tim (*Xabiartxo*) eta Cratchit txikiak (*Xubiritxoak*). Scroogeren iloba Fred, *Ibon* da; Topper, *Mikel*; Joe zaharra, *Txomin*; Mrs Dilber, *Andre Joxepa*; eta Caroline, *Karoline*.

Euskararen zain-zainetik idatzia dago *Eguarri Abestia*. Jatorrizko idazkiak dakarrena orpo orpo jarraitu gabe, euskaraz emanda, euskal ipuin zaharren kutsu halako bat erantsiz. Ez dut

esan nahi gaur egun jarraitu beharreko eredia hori denik noski. Harrezkero bidea egin du itzulpengintzak euskaraz, bide emankorra beharrik, baina ez ditzagun ilunpetan utz bide hori bide ez zenean aitzurra eta pala hartu eta aurreneko lurra mugitu zituztenak.

Joskera aldetik, Luzear, Altuberen eskolako delat esan genezake lasai asko. Ez dut uste hala ere irakurketa zaildu egiten duenik. Zailtasun bakarra, eta ez handia, hiztegia izan daiteke. Garbizaletasunaren auzian, ordea, ez da inola ere garbizalekeria erabiltzen zutenen iritzi bereko. Tradizio zaharraren putzutik ateratzen du ura Luzearrek gehienbat. Eta eskas zaionean, orduan bai, neologismora jotzen du, batzuetan garaiko hiztegiatara –Bera-Lopez Mendizabal eta Azkue buruz zekizkiela esatera ausartuko nintzateke–; bestetan, buruan bi buelta eman eta bere euskal senetik atonduta. Zailtasun horretarako aringarri, hiztegi bat aurkituko du irakurleak liburu honen azken partean.

Vernerekin bueltaka

Badakigu, iragartzera ere iritsi baitzen, lan gehiago itzultzeko asmoa izan zuela Luzearrek. Zehatz esanda, honela iragartzen du 1931ko maiatzaren azken egunean: "Laster, irudimen bizi erri aztertzalle idegabe ta idazle oparotsuenetakoa izandako Jules Verne-ren irakurgaietako bat argitaratuko degu". Eta Ekainaren seian, beste iragarki batean zehazten du zein nobela itzuli behar duen: "Julio Verne-ren irakurgairik politenetakoa ez ote da 'Larogei egunean, ludiari bira'? Orixe dezu ba egun gutxi barru eskeñi nai dizuguna". Ekaina osoan zehar iragartzen du argitarapena laster datorrela. Gero, isiltasuna. Abuztuan 9an, eta kolaboratzaile batzuen kexuak entzun ondoren, artikulu adierazgarria argitaratzen du, izenburu adierazgarriagoarekin: "Beazun tantoak. Euskal Orriaren bearra":

Izperringi landola batean egon ez danak ezin lezake, emen, barren ontan, zenbaterañoiko gibela bear degun, urruti xamarretik, amar bat kilo gorabera dirala ere nabaitu. Txorrotx xamarrek geranoi ere bi

bide erakusten dizkigute: gibelaunditu ala alde. Ez dago tarteko mallarik. Eta zerbait egin naiak bagarabizki, amaika aldiz ortzak estutu, ta bereak eta bost norbaiti esango genizkiolakoan, esanbear guziak atzeko patrikan gorde ta, "Onela bizi bagiña beti" abestu oi degu. Orregatik gure idazkide maiteak beren irakurgaitxoren bat edo beste argitaratu etzaiotelako goibel ikusteak samindu oi gaitu benetan. "Errena" k adarjotzallenen buru egiten nindun lengo batean. "Iturralde" k bere berriak nik nai banuan argitaratuko zirala zion. Eta aspaldi ontan erdipurdi dabizkitelako aitatzen ditudan oez gain, beste lagun pillá bat ere aserre xamar izango ditut noski beren lanak berandu azaldu ala argitaratu ez diralako. Ez naiz ni, ez, adarjotzallenen buru, "Errena" adiskide. Ezta ere Jainkoa, "Iturralde", emen nai dedana egiteko. Onela balitz Jules Verne-ren "nobela" polita aspaldi asia nuan. Eta zuen bion berriak aidian agertuko lirake. Baña... Aurrentzat amabostean bein edo osatu nai nuan orritxo alaiak potó egin duala ikusten ez dezute? Nun da gure andereñoen orri berezia? Nere asmo begikoak etziran ba? Zer egitea nai dezute ordea "anuntziyo" asko dan egunean orria auts egiten badidate? Zer, euskera, gure euskera gaxoa, besterik ez danean bakarrik ontzat artzen badidate? Zuek eta ni lan aberkoi, garrantziduna, egiten degulakoan ari gera. Baña ez uste besteak orrela dalakoan daudenik. Bai zera. Gure txepelkeriak iñongo argirik piztu al dezateke ba?

Hau irakurrita edonori datorkio burura kontu bat: ez dira ba asko aldatu denborak! Ez dakidana da Vernereren nobela itzultzera iritsi zen ala ez. Baliteke inon egotea itzulpen hori. Dakiguna da Joxe Migel Zumalabek, 1936ko gerratean, Eusko Ikaskuntzako bulegoetan utzi zuela nobela horren itzulpen bat. Baina desagertu egin zen tamalez. Ez dakigu Zumalabek berak itzuli zuen edo beste batek itzulia utzi zuen han. Agian, batak zein besteak itzulia izan, egunen batean agertuko da!

Gure edizioa

Gure edizio hau egiteko Donostiako Udal Liburutegiak nire esku utzi dituen mikrofilmeen fotokopiez baliatu naiz. Irakurketa ez da beti erraza izan. Batzuetan –egunkarietako ohitura noski–,

akatsen bat sumatzen zelarik, zuzentzen saiatu naiz, argi ikusten bazen behintzat zein zen akatsa. Zerbait falta zela iritzirik, hondatuta edo ezabatuta ageri zelako, adibidez, ingelesezkora jo eta parentesi zuzenen barruan sartu dut eskas zuena, eta oin-ohar bidez argitu.

Luzearrek argitaratutako bertsioa ematen ahalegindu naiz eginahalean, oso gauza gutxi aldatuta. Hona ukitu diren gauzak:

–Izen propioen ondoko apostrofoak kendu ditut ia erabat: Yon'ek > Yonek.

–/r/ gandordunak /rr/ bikoitz bihurtu ditut. Gauza bera /l/ eta /t̃/ hizkiekin.

–Galdera eta harridura markak esaldi hasieran eta bukaeran daude jatorrizkoan. Nik bukaeran bakarrik ezarri ditut, gaurko ohituraren arabera.

–Hitz elkarketetako marrak eta puntuazioa nahikoa ukitu ditut, gaurko ohiturei jarraituz, eta beti ere argitasunaren mesedetan.

–/s/-/z/ hizkien nahasketa zuzentzen ahalegindu naiz. Hona hemen zuzendu diren hitzak: arrizko > arrixko; arramaska > arramazka; aberaztu > aberastu; aztun > astun, eskutatu > ezkutatu; eskutuki > ezkutuki; azke > aske; azkatasun > askatasun; azkatu > askatu; kamutz > kamuts; karrazi, karraizi > karraxi; osta-osta > ozta-ozta; erakutzi > erakutsi; azaldu > asaldu; zakon > sakon, igeltzu > igeltsu; esker-eskubi > ezker-eskubi; mazti > masti; matz > mats; matasa > mataza; akatz > akats; irrizta > irrista; sentsuzko > zentzuzko; eguraztu > egurastu.

–/y/ grekoa bi kasutan bakarrik erabiltzen du: "iya" eta "biyar" hitzetan. "Ia" eta "biar" aurkituko ditu irakurleak.

–"Palta", "apaldu", "apari", "pirmatu", "pin" hitzak "falta", "afaldu", "afari", "firmatu" eta "fin" aurkituko ditu.

–Berezko /-a/ itsatsia erantsi diet honoko hitzei: "zalantz", "eskeintz", "bizitz", "grin", "neskatx", "lots" eta "giltz".

–Ahalegina saiatu naiz hitz formak batzen, bi eratara edo gehiagotara agertzen zirenean. Esate baterako, "ezpaitzan" eta "ez baitzan", "ezpageneki" eta "ez bageneki" eta abar agertzen baitzi-

ren, “ez baitzan” eta “ez bageneki” modukoak hartu ditut aintzat. “Bizpide” eta “bizibide” agertzen baita, “bizibide” aukeratu dut. “Ikaz” eta “ikatz” > “ikatz”; “Jaiki” eta “jeiki” > “jeiki”; “Egurrri” eta “Eguarri” > “Eguarri”; “eskar” eta “esker” > “esker”; “aserre” eta “asarre” > “asarre”. Egin dudan aukerak, ikusten denez, ez du askotan bat egiten gaurko euskara batuarekin, baina aukera hori egin badut, autoreak berak gehiagotan erabiltzen due-lako izan da.

–Badu beste kasu bat, aparte aztertu daitekeena: “oi” eta “oe” erabiltzen du, gaur egungo “ohe”rako. Hasierako kapituluetan ia erabat “oi”, “oieratu”, “oietik”, “oieko”, “oiera” eta “oiean”. Baina azkeneko kapituluetan, berriz, erabat “oe”, “oeratu” eta abar. Azken horren alde egin dut.

Nire esker ona agertu nahi diot Amale Arzelus Luzearren alabari, eman dizkidan argibideengatik, eta bere seme Jon Andoni Zinkunegiri, erakutsi dizkidan aitonaren lanak eskuzabal erakusteengatik. Iñaki Goioganari ere mila esker: batzuetan, norberari dagokion lana ongi egitea, gogoz eta eskuzabaltasunez, eskergarria izaten baita.

Inazio Mujika Iraola

2003ko ekainean

Eguarri Abestia

Charles Dickens



“Luzear“ek euskeratua



**EL DIA
1931
DONOSTIA**



Charles Dickens

LENENGO AAPALDIA

Marlegiren Mamutzarra

Marlegi illa zan. Au iñork zalantza apurrik gabe sinisteko eran idatzi nai nuke aurren-aurrena. Aren eortzi-paperak, erretoreak, sakristauak, eortzetxe-ordezkarriak eta proguko buru izandakoak izenpetuta zeuden. Ezkurak firmatuak ziran, bai, ta onen izenak indar aundia erantsi oi zion edozein paper motari.

Marlegi zarra, edozein ate-iltze bezin illa zegon beraz. Aitor dezadan argibidez, ez dedala ate-iltze bat eriotzaren irudirik egokiena danik uste. Iltzeren bat nerez aitatzekotan ilkutzakoren bat lenago aitatuko nuan. Baña ez naiz ni, ez ni, izango iñola ere, asabak on iritzian utzitako irudirik aldatuko duana. Onela erori izan baitira erridiak. Esan dezadan beraz berriro, aotsa biribilduaz, Marlegi, ate-iltzerik erdoituena bezin illa zegoala.

Ta Ezkurak bai al zekian ori? Bai noski! Jakingo etzuan ba? Ezkurra ta biak baltzukide izanak baitziran, Jainkoak daki zenbat urtean. Ezkurra izan baitzan aren atzenai-betetzalle bakararra, aren banakari bakararra, aren ordeko bakararra, aren oñordeko bakararra, aren adiskide bakararra, ta, atzenengo ibillaldi artan, aren laguntzalle bakararra. Ta irabazpideak galtzeko gizona ez izanik, etzuan Ezkurak laguna galtzeak eman oi duan samintasuna illeta egun artantxe tratu edo bat egiteko eragozpen izan.

Illetak aitatu ditudanez, biurtu nadin asitako bidera. Marlegi illa zala badakizute beraz. Au gogoan ondo artu, gañontzean edestu bear dizutedanak bere gatz guzia galduko luke ta. Hamlet-en aita illa zala ez bagenek, ez baigiñake bera, seme kaxkariña bide onetaratzeko, gabean, bere zaindoki zear pasiatzen arkitzearekin,

beste edozein jaun agurgarri onen antzeko toki aizetsuren batean –San Pabloren Ildegian, adibidez– arkituko bagenu baño geiago arrituko.

Ezkurrak etzuan Marlegi zarraren izenik beñere kendu. Salostetxe ate gañean urte ta urtetan jarraitu zuan. “Ezkurra ta Marlegi”. Ezkurra ta Marlegi baitzan baltzu-izena. Tratuan asi berriak ziranak Ezkurra esan oi zioten batzutan Ezkurrari; bestetan, ordea, Marlegi. Ark bitara erantzuten zuan. Berdin zitzaion.

Bai esku gogorrekoa Ezkurra lan kontuan! Lerdekatu, biotza aterako zion bere eskutan erortzen zanari, bere setari eutsiko zion gizon arek. Sukarria bezin gogor izan arren, etzan txinpart gogozkorik atera zezakion kanketakorik. Ispelen antzera ixil, berekoi ta bakarzalea. Gogoko otzak azpegia gogortu, sudurra zorroztu, masallak kixkurtu, ibillera makaldu, begi-ertzak gorritu ta ezpañak moretzen zizkion.

Otza ta beroa etziran Ezkurrarentzat ezer. Iparraizerik zorrotzena ez baitzan bera bezin zorrotza. Elurra bezin limurgaitza, eudia bezin setatsua, etzuten egutz-gaiak ere Ezkurra atxitzeko biderik arkitzen. Eguzkia izan ziteken zeredozertan irabazten ziona: eguzkiak beroa baitzeman, eta Ezkurra etzan ezer emateko gauza.

Etzuan iñoiz ez iñork kalean adiskidetasun deiakin gelditu. Txiroak ari eskatu? Umetarañoko guziak iges egiten zioten. Eta ez aundi ez txiki etzitzaion ezeren galdez urbiltzen. Itxu-zakurrak ere jabeak bazterreratzen zituzten, isatsa erabilliaz, “Begi ‘oiek’ izatea baño, batere ez izatea obe” balioeteke bezela.

Baña zer zijuakion onegatik Ezkurrari! Orixe nai etzuan ba? Bizi-bide zear, gañerako bidaztiak urruti xamar zituala ibiltzea baitzan bere elburua.

Bein batean, urteak duan egunik ederrenaren bezperan, Egua-rrri bezperan, Ezkurra zarra, oi bezin lanpetua bere lantegian zegoen. Egun otz, zeken, lañotsua uraxe. Bere alkitik, kaleko marmaizoak, lañoak eztarriak itxi ta egiñerazten zituan eztulak entzuten zituan; jendea, odol-birak bizitu nairik, arrantzaleak oi duten eran besoakin bizkarra juaz, edota berotu nairik soroilu-arriak oñakin gogor zapalduaz zebillela nabaitzen zuan.

Illunpean zegon erria, erlojuak irurak zirala zioten arren. Ingu-ruko dendatan sakon beltz gañean lauso gorrixtak bezela kandel piztuen argiak dirdir motela zegiten. Tarte ta zirrikitutatik lañoa sartzan zan, espaloi batetik bestera etxeak estaltzen zituan laño lodia. Odei estalki ura ikusita, izadiak gobara eguna zuala esan zitekean.

Bere idazlaria begien aurrean eukitzearren, ura eskutitz-kopiatzen ari zan saizulo estu ta zarpaillerako bide zan bere lange-lako atea irikia zeukan.

Ezkurra berotzen zuan sua txikia zan, baña idazlariarentzat piztuta zegoanaren ondoan sutzarra zirudin. Onek ezin zezaken iñola ere sua indartu, ikatz-tokia nagusiaren langelan baitzegon, eta etzuan ikatz-koskor bat artzea besterik bear bere irabazpidea galtzeko arrixko bizian jartzeko!

Sua ezin indartu zezakenez, bere lepo-beroki zuria jantzi, ta kandela bereganatu zuan onen beroa ere artzeko. Baña etzuan ezer asko irabazi.

–Eguarri zorientsuak, osaba! Jainkoak gabon! –zion abots alai bat entzun zan.

Ezkurraren illoba baten aotsa zan. Bat-batean sartu zalarik, bere agurra iñork ura ikusi baño lenago entzun zan.

–Ba! –marmar egin zuan Ezkurrak–. Umekeriak!

Laño ta izotz menderatu naiaz, lasterka bizian etorria zan Ezkurraren illoba ori, ta gorrituta iritxi zan. Arpegiak dirdir zegion, begiak txinparta zerioten eta bere arnasa ur biurtzen zitzaion itz egiterakoan.

–Eguarri umekeri bat, osaba!? Etzera biotzez ari!

–Bai jauna, uste diaten bezela ari nauk –erantzun zion Ezkurrak–. Eguarri zorientsuak! Xagua baño txiroago izanik, zer esku-bidekin edo zergatik alaitzen aiz?

–Orra! –bota zion alaiki illobak–. Ta zu Kreso bat baño aberatsagoa izanik, zer eskubidekin goibeltzen zera? Zergatik musindu?

Etzuan Ezkurrak berealako erantzunik arkitu, ta, biderik erre-xenera joaz berriro, “Ba! Umekeriak!” besterik etzuan esan.

–Etzaitetz asarretu, osaba –esan zion illobak.

–Nola ez, ergel artean bizi banauk! “Eguarri zoriontsuak!”, “Eguarri zoriontsuak!”. Zer zekartek iretzat Eguarriak? Dirurik ez eta guzia ordaintzeko aroa; urte bete geiago, baña ez xentimo bat geiago; kontuak atera ta zorretan agola ikusteko garaia. Benetan esaten diat, al banikek, “Eguarri zoriontsuak” ezpañetan dituztela dabiltzan guziak beren xaltxan egosi ta gorosti artean serbituko nizkikek. Bai orixe!

–Osaba!... –asi zan illoba.

–Illoba! –erantzun zion gogorki osabak–. Ospa itzak Eguarriak derizkioken eran eta utzi akidak neri nere tankeran ospatzen.

–Baña iñola jaituko ez baidituzu –jardetsi zuan illobak.

–Utzi nazak pakean –esan zion Ezkurrak–, on dagikela. Oraindañokoakin baliatu aizen itxurak dituk eta!

–Izan ditut bai zuk diozun eran baliatzeko bideak. Eguarri oietxekin ere bai. Baña askoz lasaiago bizi naiz garai ontan. Eguarriak, bere izen eta jatorriagatik zor zaioten begirapenez gañera, maitasun, ontarte ta goinai aro izan zaizkitelako. Auxe baita, urte luzearen buruan, giza-emakumeak biotza zabal-zabal egin eta mendekoak ere bizilagun bezela ta ez beste enda batekotzat artzen dituen aroa. Aberastu ez banaute ere, on egiñ didate beraz Eguarriak, eta “Onetsia bedi Eguarri eguna” esatez ez naiz aspertuko.

Idazlari gizajoa bere saizulotik txaloka asi zan itzaldi ark berotuta, baña, bereala oarturik, sua zirikatuz nolabait estali nai izan zuan egindakoa, sukondartxo zearo itzaliaz.

–Zuzmurrik txikiena nabaritzen badiat, beste ogibideren baten billa ospatuko dituk Eguarriak! –esan zion Ezkurrak.

Ta bere illobari:

–Motell, izlari bikaña aiz! Etzekiat nola Latetxera eraman ez auten.

–Tira, osaba, etzaitetz asarretu ta etorri biar gurekin bazkal-tzera.

Bai al dakizute ain gogo onez egindako eskeñia nola artu zuan Ezkurrak? Bere illoba... esan dezadan, inpernuko zuloan ikusi nai lukela bete-beteaz.

–Baña zergatik? –galdetu zion gizajoak–. Zergatik?

–Zergatik ezkondu itzan? –galdetuaz erantzun zion Ezkurrak.

–Nere emaztea dana maite nualako.

–Maite zualako!?! –esan zuan Ezkurrak, Eguarriak ospatzea bezin ergelkeri aundia balitz bezela–. Agur!

–Baña, osaba, zer dala-ta orain nere ezkontza eragozpen bezela jarri, ezkongai nitzala ere beñere nere etxera etorri ez baziñan?

–Agur! –esan zuan berriro Ezkurrak.

–Asko samintzen nau zu onen itxututa ikusteak, osaba. Gure artean naigaberik izan bada, ez da noski ni bide naizela izan. Adis-kide antzean, egunari zegokion bezela, eskeintza au egin nai izan dizut. Eta ez nuke nai nere asmo onik galdu, gerta ala gerta. Eguarri zoriontsuak, beraz, osaba!

–Agur!

–Eta urte berri on!

–Agur! –esan zuan Ezkurrak bosgarren aldiz.

Eta illobak alde egin zuan sartu bezin gogo onez. Idazlariaren aldamenetik igarotzerakoan ura zoriondu zuanean, biotzezko oiartzunak erantzun zion.

–Beste zoroa! –zion Ezkurrak bien elkarrizketa entzunik–. Astean bost duro irabazten ez ditu, emaztea ta seme-alabak etxean, eta “Eguarri zoriontsuak” dio. Ergel alena! Zoro-etxeren batean zurragorik arki diteke!

Idazlariak Ezkurraren illobari atea iriki zionean, beste bi lagun sartu zitzaizkion. Itxura oneko jaun bi ziran, besapean idazti ta paperakin, txapela aterata Ezkurra agurtu zutenak.

–Ezkurra ta Marlegi, noski, oker ez bagaude? –esan zion batek zerrenda bat irakurriaz–. Ezkurra ala Marlegi jaunarekin ari gera, jauna?

–Marlegi zazpi urtez aurretik illa da –erantzun zuan Ezkurrak–. Gaur zazpi urte, ain juxtu.

–Baña bere lagunak ez du noski jaun aren eskuzabala samiñez oroitu eraziko –esan zuan lengo jaunak bere agiriak erakutsiaz.

“Eskuzabala” entzun, eta, beste gabe, Ezkurraren bekozkoa illundu zan. Agiriak biurtu zituan atzera.

–Guzia alaitasuna dan urte aro ontan –jarraitu zuan jaunak–, txiro ta beartsuenganuzko begiratutxo bat txit bidezkoa izaten da, beren alde zer bait egiteko. Negu gogorra daramagu, millakak bear-bearrenekoa falta dute, eundaka milla oxta-oxta bizi dira.

–Kartzelik ez al dago? –galdetu zuan Ezkurrak.

–Geiegi bezela –erantzun zion jaunak idazkortza utziaz.

–Eta txiro-etxeak ez dute beren eginbearra betetzen? –galdetu zuan berriro Ezkurrak.

–Bai, alaxe da. Ain bearrak ez balira obe!

–Ta beartsuai dagozkien legeak galdu al ziran?

–Ez, oraindik zutik daude.

–Alare, zuri entzunaz besterik uste nuan. Gaitz erdi. Poztutzen naiz.

–Baña aitatu ditugun etxe oiek, jendea ez gogoz ez gorputzez asetzen ez duela uste degulako, lagun-talde batek txiroai jaki ta edari ta berogarriak eskeintzeko dirua biltzea gure gain artu degu. Ta onetarako, mai batzutan guzia gañezka ibilli oi dan aro au aukeratu degu, egun abetan txirotasuna ere astunago egiten dala-koan. Zenbat jarriko degu zure izen ondoren?

–Ezer ez! –erantzun zion Ezkurrak.

–Izena ezkutuan gorde nai al zenuke?

–Pakean uztea nai nuke. Ona garbi esan zer nai nuken, jakin nai badezute. Nik ez det Eguarririk alaiki ospatzen, eta ez nago besteak orrela egin dezaten ezer emateko eran. Len aitatu ditudan etxe oientzat dagokidana ematen det, ta oparo gañera, bai, ta zer-baiten bear diranak dijoazela aietara.

–Asko dira ordea ori ezin egin dezatekenak, eta beste askok goseak il naiago luteke.

–Zergatik ez dira ba iltzen? Munduan jende geiegi ez dago? Orixe litzake gañezka daudenak garbitzeko biderik egokiena. Gañera, barkatu, baña nik ez dakit ori guzia ala dan.

–Jakin zenezake, ordea –oarrarazi zion jaunak.

–Ez det ba nai. Neronen arazoakin naiko buruauste sortzen zait, iñorenetan sartu gabe. Agur ba, jaunak!

Itzik egin bearrik etzegola ezagaturik, bi jaunak etorri bezela juan ziran. Ezkurak utzitako lanari eldu zion berriz, bera añako gizonik etzalakoan, oi baño olde obearekin.

Bitartean, laño ta illuntasuna gizendu ta beztu baitziran, esku zuzidunak kale zear ikusten ziran, zaldi aurretik oei bidea erakutsiaz ibiltzeko laguntza eskeintzen.

Ezki zarra godar tankerako leio batean Ezkurrari begira bezela zeukan bertako elizako ezkildorre koldarra ere ezkutatu zan, eta odei artetik, an goien ortzak kaskas balegioteke bezela, dardarti bialtzen zituan ordu ta laurdenak.

Otza gogortu zan.

Kalean, odi konponketan ari ziran langille batzuek piztutako su inguruan, gizon eta aur arlote talde bat arkitu ziteken, ustegabeko bero ura irunsi naiaz bezela.

Kalertzetan, uraga-iturrietatik gañez egiten zuan ura jeltzen zan.

Denda-erakustokiak, gorosti ta garao txortaz apainduta, dir-dir zeuden, kale zear zijuazenen arpegi zuriak gorrixkatuaz. Ollo ta jaki-saltokiak, zoragarriak, urdail miñez zebiltzanentzat begi asegarri, jaki motarik ao-urgileenakin beterik azaltzen ziran.

Uriko alkateak, Eguarriak bere mallako agintari bateri zegokion bezela ospatzeko, bere berrogeitamar sukaldari ta goxogilleai agindu bear zitzaiena agindu zien. Eta aurreko astelenean bere mozkorkerian bazterrak asaldatu zitualako bi duroko multa ordaindu berria zuan zapata-konpontzalle gizajoa ere an ari zan, bere ganbara-zuloan, oiturak agintzen duan budiña egiten, bere emazte igarra ta semetxo xaxpikia urtean beingoa zuten aragi zati billa ziran bitartean.

Laño ta otzak etzuten itxuraz jai. Gogor saiatzen ziran beintzat. Otz garratza, mea, izugarria. Dustan Deunak, deabrua bere izkillu bidez zigortu bearrean, egun artako otzarekin sudurrean muturreko bat eman izan balio, a zer karraxiak eraziko zizkionak¹.

Zakur goseak ezurrari bezin gogoz, sudurtxoari lotuta zebilkin otz gaizto arekin dardar, ume zirtzil batek giltzazulotik Eguarri abestitxo bat eskeñi zion Ezkurrari. Baña au,

“Ate txokuan ollar bi,
batek bestea dirudi”

entzun bezin laster, makil bat artuta ateruntz abiatu zanean, abeslari koxkorrak iges egin zuan, laño ta otzari giltzazuloko bidea aske utzirik.

Lantegia ixteko ordua ere iritxi zan ba noizbait. Ezkurra marmarka jeiki zan eta bere otseñari ere aldegitoko eskubidea eman bear izan zion itzik esan gabe bederik. Au ordua jo zai zegon, eta etzuan unerik galdu argia itzali ta txapela jazten.

–Biar egun guzian jai naiko dek? –galdetu zion Ezkurrak.

–Bear aundirik ez dala beintzat.

–Bear aundirik! Ta nik astekotik duro bat kenduko banikek, bear aundirik izango al ukek?

Bildur irripartxo batek kixkurtu zion arpegia idazlariari.

–Ez dek beraz uste “nik” opor-egun batekoa ordainduta kalterik diatenik.

Urtean beingoa zala esaten ausartu zan idazlaria.

–Ori dek! Abenduaren ogeitabosta dala, ta lapurreta bizia egin orduan –esan zuan Ezkurrak txamarra leporaño lotuaz–. Artzak, artzak egun osoa; baña etzi, galdutakoa osatzen saiatu.

Ala agindu zion idazlariak, eta Ezkurra irten zan marmarizo bizian.

Laster egin zituan ark bat-biak, eta landola itxi ta lepoko berokia muturrak gerriraño zintzilik zituala jantzi ondoren, egun aundi aren bezpera ospatzeko, Ixkindegiko txirristan gazte errenkada luze bateri malla bat erantsiaz ogei aldiz jetxi, ta etxeruntz jo zuan lasterka, lenbaitlen iritxi ta sendi arteko jolasetan alaitzeko asmoz.

¹ Dunstan santua bere arotz lanean ari zela, deabruak tentatu omen zuen. Tradizioaren arabera, tentaldiari amaiera eman bide zion etsaiaren sudurra tenaza handi batzuekin estututa (Edizio prestatzailearen oharra).

Ezkurrak afaldu zuan, murrintsu, eguneroko taberna zulo beltzean, eta gabeko izperringi guziak irakurri ta egunen buruan artutakoen berri zeraman kuadernotxo ondo aztertu ondoren, lotarako asmoan etxeratu zan.

Baltzukide izandakoaren bizilekua zuan bere etxea.

Bizitza illun-illun bat zan. Etxe luze-luze bateko bizitza illun-illuna.

Etxea bera, aurtzaroan kiriketan zebillela galdu ta nora jo etzekiela gelditua ote zan esan ziteken, ain itxura traketsa zegin enparantza koxkor artan. Gure edesti garaian, zar eta itun arkitzen zan. Ezkurra bakar-bakarrik bizi baitzan etxe guzian. Gañerako bizitzetan idazkol-lantegi besterik etzegon.

Ezkurrak enparantza-koxka guziak ongi ezagutzen zituan arren, eskuakin ikutuaz billatu bear izan zuan bere bidea, ain zegon beltz.

Negu-Urtzik etxetzarraren eskaratza bere jauregitzat autu ote zuan pentsa zitekean, otz eta laño guziak an bilduta bezela arkitzen baitziran.

Esan dezadan orain beste ezer baño len, irakurleok jakin dezazuten, ate kisketak aundi samarra izatea beste gauza nabarmenik etzuala. Ezkurrak etxe artan bizi zan ezkerro, gau ta egun amaika aldiz ikusia zuan. Bidez esan dezadan Ezkurra Londongo bururik kamutsena baño irudimen gutxiagokoa genula, kamutsenen artean alkate ta ziñegotziak sartu arren.

Eta aurrez jakin bear ditugunak garbi jartzen ari naizelarik, jakin, arratsaldean bere idazkolan izan zituan bi jaun aiekin itz egin zuan ezkerro, etzala Ezkurra Marlegi iñoiz izan zanik ere gogoratu. Ta au guzia jakin ondoren, esan zaidazute ia zergatik ikusi zuan Ezkurrak, giltza ate-zuloan sartzerakoan, an gañeko kisketan, au iñork ikutu gabe, ez eguneroko kisketa, baizik Marlegiren arpegia.

Marlegiren arpegia. Etzan inguru guziko illunpe beltza bezela, ez; otarra ustel batek jakitegi illun batean botako luken bezelako argitxo laruz inguratuta azaltzen zitzaion. Etzan onen begiratua ez asarre ez ankerra, baña kopet izugarrian zaldizka betau-

rreko ikaragarriak zituala, Marlegik oi zuan eran begiratzen zion Ezkurrari.

Aize epel batek erabillita bezela mugitzen zitzaizkion illeak, eta begiak zabalik baña geldi-geldi zeuzkan. Begi geldi aiek eta arpegiaren zurtasunak ikara bizia ematen zuten; baña etzan arpegia berez ikaragarria, ikara beste zerbaitek sortzen zuala esan ziteken, ez arpegiak.

Ezkurrak bere almen osoz begiratu zionean, kisketa kisket biurtu zan atzera.

Ez litzake egia zirkin egin etzionik esatea. Aurtzaro ezkeru oi etzuan biotz ikara izugarria nabaitu zuan. Baña alare, ausarki, giltza artu ta zuloan bira eman, atea iriki, ta kandela piztuaz sartu zan etxean.

Zalantzunea izan zuan atea ixterakoan. Bizkar gañetik, ate atzera begiratu kezkatu bat egiñerazi zion, Marlegiren ille-mototsa ikusi ta lengo biotzikara berritzeko bildurrak. Baña kisketa atzetik, au ateari lotzeko garranga ta biurrikoak besterik ikusi etzituean, “Ba! Ba!” nardaberaki esanaz, bultzada batez indarrean itxi zuan.

Ate danbada, turmoi biurtu zan etxe uts artan. Gañeko gela bakoitzak eta beeko upel bakoitzak oiartzun bereziz erantzun zioten ateari. Etzan ordea Ezkurra oiartzunak bildurtu zezateken gizona. Atean krixketa bota, eskaratza pasa, ta eskalletan gora geldi abiaturik, bidean kandela antxiturik.

Eskallera aietan il-burdi bat bere luma galdurdun zaldi ta guzi igo ziteken, baita trabeska ere. Ain ziran zabalak. Onegatik iruditu zitzaion apika Ezkurrari, an aurretik, illunpetan erdi galduta, aolku bat zeramala.

Kaleko laspel-argimutil oietako sei etziran noski geiegi izango atarbe ura argitzeko, zuek ikusi, beraz, Ezkurraren kandel mutur arek an zer adar jo zezakean. Baña Ezkurra gora zijuan alare. Illuntasuna ez baita ezer kostatzen: Ezkurrak illunzalea izan bear naitanaez.

Ala guztiz, bizitzako atetzarra itxi baño len, gela guziak aztertu zituan guzia ondo zegon ikusteko. Kisketako arpegia begi aurre-

an bezela zeukan oraindik, eta etzuan arrixko berririk nai. Txaki, logela, trastezar-txokoa, guzia utzi bezela zegon. Mai azpian iñor ez, iñor ez alkipeon; sukaldean, su pixka bat; katillu ta zali, mai gañean; eta eltzetxo batean, morokilla, Ezkurraren sudurjarioarentzat sendagai ederra.

Iñor ez, oe azpian. Ezta orman iltzetik zintzilik ala-olako tankeran zegon txirikinpean ere. Trastezarren gelan betiko kaldera zar bat, oñetako zulatuak, arrai otartxoak, iru ankeko garbontzia ta burniziri bat.

Lasaixiago itxi zuan atea, oi ez bezela giltzari bi bira egiñerazirik. Itsumustuan ezer gertatzeko bideak onela itxi ondoren, lepoko kixkurra kendu, txirikiña, oskixillak eta oe-txanoa jantzi ta sukalde-urbil exeri zan morokil-aurrean.

Gau gogorraren kideko izateko asko falta zuan su kaxkar arek. Pittin bat epeldu nairik, su gañean makurtuta jarri bear izan zuan, ikatz-kondar arek eman zezaken beroa artzeko.

Antxiñakoa zan sukaldea, olandar azokariren baten lana noski. Itun-Zar eta Berriko irudiak izan nai zuten, bira guzian zeuzkan buztiñarritan azaltzen ziranak. An omen zeuden Kain eta Abel, Faraonen alabak, Sabako Erregiña; an zeukan aingeru talde bat ere, oe-burukoak ziruditen odei gañean egalari; Abraham, Belshazar, Bialduak intxaur azal antzeko ontzitan... eunka irudi, bere mena alaitzeko. Baña zazpi urtez aurretik ildako Marlegiren arpegia azaltzen zitzaion, eta, Igarlearen zigor antzera, onek guzia estaltzen zuan. Buztiñarri aiek irudigabeak eta Ezkurraren gogai ixpillu izateko doaidunak izan balira, bakoitzean Marlegi zarraren buru bat azaldu izango zan noski.

–Txotxolokeriak! –zion Ezkurrak, gela zear zebillela.

Juan-etorri biziak. Berriro exeri zan. Besalkian etzaterakoan, txintxarri bat begi aurrean gelditu zitzaion. Gela-txoko batean zegon txilin ura etzan aspaldian ezertarako erabiltzen. Noizbait alabearragatik goi-goiko bizitzatik deitzeko eran jarria zan, ta gero alaxe gelditua. Arrituta, bildur ikara aundiz ikusi zuan ba txintxarria bazebillela... poliki-poliki aurrena, otsik atera gabe... bizixiango gero... ta indarrean azkenik, etxeko guziakin batera.

Txiliñotsa minutu erdi batean entzun zan, minutu batean geienaz. Baña Ezkurrari ordu bete iruditu zitzaion. Txintzarriak asi bezela, guziak batean ixildu ziran.

Aien ots meari, karraxiagoko batek jarraitu zion. Au beetik zettorrela esan zitekean. Be-beko upel gañean arrastaka erabillitako burni-kate batek egingo lukenaren antzekoa zan.

Ezkurra, sorgiñen mendeko etxetan azaltzen diran mamutzarrak kateak zintzilik dituztela azaldu oi dirala oroitu, ta ikaratu zan.

Upeldegiko atea burrundara aundian iriki eta ixten nabaitu zuan. Gero kate otsa eskalletan gora, beko bizitzetan... eta, azkenik, zuzenean bere ateruntz zettorrela ezaguturik,

–Gezurra, irudipenak! –zion–. Ez det sinistu nai!

Baña etzizaion arpegian odol tantorik gelditu, deitu gabe, atarik ez balitz añean, gelan sartu ta otsgillea bere begien aurrean ikusi zuanean. Sukaldeko gartxoa ere luzatu zan, “Ezagutzen det. Marlegiren Mamutzarra da” esanaz bezela, ta berriro kuxkurtuta len bezin apal gelditu zan.

Arpegi uraxe! Berbera! Marlegi, bere ille-ordekoakin, oi zituan txamarra, galtzerdi ta oñetako luzeakin, oen borlatxoak, txamargañekoaren atze-mutur eta ille-ordeko mototsa bezela zut zituala. Gerritik arrastaka zeraman katea. Luzea zan eta isats antzera azaltzen zitzaion, eta diru-kutxa, giltza, saloste-idazti, latidazki ta altzairu-sarekizko gorgoillakin egindakoa zan. Gorputz argal gardena zuan, eta Ezkurrak, aurrez zeukalarik, upulurdaren atzeko bi botoiak ikusten zizkion gorputz zear.

Marlegi barrengabea zala askotan entzuna zuan Ezkurrak, baña etzan orduraño ontan jausi. Ta... etzuan orduantxe ere sinistu nai! Mamutzarra bere aurrean zeukan arren, bere begien otza biotzeraño sartzen zitzaion arren, burutik kokotzera zeraman musuzapia ari ala sedazkoa zan ederki ezagutu zezaken arren, siniskaitz egiten zitzaion guzia, ta bere zentzuai gezurra ziotela esan nairik burruka bizia zerabilkin.

–Zer da! Zer nai dezu? –galdetu zuan Ezkurrak oi bezin lotsagabe ta ozki.

–Gauza asko... –erantzun zion Marlegiren abots jatorrak.

–Nor zera?

–Galde zaidazu nor nitzan.

–Tira ba, nor ziñan? –esan zuan Ezkurak abotsa jasoaz–. Erraño batentzat arrokeri aunditxoak dira zureak.

–Munduan, zure baltzukide Marlegi izan nitzan.

–Ta... ta exeri al zindeke? –galdetu zion Ezkurak kezkatu.

–Exeri nindeke, bai.

–Exeri zaite ba.

Ain gorputz argalaren jabe zan Mamutzar ura exeri eziñak izpidea jarriko zuan kezkaz galdetu zion exeri zeiken Ezkurak, baña sukaldez beste aldera letxua baño lasaiago exeri zitzaion Marlegi zana.

–Ez dezu nigan sinisten –oarrarazi zion exeritakoan.

–Ez –aitortu zion Ezkurak.

–Zerorren zentzuak diotena naikoa ez badezu, zer geiago bear dezu ba?

–Ez dakit.

–Zergatik ez degu ba zerorren zentzuak dasaizutena sinisten?

–Edozein umekerik igiarazten dizkidalako –erantzun zion Ezkurak–. Egospen zail batek gezurzulo biurtzen dizkit: zerorri ere aragi zati egosgaitz edo urdunputx pittinen batek edota lusagar erdi gordiñak sorterazia izatea baleike. Nornai zerala, sukaldetik sortu zatzaidala egingo nuke, ta ez illobitik.

Etzan ba Ezkurra alako sestokaria ere, ta une artan ezin ziteken berez artakoa etzanik olde onez egon. Ezurretaraño zijuakion bildurra nolabait uxatu naiak esan erazten zizkan guziak. Odola izoztu baitzion Mamutzarraren abotsak.

Ixilik gelditu ezkeru, laxter, begi zuri aien mende, bere burua- ren jabe izango etzala nabaitzen zuan. Egoera izugarria! Izugarria- goa oraindik, Mamutzarra egutz bereziduna zalako. Etzuan Ezku- rrak bere gain ezer nabaitzen, baña Marlegi ain geldik egon arren, ille, borlatxo ta txamargaiñekoaren isatsak labe bero batetik irten- dako aize epel batek erabilliko lituken gisa igitzen ikusita, ala sinis- tu bear.

–Agintziri au ikusten? –galdetu zion Ezkurrak aitortutako kariagatik, ta Mamuaren begiratu unetxo batean bederik aldendu naiaz.

–Bai, ikusten det –erantzun zion Mamuak.

–Baña begiratu gabe! –esan zuan Ezkurrak.

–Alare ikusten det.

–Ongi da. Auxe irentsitzea aski nuke ba, ene bizi guzian sor-gin eta malo artetik ez irteteko. Berriketak, berriketa besterik ez!

Au entzun eta, kateari eragiñaz burrunbots izugarria egiñik, Mamutzarrak karraxi ikaragarri bat bota zuan. Ezkurrak besalkiari indar guziz eldu bear izan zion, ez zoratuta bertan erortzeko. Ta izu-laborriz itotzeko zorian gelditu zan, Mamuak, bero balitz bezela, buruko zapia kendu, ta beko matrallezurra bularren gain erori zitzaionean.

Belaunikatu zan Mamuaren aurrean, bi eskuak otoi antzean jarririk, eta,

–Erruki zaite! –deadar egin zuan–. Zergatik minkaizten nazu, iduri zatar izugarri orrek?

–Gizakume lurkoia! –erantzun zion Mamutzarrak–. Nigan sinisten al dezu ala ez?

–Bai, sinisten det! Nola ez? Baña zer dala-ta jetxitzen dira mundura gogoutsak, eta zergatik nere gain ixuri beren beazun guzia?

–Gizakumearen gogo bere kidekoakin anaitasunean bizitzeko sortua da. Eginbear au bizi dala betetze ez duanak eriotz ondoren zigorpean or ibilli bear du jo batera ta jo bestera, emen gertatzen diran gauzak ikusi ta ezer egin eziñik, bizi zala zenbat on egin zeza-kean ezagutzeak biotza erdibitzen diolarik. Ai ene!

Ta berriro, malo-esku zuri meak biurrituaz, Mamutzarrak karraxi bizi sarkor bat bota ta kateots izugarria zabaldu zuan.

–Katepean zaude –esan zion Ezkurrak dardar–. Zergatik?

–Neronek emen bizi nitzala egindako katea da. Estunez estun, kana bete gaur, biar beste kana bete, neronek egin nuan. Nere gogoz gerriko biurtu, eta nere gogo utsez artu nuan nere gain. Kate gaiak arritzen al zaituzte “zu”?

Zuaitz ostotxoaren antzera dardar zegon Ezkurra.

–Zerorrek daramazun katearen azta ta luzera jakin nai al zenituke? –jarraitu zuan Mamuak–. Zazpi Eguarriz aurretik au bezin astun eta gogorra zenun. Ordu ezkerro luzatzen saiatu zera. Ez da ez kate makala zurea.

Ezkurrak bira guzian begiratu zuan, berrogeitamar edo irurogei bat altzairu-ari metro ikusteko bildurrak, baña etzuan ezer arkitu.

–Jagoba! –otoi egin zion–. Marlegi zarra, esaidak guzia! Itz gozoren bat ez al dek neretzat?

–Ezta bat ere –erantzun zuan Mamuak–. Beste ezpain batzuen eginbearra da ori, ta Iñaki, zu baño biotz bigunagoak diranentzat oparo izan oi dira. Nai nuken guzia esaterik ez daukat. Beste itzen batzuek ozta-ozta. Ezin nindeke iñon gelditu, ez daukat iñon astirik galdu ez atsedean artzerik. Nere gogoa idazkol orma artetik irten etzan. Arretaz entzun! Etzan nere gogoa bizi nitzala gure den-da zokotik irten, eta orain jo ta tira egun neketsu luzeenak nere zai dauzkat.

Oi ez bezelako kardaba astunpean arkitzean, Ezkurrak eskuak galtza-patriketan sartzen zituan. Ta Mamutzarraren azkeneko itzak entzun zituanean, orixe egin zuan, begiak beruntz zituala ta lurretik jeiki gabe.

–Patxara aundian artu bearke zenun ba ain arrozgo luzea, Jagoba –esan zuan lasai itxuran, baña zionari alako apaltasun aidea erantsiaz.

–Patxaran!?! –oju egin zuan Mamutzarrak.

–Bai ba, zazpi urte illotzik eta gelditu gabe orron ibiltzeko...

–Gelditu gabe! –birresan zuan Mamuak–. Atsedean gabe, txo-larte txikienik gabe. Beti, beti, barrengo ar zimikopean.

–Ta lasterka ibiltzen al zera? –galdegin zion Ezkurrak.

–Aizeak narabilte.

–Zazpi urtean amaika ibillitxo egingo zenun orduan –oartu zuan Ezkurrak.

Irugarren aldiz Mamutzarraren ojumin biotz-urratzallea entzun zan, eta gau ixiltasuna burrunbots ikaragarri biurtu zuan kate-soñuak.

–O, uztarpeko errukarria! Esku ta oin estun eta katepean euki ta ikusten ez! –zion Mamuak–. Ludi ontan egin lezateken on guzia egiteko, bertako irazaki illezkorrak eunki ta eunkitako lan bizia bear dutela jakin ez! Kristau gogo bateri lurrean dan arte leiaz saiatuta ere, dagokion mallan dezaken on guzia egiteko, bizitza laburregi izango zaiola ez jakitea! Adion bat galtzea, beñere osatu ezina dala ez ezagutzea! Olaxe gertatu zitzaidan neri! A! Olaxe gertatu zitzaidan neri!

–Baña, Jagoba, tratalari bikaña izan etziñan ba? –esan zuan totel-motelka Ezkurrak, Marlegik ziona berari ere ongi ote zijua-kionen zalantzan.

–Tratalaria! –karraxi egin zuan Mamutzarrak, eskuak biurrituaz–. Gizadia beste traturik bai al dago ba ludi ontan! Gizarteko pakea, goi maitasuna, lagun urkoaganako onginaia, errukia, kupida, ona nere tratu bear zuan guzia. Salosketa etzan nere egizko tratu-itxaso zabalean ur tanto bat besterik.

Ta bere oñaze osakaitza kateak balemaio bezela, beregandik al zuan añean urrutiratu, ta astunki lurrera jausten utzi zion.

–Urtearo ontan eroan bear izaten det geiena –jarraitu zuan–. Zergatik ibilli ote nitzan emen, ozte artean begiak beruntz nituala, Iru Erregeak Txiroen Bakalduna jaio zan estalperuntz eraman zituan Izar zerutarra ikusteko beñere goruntz jaso gabe? Ez ote zegon ba ludian argi orrek erakutsi dezakidan beartsu-etxerik?

Mamutzarra negar-marraska artean ikusita, Ezkurra gero ta okerrago arkitzen zan, urduri, dardar.

–Entzun zaidazu! –uju egin zion Mamuak–. Zurekin egoteko eman didaten epea ia amaitu da.

–Belarri uts natzaizu –erantzun zion Ezkurrak–, baña etzaitez nerekin latzegia izan, eta, arren, Jagoba, olerki gaiak alde batera utzi itzazu.

–Ezin dezaikezut zuri gorputzez azaltzen zergatik utzi didaten esan. Len ere, bein baño geiagotan ementxe urbil ibillia nazu.

Ezkurrak kopeteko izerdi otza legortu bear izan zuan, ez bait-zan entzundakoa berririk lasaigarriena.

–Nere nekabide zati bat auxe da –jarraitu zuan Mamutzarrak–: nere adur izugarri oneri iges egiteko egokiera bat oraindik ere zure esku daukazula adieraztera etorria natzaizu gaur.

–Beti adiskide ona zu –esan zuan Ezkurrak–. Eskerrik asko.

–Iru gogouts agertuko zaizkizu –iragarri zion Mamutzarrak.

Ezkurra ao zabalik gelditu zan. Mamutzarrak ainbat zabaldu zuala esan ziteken.

–Aitatu dezun egokiera... ori al da? –galdetu zion abots durduriz.

–Orixe.

–Ba, ba... ez baliatu naiago det.

–Gogouts oiek etortzen ez badira, ez dezu iñola ere nere bide ontatik aldegiten somatuko... Ordu batean etorriko zaizu beraz lenengoa, zaitu zazu.

–Ta ezin al litezke irurak batean etorri, Jagoba? Artara, guzia batean amaituko bailitzake! –erdi-eskatu zion Ezkurrak.

–Biar eta ordu berean azalduko zaizu bigarrena. Ta azkenekoa, irugarren gabeko amabiak jo bezin laxter zurekin izango da. Ez nazu ni geiago ikusiko, ta zerorren ona nai badezu, gure arteko elkarrizketa onetzaz gogoratu beti.

Au esanik, Mamutzarrak musuzapia mai gañetik artu, ta kokotz azpitik burura, len zeukan bezelaxe lotu zuan. Ezkurrak ikusi gabe nabaitu zuan bestea zer ari zan, matalezurrak elkartzekoan ortzak egin zuten kurrizkaz. Eta begiak jaso zituanean, katea besotik zintzilik artuta, zutik arkitu zuan beste mundutik etorritako adiskide ura.

Agerketa atzeraka-atzeraka urrundun zan.

Oinkada bakoitzak leioa neurri berean irikitzen zualarik, au zabal-zabalik arkitu zan ura leioratu zanean.

Ezkurrari, keñuz, urbiltzeko eskatu zion. Eta onek orrela egin zuan. Urbil xamartu zitzaionean, Marlegiren Mamutzarrak, gelditzeko esango balio bezela, eskua jaso zuan, Ezkurrak agindua bete-

rik [, gelditu egin zan²]: bildurrak eta zalantzak esaneko biurtu baitzuten.

Mamuairen keñuak aizea murmur itzalez, atsekabe marmario itun itsasgaitzez, murrin eta samintasun intziri eleszaillez bete zutela zirudin. Mamutzarrak Ezkurrarekin batera entzun zituan pixka batean, eta gero gaua betetzen zutenakin bat egin zuan bere abotsa, illunpe beltz artan ezkutatuaz.

Jakinaiak bultzata, Ezkurra bere latzikara menderatu ta leioratu zan, kanpora begiratzeko.

Lañoak, aruntz-onuntz intziri bizian, gelditu gabe zebiltzan mamuz egiña zirudin. Marlegiren Mamutzarra bezela, katepean arkitzen ziran guziak, pillaka elkarri lotuta batzuek, banaka bestekak, baña guzi-guziak kateakin lotuta.

Ezkurrak mamu-sail artan ezagun asko arkitu zitun. Bere adiskiderik miñenetako bat Mamutzar egiñik ikusi zuan: txonkatillari lotuta diru-kutxa izugarri bat zeraman, eta an, Ezkurraren leio aurreko ate opoan, aur bat besoetan zuala exerita zegon andre errukarri bateri lagundu eziñak negar egiñerazten zion. Gogouts minkaiztu aien zigorra orixe baitzan: gizarteko zorigaitzak gozatu nai, ta iñola ezin gozatu.

Bat batean, lañoak estali edota berak laño biurturik (Ezkurrak ezin zezakean ez au ta ez ura esan), mamu ta abots itzali ziran... eta gaua, Ezkurra etxeratu zanean bezelaxe gelditu zan.

Leioa itxi ta Mamutzarra sartu zan atea aztertu zuan. Berak utzi bezelaxe arkitzen zan, ta maratilla iñork ikutu gabe zegon.

Berriro, “Ergelkeriak!” esaten asi zan; baña asi bakarrik orde... “Er...” esanda mututu zan beintzat. Eta biotzikarak bear-tuta, edota egun osoko nekepean, edo Beste Mundualdeko ibillaldi-diagatik, edo Mamutzarrarekiko berriketaldia zala ta (nik oso berandu zalako esango nuke), batere erantzi gabe oeratu ta zerraldo gelditu zan.

² Parentesi zuzenaren barrukoa edizio prestatzaileak erantsi du. Hala behar duela ematen du.

BIGARREN AAPALDIA

Ona beintzat lenbizikoa...

Ezkurak begiak iriki zituanean, logela-ormak bukatu eta leioa nun asten zan etzuan jeiki gabe esaterik, ain illun zegon guzia.

Kata-begiak zabal-zabalik, illunpe ura argitu nairik saio bizian ari zala, odei artetik dardarka zetorkion erlojuaren abotsak ordu aurretiko deia entzunarazi zion.

Arriturik entzun zituan sei, zazpi, zortzi... amabi tantako. Amabiak! Ordu bitan oeratu, ta amabiak? Erlojua zoratuta zebillen! Otzak kurpil arteko koipea jelatu ta zer ordutan bizi zan etzekiala utzia zuan noski. Amabiak!?

Bere oe-buruko erlojutxoaren ordukia ikutu zuan, ezkildorrekoari zer ordu zan esateko ustean. Baña au ere, bixi-bixi, amabi tintineko jo arteraño etzizaion ixildu.

–Ezin liteke! –esan zuan Ezkurak–. Egun osoan lo egon ote naiz ba? Ala eguzkiak atzerapenen bat izan ote du? Eguardiko amabiak ote dira?

Au gerta ote zeikenen zalantzak asaldatuta, oetik jeiki, ta leioratu zan aztamuka. Leiarretako lausoa besoakin garbitu bear izan zuan zerbait ikusteko. Ta ala ere, etzuan gauza aundirik ikusi: lañoa len bezin lodi, otza len baño ere gogorrago kalean, eta bere kezka egia izan balitz, gauak egun-argiarekin egunero oi duan burrukan goizetik lenengo aldiz menderatu izan balu, jende artean nabaituko zan izu-larririk ez. Onetxek etzuan gutxi lasaitu: izar artean onelakorik gerta izan balitz, “Zortzi egun barru Ezkurratar Iñakiri onenbeste laurleko ordainduko dizkiot” zioten ainbat eta ainbat agirik zer indar egin zezateken ba?

Ezkurra berriro oeratu zan. Eta, alegiñak alegin, etzion gertaera ari argibiderik arkitu. Zenbat eta geiago oldoztu, are ta geiago nastutzen zuan, eta ezkutuki ura bere adimenetik uxatu nairik saiatzen bazan, are ta buruauste geiago ematen zion.

Marlegiren Mamutzarrak betetzen zion irudimena. Guzia ametsa izan zala sinistra jartzen zan bezin laster, irudimenak lengo gertaeretara itzul egiten zion, eta berriro-berriro bidekurutzean arkitzen zan. Amets ala egi?

Tankera ortantxe arrapatu zuan urrengo ordu aurretiko iru laurdenekoak. Iru laurden aietxek oroitarazi zioten Mamutzarrak iragarritakoa: ordu batean etortzekoa zuan lenengo ikerlea, alegia.

Azti-ordu ura esna zaitzea erabaki zuan. Eta etzitzaion zail izan: ez baitzeukan atadiko aizeak baño logale geiago.

Baña bai luzea ordu laurden ura! Ustegabe lo kuluxken bat egin, eta ordu bata jo ote zuan ere oldoztu erazi zion. Alakorik batean ordea, ezkil otsa iritxi zitzaion.

–Ding! Dong!

–Amabi ta laurdenak –esan zuan Ezkurrak.

–Ding! Dong!

–Amabi t’erdiak –jarraitu zuan.

–Ding! Dong!

–Ordu bata laurden gutxiago.

–Ding! Dong!

–Ordu bata –egin zuan garaile–. Ona emen ordu bata! –Ta ezkildorreak etzuan oraindik ordurik jo. Baña alaxe zan, ordu bata.

–Dannnnnn!

Eta etziran oraindik odei artetik bialdutako dardarots sakon mudurriak ixildu, eta gela guzia argitu (baña nola!), ta oeko errezelak zabaldu ziran.

Bai, ben-benetan ari natzaizute. Esku batek zabaldu zizkion errezelak. Ta ez oiñaldekoak, ezta ere burukoak, baizik ezker-esku-bikoak, albotakoak. Oetxek zabaldu zitzaizkion, eta Ezkurra izututa erdi eseri zan... eta ni, ementxe, urbil naukazun bezelaxe, ira-

kurle maite, ementxe zure aldamenean bainago ni, onelaxe, aurrez aurre arkitu zuan goitiko gogoki arrigarri bat.

Arrigarria zan, izan ere, aren irudia: aur bat zirudin, edo obeto begiratuta, aur biurtutako agure zarra ote zan esan zitekean. Bizkar gañera zetorkion illea elurra bezin zuria zan, baña arpegia zimur ipitxik gabea gazteen gazteenak baño labaiñagoa zuan. Beso luze ta zaintsuak zituan, eta beso ta esku oi ez bezin indartsuak ziruditen. Zanko ta oin utsik zegon. Soinpeko zuri bat zeraman, gerriko dirdizari labain batekin gorputzari lotuta. Gorosti makil bat negu-ikur bezela eskuan zualarik, soinpekoa udara-lorez apainduta zekarren. Baña aundiena, burutik sortzen zitzaion argi-izpi bizi uraxe zan: nola argitzen zituan zoko guziak! Argi ura bear etzuanerako izango zan noski besapean zeraman kandel-itzal-ki antzeko txano ura.

Etzitzaion, alare, begiuts egiñik zegon Ezkurrari doairik arri-garriena ori iruditu, nai ala agertu edo ezkutatzeko zuana baizik. Irudia beso edo zanko batekin agertzen zitzaion batzuetan, ogei zankokin bestetan; bizkar gañean bururik gabe edo buru uts gorputzik gabe ere ikusi al izan zuan... eta gero, osoro ezkututzen zitzaion, berriro len bezin garbi ta oso azaltzeko.

–Iragarritako Gogoutsa al zera? –galdetu zion azkenik Ezkurrak.

–Alaxe naiz.

Abots legun eta atsegiña, baña ixil ta mea, urrutitik, oso urrutitik letorkenen baten antzekoa.

–Nor zaitut ba? –jarraitu zuan Ezkurrak.

–Igarotako-Eguarri-Mamua natzaizu.

–Guzien Eguarri irudian al zatoz?

–Ez, zuri dagozkizunen Mamua naiz.

Zergatik etzekiala, Gogouts ura txanoa jantzita ikusteko gogo bizia sortu zitzaion Ezkurrari. Ta ala, arren oztu etzedin, bere etxean balego bezelaxe, txapela jazteko eskatu zion.

–Nola! –erantzun zion Mamuak–. Ene argi izpi ori onen aguro itzali nai ote zenuke zure esku loi oiekin? Ez al det aski, amai-

gabeko urtetan sudurğañaño sartuta erabilli bear dedan txano au, zure grña zitalakin eundua izatea?

Gaizki esanak barkatzeko ta bere gogoaz bazan burutsik egon zitekela apalki esan ondoren, Ezkurra zertara etorri ote zan galdetzen ausartu zan.

–Zerorren onak nakar! –erantzun zion Gogoutsak.

Eskerrak eman zizkion Ezkurrak. Baña, berekiko, gau osoan pake-pakean lotan utzita, on aundiagoa baizik ez ote zukean zion.

Gogoutsak bere oldozpenak “entzun” balizkio bezela,

–Zu gaizkatu naiak nakar! Kontu beraz! –esan zion.

Eta izketan ari zala, eskua luzatu ta Ezkurra gerritik artuaz,

–Jeiki ta jarrai akidazu! –esan zion.

Etziran ez eguraldia ez garaia etxetik irteteko egokienak, are ta gutxiago oe goxo epela utzi ta beroneuria utsaren azpitik zebilen kale zear oskixil eta txirikin utsez sudurjario arekin ibiltzeko. Gogoutsari au guzia adierazi naia alperrikakoa izaki ordea, ezbaitezegon onen aginduari uzkur egiterik: Gogoutsaren esku indarra biguña baña menderagaitza izaki.

Jeiki zan beraz. Baña laguntzallea leioruntz zijuakiola nabaiturik, onen jazkiai eldu ta arren egin zion:

–Ilkorra naizela! Erori nindekela!

–Au baño eginkizun zailtxiagorik bete zenezake, nik nere eskua ementxe jarriarekin –erantzun zion Gogoutsak, eskua Ezkurraren biotz gañean jarririk.

Eta beste itzik esan gabe, orma zear igazi ziran, ezker-eskubi soroak zituztela, bidezabal luze batean arkiturik. Uririk etzan ageri. Illuntasun eta lañorik ere ez. Neguko egun argi ta otza zan. Lurra elurpean bero billa gordea zuten.

–Jaun aundia! –esan zuan Ezkurrak eskuak baturik–. Emen azia naiz ni! Aurtzaroan ementxe bizitua!

Gogoutsak gozaro begiratu zion. Onen ikutuak, milla urrin gozo zekaizkion Ezkurrari, aspaldidanik aztutako gogai, itxaropen, amets, poz eta atsekabe urriñak.

–Ezpañak dar-dar dagizute –esan zion Mamuak–. Ta... masaillean zer dezu?

Abots durduriz, pikor bat zuala erantzun, eta berak zerizkion tokira eramateko eskatu zion.

–Bide au ezagutzen? –galdetu zion Gogoutsak.

–Bai orixe! Begiak itxututa ere zuzen asko juango nitzake.

–Ta alare onenbeste urtean etzera beronetzaz oroitu. Jarrai zagun.

Eta bidean arkitzen zituan esi, ate, zuaitz, guzia ezaguturik jarraitu zuten. Urruti batean erritxo koxkor bat agertu zitzaieten: ibai batek karabilka mun egiten zion zubitxoia ta eliza ederki ikusten zituzten.

Gazte talde bat onuntz zetorkien: zalditxo koxkor gañean ziran batzuek, besteak gurditan, eta zarata ederra zekarten. Guztiak olde ona ageri zuten, eta beren alaitasunak inguruko zelaiak ere betetzen zituan.

–Len izandako gauzen irudiak dituzu –esan zion Gogoutsak–, ez gaituzte ikusten.

Gero ta urbillago gazte alai aiek. Ezkurak banaka-banaka guziak ezagutu zituan. Ikusi utsak barrena ikutzen etzion ba! Zerk bizitu zizkion biotz taupadak? Zerk begiak diz-diz alaiz piztu? Bata besteai, nork bere bidea artzerakoan opa oi zizkien “Eguarri zoriontsuak” atsegin arrigarri bat banatzen etzioten ba! Zer ziran ba beretzat “Eguarri zoriontsuak”? Ezertarako izan al zituan beñere?

–Ez da ikastetxea utsik gelditu –esan zion Mamuak–, lagun guziak aldegin diote ta mutiko bat antxe dago bakar-bakarrik.

Negar-intziriz, Ezkurak bazekiala erantzun zion.

Bidezabala utzirik, bidetxigor bat artu, ta buztiñerre gorritz egindako etxe batera eldu ziran. Kosko gañean aizeorratz bat eta ezkillak ikusten zitzaizkion. Etxe aundia zan, baña oso baldarra; ta gela zikin, orma busti lizun, leio txirtxillatu, ta, an-emenka esko-bara ustelak adierazten zuten, iñor gutxik begiratua. Kortan olloak kakaraka zegiten, eta zaltegi ta aterpeak belarrez josiak zeuden.

Etzeukan barrenak ere inoizko aunditasun itxura txikienik: eskaratz beltz artatik, atea zabalik zeuzkaten gela zarretara begi-

ratuta, aundi bezin otz eta txiro arkitu zituzten beintzat. Lur busti usai bat nabaitzen zuan sudurmintzak: guzia larrugorrian bezela zegon, eta edonori “goizean-goiz jeiki ta otordu exkaxa” bururatzen zitzaizkion ura ikusirik.

Sargela zear, Gogoutsa ta Ezkurra atze aldeko ate batera eldu ziran: atea iriki zitzaiotenean, txaki luze, murrin, uts bat ikusi zuten; ikastetxe-mai ta alki illarak uts ez ezik otz, ta, alki aietako batean, mutiko bat bakarrik, su urri baten inguruan, irakurriaz zegon.

Ezkurra alki batean jausi zan, bere aurtzaroko bakartasunak zapalduta.

Etxeko otsik txikienak, erdi urtutako odijela tantoak, aizeak zebizkin lertxun osto mur-murak, zirrikitutako ate baten kanke-takoak biotz samurgarri izan zitzaizkion Ezkurrari, ta onek, aspaldian ez bezela, negar egin zuan mara-mara.

Gogoutsak besoa ikutu ta buru-belarri irakurketan zekusten mutikoa erakutsi zion.

Bat-batean arrotz itxurako gizon bar agertu zan: bai ederki ordea! Leioan, kanpo aldetik zegon, aizkora gerrian ta egurrez zamatutako asto bat lepagoroikitik zuala.

–Oi!, ara Ali-Baba! –zion zoraturik Ezkurrak–. Ali-Baba maitea da ta! Bai, bai! Oroituko ez naiz ba.

Bai, noizbaiteko Eguarri egun batean, mutiko orixe bakar-bakarrik gelditu zan egun batean, orain bezelaxe, “etorri zitzaion” lenengo aldiz. Mutiko gizajoa!

–Eta ara Balendin eta Orson bere anaia –jarraitu zuan Ezkurrak–, ara, ara nun dijuazen! Eta Alako!... Damasko atetan zerraldo utzi zuten ura, ez al dezu ikusten? Eta Sultanaren otseña. Erraldoiak aboz-bera jarrita... orra or! Ederki egin dio gañera. Ederki. Bakaldun-alabarekin ezkonduko zan ba?

Ezkurra, oi zituan arazo latzen antzik ere etzuten umekeri aiek, ben-ben, algara ala malko artean adierazi niaz ikusi balute, a zer parrak uriko lagun-artean!

–Ara, ara Txorizlaria! –uju egin zuan–. Orlegi ta ori, letxu antzeko zerbait galdor bezela duala! “Robinson gizajoa!” ala omen

zion ugarteari bira emanda etxera etorri zanean, “Robinson giza-joa! Nun izan aiz?”. Gizona, ametsetan ari zalakoan; baña ez, Txorizlaria izaki... Ta ara orain, ara Domeka³, lats aldera eroa bezela lasterka. Eup! Adi zak!

Eta bat-batean, bere izakerari etzegokion eran abotsa jetxi, ta bere irudi zuanari begira,

–Mutiko gizajoa! –esan eta negarrari eraso zion.

Malkoak legoturik, “Ai al baneza!” zion; andik laster, “baña berandu da!”.

–Zer dezu? –galdetu zion Gogoutsak.

–Ezer ez, ezer ez –erantzun zuan Ezkurrak–. Bart Eguarri abes-
titxo bat entzunarazi zidan mutiltxo ari zeredozer emango nioke-
la, orixe zan guztia.

Parriritzi keñu bat nabaitu zitzaion Gogoutsari, ta, eskua igi-
tuaz, esan zuan:

–Beste Eguarri bat ikus zagun.

Ezkurraren irudia azi, ta ikastetxea illundu ta narrastu zan. Ormak zirritu, leiarrak pitzatu, sapaiari igeltsua bazijuakion abe-
ak agerian utziaz. Ezkurrak etzezaken ura guzia nola gertatu zan
esan; baña bai “orduan” ere orrelaxe gertatu zala. Ta berriro lagun
guziak oporrean ziralako, bera bakar-bakarrik zegola.

Etzan ordea lengo artan bezela irakurtzen ari; batera ta beste-
ra katamotz itxuran zebillen.

Ezkurrak Gogoutsari begiratu, ta gero, buruari eragiñaz, estu-
-estu ateruntz zuzendu zituan begiak. Iriki zan atea, ta bera baño
gazteagoko nexka bat sartu zan, ta musu ta laztan artean, “anai
maite” esaten zion.

–Etxera eramateko zure billa etorri naiz, anai maite –zion txa-
loka ta parrez–. Guazen etxera! Etxera! Etxera!

–Etxera, Garbiñe? –galdetu zuan mutillak.

–Bai, Iñaki! –esan zion arrebak pozaeren pozez–. Etxera, baña
betiko. Aitak len baño askoz geiago maite gaitu, ta gure etxeak

³ Jakina den bezala, Defoeren pertsonaia “Ostiral” zen, ez “Domeka” (Edizio pres-
tatzailearen oharra).

zerua dirudi. Lengo gau batean oera nijuala, ain maitakiro itz egin zidan, zuri etxera etortzen utziko ote zizun galdetu nion; eta baietz, etortzeko, erantzun zidan. Eta ona zalburdi batekin zure billa etorri. Gaurtik aurrera, gizon bat izango zera, ta etzera geiago onera etorriko. Baña lenago, a zer Eguarriak bota bear ditugun!

–Anderetxo egiñik zaude, Garbiñe –esan zion mutillak.

Parrez, nexkak kopeta ikutu nai izan zion, baña etzuan nai zuanik iritxi, txikiegia izaki. Alare oin muturretan jarri, ta musu eman zion, eta gero, aurra izaki, eskutik artu ta ateruntz eraman zuan. Mutillak atzera egiteko asmorik etzuan azaldu.

Abots izugarri bat entzun zan orduan eskaratzean: “Ezkurra- ren jazki-kutxa jetxi” zion. Eta bereala sartu zan irakaslea bera. Maitasun ankerra zerioten begi aiek, eta eskua eman zionean, Ezkurra gaztea oso larritu zuan. Gero, leotz itxurako gelatxo batera eraman zituan anai-arrebak: ura gela ondatur, bai otza uraxe, lurtamu ta ludibirlak ere bero eske zeuden. Ondo bataiatutako botilla ardoa ta noizbait egunekoa izandako okore bat atera, ta eskeñi zizkien. Burdizaiari ere neskata mear batek eraman zion “zera” artatik baso bat, baña onek, lengo upeletik ateratakoa bazan, barau bizian egon naiago lukela esan omen zion.

Ezkurra gaztearen kutxa burdian jarri zutenean, irakasleari agur egin eta igo ziran anai-arrebak, jelak kurpilpean zegizkin karrakada artean etxeruntz abiatuaz.

–Neskatil samurra bai, Garbiñe. Aizetxo batek etengo zukean lilitxo antzekoa –esan zuan Gogoutsak–, baña ura biotza!

–Alaxe zan. Zan bezela!

–Oker ez banago, ezkondu ta gero il zan. Eta ondorengorik utzi al zuan?

–Bat –erantzun zion Ezkurrak.

–Egia. Zure illoba.

Oroipen onek goibeldu zuan Ezkurra, ta legorki,

–Bai –esan zuan.

Ez bat eta ez bi, esate baterako ikastetxetik irten gabe, uri aundi bateko kalerik ederrenetakoan arkitu ziran. Oñezko ta zaldizko, burdi ta gurdi bazebillen antxe iñon ibiltzekotan. Jaki-saletxeai

begiratutxo bat aski zan, Eguarri bezpera zala ezagutzeko. Gau betea, ta kaleak argiz ornituak.

Alako salerostetxe baten ate aurrean gelditu zitzaion Gogoutsa, ia ezagutzen zuan galdetuaz.

–Bai orixe! –erantzun zion Ezkurrak–. Emen ikasi nuan nik nere bizibide bear zuana!

Sartu ziran. Galestarren tankerako illorde bat, sapairañño irixteko oso gutxi falta zuan mai gañean makurtuta lanean ikusi zuanerako:

–Baña Lertxundi jauna da ta! Jainko maitea! Lertxundi berbera!

Lertxundi zarrak idazkortza utzi, ta erlojuari begiratu atsegin batekin zazpiak zirala ikusirik, txamarra ondo lotu ta par antzean dei alai au egin zuan:

–Ep! Ia onera! Jon! Iñaki!

Ezkurra gizon egiñik azaldu zan, bere lagunarekin.

–Jon Larzabaldarra! –esan zion Ezkurrak Gogoutsari–. Jainkoaren izen deuna! Berbera da ta! Jon gizajoa! Zenbat maite nindun. Jauna!, Jauna!

–Tira, mutillak –zion Lertxundik–, gaurko naikoa dezute. Eguarri bezpera degu gaur, Jon. Eguarri, Iñaki. Ia ba atek aidean ixten dituzuten. Tira. –Ta bizkarreko bana eman zien.

Aguro? Bai azkar bezela ere atek itxi. Ate-zatiak bizkarrean artu, ta irten ziran. Bat!, bi!, iru!, orra beren tokian!; lau!, bost!, sei!, burniagak jarrita!; zazpi!, zortzi!, bederatzi!, eta, amabirañño esan baño len, an zituan biak aurrean, lasterka-moxal antzera arnaska.

–Bapo –esan zien Lertxundi zarrak bere alkitik lurrera bizkor jetxiaz–. Baztertu ditzagun orain traste zar guziak denda osoa garbi gelditu dedin. Ia mutillak. Ekin, Jon! Jo, Iñaki!

Traste zarrak baztertu! Denda osoa ere laster mugituko zuten bi mutil sendo aiek, Lertxundi zarraren begirapean! Minutu batean guzia egiña.

Bildu ziteken guzia geiago bear ez balitz bezela baztertu ondoren, lurra busti ta garbitu zuten, muturra moztu zien argi-biurtuai,

ikatzez bete zuten sukalde-zuloa, eta denda gelditu zan bero, atsegin, negu-gau baterako dantza-aretorik egokiena bezela.

Xirribikari bat bere eresingi ta guzti sartu zan, eta, Lertxundi zarraren lan-maiean igota, asi zan bere ereskiña neurrian jartzen. Berrogei katuren marraska zirudin aretxek.

Lertxundiren emaztea etorri zan gero ezker-eskubi irriparrak banatuaz. Lertxundi andereñoak (Eleneren alabak bezela, iru), irri-par uts eta maitagarriak benetan, amarekin batera eldu ziran. Aspaldidanik, iru neskatil aien mende, biotza apurtuta bizi ziran sei mutil gazte, zegokien bezela oien ondoren azaldu ziran. Eta gero, burrundaran, Lertxundi zarraren otsein guziak, neska ta mutil, iskanbilla bizian... eta etxeko neskamea bere lengusuarekin, bai, an ixkiñako ogigiñarekin, ta sukaldaria esnezalearekin, bere arrebaren lagun aundia baitzan. Aurreko mandataria ere (gizajoak otordutan gorriak ikusi bear izaten ote zituan zioten) an azaldu zan, belarriak gorri-gorri zekarzkin, etxebarrunbeko mirabe ziztrin baten atzean gorde eziñik.

Sartu ziran ba, bata bestearen atzetik, larri-larri oek, lotsagabe aiek, oso gutxi itzontzi, bildurri geienak. Eta dantzaldi bat antolatu nairik, nor norekin elkartzen ziran. Baña buru jarritako bikoak dantza-neurria galtzen zuan, eta dantzan asteko besteak bukatu zai bezela nabaitzen zuten, nasketarik aundiena sortuaz, guziak buru biurtu ziran arte.

Lertxundi zarrak gelditu zituan guziak orduan, eta xirribikariari egoki iruditu zitzaion garagardo pitxar bat ustutzeko.

Etzan ordea xirribikaria geldik egoteko jaioa itxuraz, eta ekin zion berriro, ez nekatuta dagonaren antzera, orduantxe sartu berria litzaken ereslari “prexko” bat bezela baizik. Bere eginbearra bete ala bertan il nai zuala esan ziteken.

Dantzan jarraitu zuten, eta txolartetan, okore ta edaribizi, idi errea, piper-opil eta garagardo ugari. Baña unerik ederrena, Lertxundi ta bere emaztea, garaiari zegokion eresi otsean, dantzarien buru jarri ziran uraxe izan zan. Dantzari guziak beren ospea ez galtzeagatik, zezazkiten era zail eta biurrienak atera zituzten, baña alperrik, Lertxundi ta bere emaztearentzat etzan dantzakera zallik.

Ez det gero nik gezurrik esaten. Eta dantzirudi guziak egindakoan, amaitzeko, kate bikoitza osatu zutenean, ango alaitasun eta zarata etziran nolanaikoak izan.

Amaiketan amaitu zan dantza. Lertxundi ta bere emaztea atean ezker-eskubi jarri ziran, eta guziai banaka-banaka eskua eman eta bakoitzari Eguarri zoriontsu opariz, dantzariak agurtu zituzten.

Kanpokoak aldegin zutenean, bi mutillai “Zorionak” esan eta beren dendatze-erakusmaipeko oatzetara bialdu zituzten.

Au guzia ikusten zegola, Ezkurra ero baten gisa aritu zan. Guzia gogoratzen zuan, guziarekin orduantxe gertatzen ari balitz bezela poz artzen zuan, eta ezin geldik egona nabaitzen zitzaion... Jonekin bakarrik gelditu zan arte, etzan konturatu Gogoutsa, bere burutik sortzen zan izpi biziaren argira, berari begira zeukala. Arek ekarri zuan bere onera.

–Ez da ba ezer asko –esan zion Gogoutsak– gazte oiek guziak oinbeste eskertzeko.

–Ez da ezer asko! –birresan zuan Ezkurrak.

Gogoutsak bi mutillen arteko elkarrizketa entzuteko esan zion. Biak, Lertxundi noraño jaso etzekitela ari ziran gizajoak. Eta bereala Gogoutsak jarraitu zuan:

–Ez al derizkiozu? Guzia amabost bat duro kostako zitzaion, ez? Zer da ori orrek duan añarentzat? Zer, onenbeste eskertzeko?

–Ez da ordea ori –erantzun zion Ezkurrak, bere noizbaiteko irudia izketan ari balitz bezalaxe–. Ez da ori. Bere esku baitzeukan gure poz ala atsekabea; bere esku, gure lana alaigarri ala neketsu egitea, eginbearra astun ala arin biurtzea. Etzaio diruari begiratu bear. Itz batek, eskeintza batek, esan ere ezin leiken uskeri batek zorion osoa ekarri oi digu askotan. Zer dijuakigu ordean diru asko ala gutxi kosta zaion jakitea? Zorion apurrik txikienak dirutza aundiak aña balio baitu.

Gogoutsaren begiratuak ixildu erazi zuan.

–Zer dezu? –galdetu zion onek.

–Ezer ez, ezer ez.

–Ez?

–Ez ba; nere idazlariari itz bi esango nizkiokela alegia, al banu. Besterik ez.

Ezkurra izandakoak dendatzeko argiak itzali zituan, eta gurekin dabilena Gogoutsa lagun zuala kalean arkitu zan berriro.

–Astia badijuakit –esan zuan Gogoutsak–. Gabiltzan azkar.

Etzion ba au ñori esan, baña Ezkurak, bereala, urte batzuek geroago bere irudi zana aurrean arkitu zuan. Sasoiko gizona orduko Ezkurra: etzitzaizkan oraindik geroagoko gogortasun eta zailtasuna arpegi-azaleratzen, baña kardaba ta zikoizkeriaren lenengo aztarrenak nabaitu zitzaizkioken. Bere begiratu larriak biotza menderatu bear zion griña asegaitzaren kezka agertzen zuan.

Etzegon bakarrik. Beltzez jantzitako neska gazte ille-gorrixka zeukan aldamenean. Gogoutsaren argi izpiak dirdir zegin gajoari arpegia bustitzen zioten malkoetan.

–Ez dizu ajolik –zion maitakiro–. Zuri ez dizu ajolik. Beste Maitagarri batek bota nau zure biotzetik. Atsekabe unetan, nik egin izango nuan bezela, alaitu, ta aurrerako indarra eman al badezaizuke... zer egingo zaio ba?

–Baña zer Maitagarri ta zer berriketa dira oek? –galdetzen zuan Ezkurak.

–Urrezko Irudi ori, ori da nere ordezkoa.

–Ori da buruz jokatzea! Txirotasuna baño gauza gogorragorik ez, eta aberastu naiak egiñerazten duana ain gogorki arpegira bota bear.

–Besteak zer esango dutenari begira bizi zera. Orretzek bakarrik ikutzen zaitu. Zure biotzaren ametsik zindoenak banaka-banaka ezkututzen ikusi ditut, aberastu naiak bakarrik iraun du: etzera beste ezertarako bizi. Aberastu, aberastu, dirua pillatu... aberastu... besterik ez.

–Ta onelaxe balitz ere, zer? Ez al da gizon begiratuari dago-kiona? Ez al naiz zuretzat lengoa?

Neskatxak burua ibilli zuan.

–Ez al naiz lengoa?

–Gure ezkondu naia aspaldikoa da. Elkarri itza eman genionean, biak txiroak giñan, eta ez genun zoriona diru irudian ikusten.

Biak lan eginda ederki bizi gindezkela uste genuen. Gaur “zu” besterik zera, ez “ordukoa”.

–Orduan mukizu bat bainitzan.

–Zerorren biozkadak lengoa etzerala diote, ongi dakizu zerorrek ere. Ni lengoa berbera naiz. Gure biotzak bat egiñik zebiltzanean zorion iturri zitzaidana, gaur, nor bere aldetik dijuazkigunean, atsekabe bide garratz biurtu zait. Zenbat eta zenbat bira eman dizkiot buruan oneri! Ezin esan ala! Ondo pentsatu ondoren, gure artean ezer izan ez balitz añezan utzi nai zaitudala esateak naikoa adieraziko dizu noski.

–Baña nik orrelakorik eskatu al dizut ba?

–Itzez, beñere ez.

–Nola ba?

–Zure izakera, oiturak, gogoa trukatuaz. Nere maitasunak egiñerazten zizkizun gauza guziak, gaur beste itxaropen bakar batek egiñerazten dizkizunakin trukatuaz. Gure artean lengo lokarririk ez balitz –jarraitu zuan neskak, bulartsu–, gaur nere maitasunik eskatuko ote zidazuke? Neregatik ezer egingo ote zenuke? Nik ezetz uste det.

Emaztegaiaren oar zuzenak egi utsa zerioten arren, zeuzkan indar apurrak batu, ta,

–Onela jarduteko arrazoirik ba al dezu? –galdetu zion.

–Naiago nuke ba bestera itz egin! –erantzun zion neskatxak–. Jaungoikoak bakarrik daki zein gogorra izan zaidan egia jakitea. Baña, ia, erantzun zaidazu: gaur andregaiak aukeratu bear bazenu, diru apurririk ere ez duan neskatxa bat autuko ote zenuke? Guzia urre biurtzen ez dezu ba! Ta zure urre maitasun bakar ori zapal-duta, ala egingo bazenu ere, ez ote ziñake biar ez bada etzi damutuko?... Bai noski! Onexegatik zure itzaren jabe utzi nai zaitut. Zu ziñan “ura” asko maite bainuan.

Ezkurrak zerbait esan nai arren, neskatxak jarraitu zuan:

–Nere erabakiak atsekabetu egingo zaitu agian gaur. Onela sinistu nai det, atzo elkarri genion maitasun oroiz. Baña, laster, nere arrastorik ez dezu biotzean gordeko: norik daki garaiz uxatu-

tako amets bat bezela ez ote naizen izango? Zoriona opa dizut alare, zerorrek aututako bizibide ortan!

–Aski det, Gogouts! Ez det ezer geiago ikusi nai! –zion Ezkurrak–. Etxera, eraman nazazu etxera. Zergatik onela minkaiztu?

–Beste ikusgai bat. Bat bakarra –esan zuan Gogoutsak.

–Ez! –oiu egin zuan Ezkurrak–. Ez! Etzadazu arren ezer geiagorako erakutsi!

Baña Gogouts gozagaitzak, bi besotatik eldu, ta beste atal au ikusi erazi zion.

Etzeuden lengo tokian. Gela txukun bat zan aurrean zeukate-na, ez zabal eta apaiñegia, baña lasai, atsegiña beintzat. Sutondotan, neska gazte eder bat zegon: lengo uraxe zirudin, eta Ezkurrak berbera zala esango zuan, lengoa, aren aurrean, etxekoandre egitiñik ikusi ez balu. Etzan, ez, neska gazte ura, Ezkurraren andregai izana, aren alaba baizik.

Ura iskanbilla etxe artakoa! Ezkurrak konta ala aur bai baitzegon. Eta bakoitzak berrogeiren zarata sortzen zuan.

Ardalla bizi arek zoratu bear gorrian jarri zuan Ezkurra; baña etxe artan etzuan iñork aintzakotzat artzen: ama-alabak parra lasai egiten zuten beintzat zoro aien artean. Azkenik alaba ere asi zan jostaketan, eta gaizto pilla ura bere gañera etorri zitzaion.

Nor izan ziteken aur aietako bat! Ez nuan nik noski berak egin ziotena egingo, bai zera: aren ille kixkurra nastu?, aren oñetakotxo politak atera?, ez!, nere bizia bilijuakit ere! Baña bere begi eder aiek bertatik bertara ikusi, ille-zizur aietako bat kontuz ikutu, bere itz eztsua entzun: aur baten askatasuna gizon baten ezaguerarekin, nork zezaken!

Atea jo zuten, eta guziak, neska erdian zutela, atean ziran aitarren billa. Onek gizon bat zekarren, Eguarri-jostallu ta sariakin.

Langille gizajoa, ia zapaldu zuten! Alki gañetara igota, patrikarañoko guziak miatu zizkioten: gañean zituana atera, ta onek besarkatu, arek bizkarreko bat eman, eta pozaren pozez zankezurretan ostiko bat edo beste ere artua izan bear zuan. Bezua bakoitza karraxika artzen zuten! Ura izua jaki-dendatik ekarritako indio-

llarra⁴ plater ta guzi jan, eta txikia paderari kaskegin naiean ari zala oarturik! Baña ura lasaitasuna indiollarra ta platera azaldu ta paderak puskarik falta etzuala ikusirik! Ura poza! Aur aien esker ona! Ori zorakeria! Ezin esan ala! Aur eta biotz, malladian gora igo ziran: aiek, logelara, ta au, poz-odeietara... Baña aiek eroturik igo ziran arren, laster menderatu zituan “Martin itxuak”.

Nagusia, bere alaba besotik artuta, sutondoan emaztearen aldamenean exeri zanean, Ezkurra adi-adi gelditu zitzaion. Eta ain neskaxa ederrak, bere negua udaberri biurturik, “aita” deitu izan zezakiola oldozteak malkoak gogo-leioetaratu zizkion, ikusmena lausotuaz, lanbrutuaz.

–Josune! –esan zion emazteari irriparez senarrak–. Ire lagun zar bat ikusi diñat gaur arratsaldean.

–Bai...?

–Ez denala nor zan asmatzen?

–Baietz! –erantzun zion parrez–. Ezkurra... Iñaki...

–Ber-bera. Bere lantegi aurretik pasa naun, eta ederki ikusi diñat, zursareak jasoak baitzeuzkanan. Bere baltzukidea gaxo zeukan, entzun diñatenez. Iltzen baden, bakar-bakarrik gelditu bear din gizajoak.

–Gogouts! Arren, eraman nazazu emendik –esan zion Ezkurrak abots larriz.

Eta Gogoutsari begiratzera koan, len ikusitako arpegi guzien marrak aren musuan arkiturik, burruka bizian ekin zion,

–Utzi! Utzi nazazu! Arren! Ez det geiago nai! –esanaz.

Burrukan zebillela (ura burruka bazan beintzat, Gogoutsak ez baitzion ume koxkor bateri baño arreta geiago jartzen), burrukan zebillela, diot, Gogoutsaren argiak iñoiz baño indar aundiagoa zeukala nabaitu zuan Ezkurrak, eta, erru guzia ari erantsirik, itzalki antzeko txanoa besoazpitik atera ta buruan sartu zion bat-batean.

⁴ Dickens nobelan, delako oilar hau jostailuzko txiki bat da. Hori jakinda hobeto ulertzen da pasarte (Edizio prestatzailearen oharra).

Gogoutsa oso txikitu zan, ta txanopean ezkutaturik gelditu zitzaion; baña indarrean saiatu zan arren, etzuan Ezkurrak txano azpitik beruntz irteten zan argi turrusta itzaltzerik lortu. Makaldu-ta, losun menderakaitz batek aulduta zegon. Nola etzekiala, bere logelan arkitu zuan bere burua, ta, itzalkia beste bein zapaldurik, zambuluka oeraño iritxi ta bertan zerraldo erori zan.

IRUGARREN AAPALDIA

Bai bigarrena ere...

Zurrunga burrunbatsu batek esnatu zuan, eta, amets ala egi, buruan naste bizian zebizkion gogaiak aztertu nairik eseri zanerako, Ezkurak, iñork itzik esan gabe, ordu bata zintzilik nabaitu zuan. Marlegik bialdutako bigarren mandatariarekin itz egiteko garai-garaian esnatu ez ote zan zesaion barrenak. Eta aurrez, mamu berri au zein aldetatik azalduko ote zitzaion oldoztu utsarekin otzikara bizia nabaituaz, jeiki, errezelak bere eskuz iriki, ta berriro etzan zan, ustegabeen iñork somatu gabe ernai egoteko asmoan.

Gertu dagonak bi balio baditu, Ezkurak bi mila ere balio zituan orduantxe. Bigarren agerkera, zarrasta apurrik gabe agurtu nairik, naiz pixoialetako aurra naiz zezen asarrea, zetorrena zetorrela gizon bateri zegokion eran artzea erabaki zuan.

Baña ain gertu egoteak ere bere kalteak baditu. Gertu bearra-
ren bearrez, ez baitzan ezer gertatzen ez bazitzaionerako gertutu. Ta ordu bata jo, ta gogoutsik azaltzen etzitzaiola ikusirik, kirio dardar bizi batek eman zion. Bost, amar, amabost minutu juan ziran eta... ezer ez. Oean etzanda, ordu bata jo zuanakin batera, bere gañean dirdirka asi zitzaion argi gorrixta baten izpi artean zegon. Ez mamu, ez gogoutsik iñon... argi gorrixta uraxe bakarririk... eta onetxek mamu-talde batek baño bildurtiago zeukan gizajoa. Ez baitzuan arek zer esan nai zuan ez zer zekarken ulertzen. Ezer jakin gabe, berez sutan ote zegon ere oldoztu erazi zion argitasun aretxek.

Azkenik, bere larruan etzegin edozeñek oldoztu zezakeana berbera bururatu zitzaion, beti gerta oi baita larritasun irtenbideak larri ez dagoanak arkitzea. Beste edozeñek oldoztu zezakeana bururaturik, argi gorrixka ura aldameneko gelatik zetorrela zirudindin ezker, aldameneratzea erabaki zuan. Eta oetik jeiki, oskixillak jantzi, ta ateruntz abiatu zan, ezkutukia idoro nairik.

Etzuan atea irikitzeke astirik izan, eta ezagutzen etzuan aots batek bere izenez deitu, ta sartzeko esan zion. Ezkurrak, agindua egin zuan.

Bere etxea zuan ba ura, baña nork ezagutu? Bai, berea, bere-berea izan bear zuan. Orma ta sapai, ostaillez estalita, masti antza zemaie gelari. Gorosti, migura ta untz-ostoak, ixpillutxo gisan biurtzen zioten argia, ta sukaldean Ezkurra edo Marlegiren garaian oi etzan bezelako su ederra zirt eta zart ari zan.

Mota guzitako jakiak, indiollo, ate, eize mota asko, urdanka, aragi-okore, ispel kaja, gaztain, larraran, udare ta sagarrez egindako bakaulki antzeko bat zegon, ke gozoa zeriote katillu usaitu artean. Eta aundikiro eserita, gazte itxurako Erraldoi musugorri bat. Bakalzigor antzera Ugaritasun Adar itxurako zuzi bat zeukan, eta onen argiak bete-betean jo zuan Ezkurra atea irikiarekin bat.

–Aurrera! –esan zion Mamuak–. Sartu ta ezagutu nazazu!

Ezkurra, esandakoa bildur-bildurrak egiñik, buru makurka gerturatu zitzaion Gogoutsari. Etzan lengo Ezkurra arro lerdena, bere buru jabetza galdu ta Erraldoiaren begiratu bildurrak zebillen, au laztan eta maitekor agertu arren.

–Gaurko Eguarri Irudia naiz! –esan zion–. Begira zaidazu!

Begiratu zion, lotsa aundiz begiratu ere Ezkurrak.

Larru zuriz iskindutako soinpeko soil bat zan bere jantzia. Bularra gorriarik zeraman, estalki bearrik ez balu bezela.

Jantzipetik oñak utsik agertzen zitzaizkion. Eta jela-zintzilika-ri apaindutako gorosti-estun bat zeraman buruan.

Bere ille kixkur luzea bizkar gañera zetorkion, ta guzia, aots, itxura, egoera, guzia, begi-asegarri ta atsegiña zan. Erdoiak janda-ko ezpata-zorro uts bat zeraman gerrian.

–Nere antzeko ezer ikusi ez dezula egingo nizuke! –esan zuan Gogoutsak.

–Beñere ez.

–Ez al zera beñere nere senide gazteenakin ezertan aritu? Nere anai aziagoakin esan nai nuke, azkeneko urte oetan jaiotako anaiekin alegia, neroni gaztegia bainaiz?

–Dakitela ez beintzat –erantzun zion Ezkurrak–. Anai asko al zerate?

–Milla ta bederatzireundik gora.

–Aita gizajoa! –iges egin zion Ezkurrari.

Gaurko Eguarri Irudia zutik jarri zan.

–Gogouts! –esan zion Ezkurrak apalki–. Noranai eraman nazazu. Nere gogoz aurka bederik, atzo ikusitakoak zerbait erakutsi dit: ona emen ikaskizun oien ondorena. Gaur ere zerbait erakutsi bear badidazu, ikasi nai nuke.

–Nere soñekoa ikutu zazu ba.

Eldu zion Ezkurrak egiñalean. Gorosti, migura, garao, untz, ollo, ate, urdanka ta okore ezkutatu ziran; ezkutatu zan etxea bere tximini ta guzi; itzali zan argi gorrixta, ta argitu zan gaua. Egunargiz arkitu ziran: Eguarri goiz batean, erriko kale zear. Eguraldia, gogorra: erritar guziak etxe-atadi ta tellatutako elurrak ezin garbiturik zebizkin eguraldi zakurra. Aiek algarak mutikoenak, etxe gañetatik kalera erortzen ziran elur-zaplastakin.

Elurraren zuritiesun aldamenean, etxe-ormak illunak ziruditen. Espaloi-artean, burdi ta orgak lurraska sakonez betea zeukaten estalki zuria; ta ezker eta eskubiruntz, amaika aldiz elkartu ta banatzen ziran lurraska sakon oietan bera, izoztutako ur arixka zijuan.

Zerua, odeitsu. Ta kalerik estuenetan, lañoa oraindik ere nagusi. Kearrez betetako lañoa, tximini guzitako ilintxak antxe bildu izan balira bezelaxe.

Ez giroa, ez uria bera, etziran iñoren atsegingai, baña alare eguzkirik ederrenak eman zezakean alaitasuna nabaitu ziteken kale aietan.

Elur-garbitetan ari ziranak, beren neke aspergarriaren orde, elkarri ziriak sartu, txantxeta bizian elur-pelotak bata besteari bota, ta, norbaiteri ematean, parra lasai egiten zuten.

Egazti-saletxeak zirrikiturik zeuden; eta igalitegiak, zoragariak. Oen atetan, tripazairik aseenen sabel borobil antzeko gaztain gurbillak, beren sorreri narotasuna agertzen zien kaletarrai. Erakustokiak apaintzen zituan untz-osto orlegi gañean gorri, españar tipulen biribiltasun ezea arki ziteken. Sagar eta udare-menditxo zalegarri eta kakotatik zintzilik zeuden mats-mordo galantai amaika begi josi zitzaizkien egun artan. Ur eta intxaurrak, arraiontzi aundi bateri egal egiñik zeuden larraran eta limoi artean illun ageri ziran. Eta arraitxoak ere oi ez bezelako zerbaiten zai nabaitu zitezken.

Ta jakitegiak! O, jakitegiak! Ateak erdi-itxita zeuzkaten arren, barrengo edertasun arrigarria ezin ezkutatu. Etzan, ez, aztakin-azpiltxoak aitzurdin gañean jotzen zuten eresi alaiagatik, ezta ere listai-matazak erositako jakiak besarkatzeko bizi-bizi askatzerakotan zegiten ots bereziagatik, ez umao-latak eskuz esku beatzkari-jostabide antzera zebiltzala ikusteak, ez usaimenari ain atsegin zitzaizkion te ta akeita lurriñak; etziran boli antzeko ur-zuriak, ez lekatxo ta goxotutako igaliak, eta ezta ere nornai litxarzaletuko luteken azukrez jositako goxo aiek...

Ez... Esandako guzia, ain ona ta atsegiña izanik, etzan berez erosleak bata besteen gainka, bultzaka, ukalondokoka, saskiak elkar joaz, erositakoa salmai gañean aztuaz, barrendik sortzen zitzaien alaitasun arekin zebizkiana. Etziran argatik nagusi ta mutillak, guziak ondo serbitu, ta bakoitzak nai bezela ta eun deiri batera erantzun nairik, zoratu bear bizian alai-alai saiatzan. Jai egunik aundiena, Eguarri eguna izateak zegin, guziak anaitasun eta maitasunez beterik, biotza eskutan eta irriparra ezpañetan zituztela egotea.

Laster entzun zan joalle otsa, ta kale ta txadi guzietatik parrastaka elizaratu ziran sinisdunak, jazkirik apañenak eta pitxirik maitteenakin.

Une ortantxe, norbaitek berealako batean egiteko agindu balie bezela, erriko etxekoandre ta serbitzari guziak, eguneko egaztia erretzeko oiturak agintzen zuan bezela, ogigiñenera bidean arkituko zenituzten.

Gogoutsak arretaz begiratzen zien guziaz, ta, Ezkurrarekin batera, urbilleneko ogitegi ateratu ta eseri zan. Egaztiak estaliz zekarzkiten zapiak altxa, ta bere zuzitik botatzen zizkien tanto arrigarri batzuek. Ain arrigarriak ezik! Guziak presaka nola baitzebiltzan, aurrena izan naiak asarre-itzen batzuek sortzen zituane-rako, intz arrigarri aren tanto bik asarrea uxatu, ta atzera olde onean jartzen zituan guziak, Eguarri egunez asarretzea lotsagarria ere balitzakela esanaz. Eta egia zioten, Jauna, egia!

Ixildu ziran kanpaiak, eta ogigiñak ateak itxi zituzten. Eta erretzen zeuzkaten egaztiak, jaia aitortu nairik bezela, ketan zeuden labetatik zerioten usai gozoa besterik etzan kalean gelditu.

–Botatzen dezun ur orrek lurrin bereziren bat al du? –galdetu zion Ezkurrak.

–Bai orixe. Neronena.

–Ta gaur edozein sukalgairi al dagokio?

–Edozeiñi, baña batez ere txiroenai.

–Zergatik?

–Bear gorriagoan baitaude oek.

–Ta aizu, Gogouts –esan zion Ezkurrak puxka batean oldozkor egon ondoren–, nola izan zindezke zu, gaxo oei atsegin bidea ixten diena?

–E? –galdetu zion Gogoutsak

–Bai, zu; zazpian bein egun on bat igarotzeko gaiak ez baitizkiezu eskuratzen uzten, eta orixe bakarra izaki jan oi dutela esan dezateken eguna. Ez al da ala?

–Baña ez al dakizu zuen mundutsak ⁵?

⁵ Linotipistaren akatsa ematen du, ez baita ulertzen. Ingeleseko jatorrizkoaren arabera, honelako zerbait behar zuen jarri: “–Nik? –karraxi egin zuan Gogoutsak” (Edizio prestatzailearen oharra).

–Bai, zu. Zazpigarren egunean guzia ixteko esaten ez dezu ba? Ez al da ori nik diodana?

–Baña nik inoiz orrelakorik esan al det? –galdetu zion arrituta Gogoutsak.

–Barkatu oker banago, baña zure izenean edota zure sendikoen izenean egiñerazi oi da ori.

–Baña ez al dakizu ⁶ zuen mundu ontan, gu ezagutzen gaituela ta gure izena nolana erabilliaz beren griña guzien mende, arrokeri, aizunkeri ta berekoitasun egipen likitxenetan dabizkizutela asko ta asko? Ez baititugu gure izenean agertu oi diran guziak ezagutzen! Au gogoan artu, ta aiek dagitena ez inola ere guri erantsi: berak bitez beren egipen jabe.

Onela agindu zion Ezkurrak, eta erriperuntz jetxi ziran. Gogoutsaren doaietako bat bere neurria nai bezela luzatu ala laburtzea zala oartu zuan Ezkurrak: sapaiaik goien zituen aretoetan, izugarri; gelarik tatarrenetan, txiki azaltzen zan.

Doai onek, edota apika, bere barren zindo ta laztankorrek bultzata, Ezkurra bere idazkariaren etxera eraman zuan Erraldoiak.

Juan ziran ba, ta, atadian irriparez gelditurik, Gogoutsak bere zuzi-tanta batzuek botiaz etxea onetsi zuan. Entzun dezuten bezela! Zubiriren etxea, astean bost duro irabazten etzituan idazlari gizajoaren etxea, Gaurko Eguarri Gogoutsak onetsi!

Zubiriren emaztea, ertzez izan ezik, azpikoz gora ta barrengoz kanpora tajutu ziteken era guzitara ibillitako gona batekin, jantzitzen ez badute ere ainbestean apaintzen duten xinta ta txibista begi alaiarritz josita, maia jartzen ari zan. Bigarren alaba, Iziar, zuan laguntzalle, ama bezin apain au ere. Ta bitartean Kepa, larortz bat eskuan zuala, lusagar eltze bat arretaz zaitzen arkituko zenuten, aitak utzitako lepoko gogorrek begi bat aterako ez bazion

⁶ “Dakigu”, *El Díako* jatorrizkoan. Seguru asko lerro honekin sortuko zen nahasketan linotopian (Edizio prestatzailearen oharra).

muturra ortzartzean arturik euki bear izan arren, arro ta burgoi, ark emandako eskubideagatik.

Bi Zubiritxo koxkor zoratu bearrean sartu ziran, ogigiñarenetik zear zetoze eta etxeko indiolloa usaiean ezagutu zutela karraxika esanaz: egazti eder aren barren eta inguruan zer etorriko etzan noski! Mai biran dantzari zebiltzan oldoztu utsarekin. Kepari oso “elegante” zegola esaten zioten pozaren pozez. Eta onek atsegintsu baña arropuztu gabe entzun, eta suari aize egiten zion, lusagarrrak eltze-txapelari kankateko biziak emanaz, ondo egosita zeudela adierazi zuten arte.

–Nun sartu ote da zuen aita bedeinkatu ori? –zion andre Mirenek–. Eta zuen anaia? Ta Marte?

–Ona emen Marte, ama –erantzun zion neskatxa gazte batek etxean sartuaz.

–Ona emen Marte, ama –esan zuten bi Xubiri koxkorrak ere–. Eztakizu, Marte! Ura indiolloa!

–Alare! Ongi etorri, alaba. Berandu ator? –esan zion andre Mirenek amabi bat musu eman eta soingañeko ta illelarrua kentzen lagundurik.

–Bart lan asko egin baikenun ba, ama, ta gaur guzia banatu bear.

–Dana dala, etorri aiz beintzat eta kito. Eseri adi sutondoan, otzak ago ta, maite.

–Ez, ez! Aita dator –zioten bi Xubiritxoak–. Gorde zaite, Marte, gorde!

Marte gorde zan. Eta bereala an zuten Yon, aita, berokia iru arra bidean zintzilik zuala, egunari zegokion bezela jantziak dirdir jarri arteraño igurkiturik, eta Xabiartxo bizkarrean artuta. Xabiartxo gixajoa! Galtzar-makillakin ibilli oi baitzan. Eta xankotxotan burnizko galtzerdiak zeramazkin.

–Ta Marte nun da? –galdetu zuan Yonek sartu orduko alde guzitara begiratuaz.

–Ez omen dator –erantzun zion emazteak.

–Ez datorrela? –esan zuan Yonek atsekabe bizian. Xabiartxo zaldizka zuala tximista baño azkarrago etxeratu ta orain onekin arkitu zan ba–. Gabon gabean etxeratu ez?

Martek ezin ikusi izan zuan aitaren samintasuna, txantxetan ari ziran arren, eta bear baño len irten eta aita besarkatu zuan. Bi gazteak Xabiartxo artu, ta budiña nola egiten ari zan erakusteko sukaldera eraman zuten.

Yonen sinisterreztasuna zala-ta parra lasai egin ondoren,

–Ona izan al da Xabiartxo? –galdetu zion amak.

–Bai ona bezela ere. Batzuetan, bakarrik ainbeste denboran egoteak eraziko dio apika, gauzik arrigarrienak oldoztu ta esaten ditu. Ba al dakizute zer esan didan etxera gatozela? Txit atsegin zitzaiola jendeak bera elizan ikustea. Zergatik uste dezute? Elbarri bat Eguarri egunetan ikusita, guziak naitaez, errenak sendatu ta itxuai ikusmena biurtu zien Aretzaz oroituko omen dira-ta noski.

Dardar zegion aotsak Yoni au edesten ari zala. Ta dardarra bizitu zitzaion, Xabiartxok oso ondo zegola ta guziak alai ikusi nai litukela ziola esan zuanean.

Onen galtzar-makil ots bixia entzun zan: bere bi anaiakin sutondora urbiltzen nabaitu zuten.

Yonek, eskumuturrekoak geiago zarpaildu bazitezken bezela gora jaso, limoi ta jinebra nastuaz edari bizi bat egin, eta surtan jarri zuan, Kepa ta alde guzitan zeuden bi anai aiek indiolloaren billa juan eta etorri bitartean.

Laster ziran atzera etxean, indiolloa sekulako aunditasun eta ospez ekarririk. An sortu zan iskanbillak indiollo bat ludiko egaztirik arrigarriena zala sinistu eraziko ziguten. Ezta antzara beltzik ere alakorik! Etxe artarako alaxe izaki.

Andre Mirenek aurrez gertutako saltsa berotu zuan. Kepak sasoiitsu ta bizkor egin zioten lusagar-zukua. Iziarrek sagar-orea gozatu zuan. Martek mai-ontziaz azken ikutua eman zien. Yonek, Xabiartxo bere aldameneko mai ertzean eseri zuan. Bi koxkorak guzientzako alkiak jarri zituzten, eta, nor berearen ondoan, maiean eseri zai zeuzkazuten, “INDIOLLOA!” bear baño lenago ez eskatzeko, aoan kutxare bana sartuta.

Jakiak maieratu zituzten noizbait. Eta otoitxo bat egindakoan, etzuan iñork txindik atera. Arnasa ozta-ozta artu zuten, amak indiolloa ebaki bitartean. Baña ebaki ta irrikitzen zeuzkan betegarrri ura azaldu zanarekin bat, juan ziran ango ixiltasunak. Guzien poza! Xabiartxok ere bere laban-kirtenarekin maia jo ta “Gora!” zion.

“Konpañeo”, ura indiolloa! Yon berberak, ain egazti aundia erretzeko laberik izan zitekenik ere siniskaitza zala zion, oso arri-tuta. Bai xamurra! Txestallu, neurri, ta batez ere txit merke eresia izateak izpidea ugari eman zien.

Lusagar-zuku ta sagar-orearekin batera, indiollo ura naikoa izan zuten guziak. Andre Mirenek zionez beintzat, ezur batek zeukan aragi puxketa ezin izan zuan iñola ere bukatu. Ta guziok ase-ta zeudelarik! Bi koxkorrak batez ere: bekaiñetarañoko guzitik betegarria zerioten arrano aiek.

Azpil garbiak jarri zituan Iziarrek. Eta ama sukalderatu zan, budiña bere ontzitik atera ta ekartzeko. Etzuan iñork laguntzerik izan nai.

Ura zalantza ta eziñegona!... Bear ainbat mamitu ez balitz!... Ateratzerakoan pitzatuko balitz!... Ez al zuan beintzat norbaitek leiotik sartu ta ostuko!... Bi koxkor aien kezkek, atzeneko oldozpen onetxeekin!... Bost minutu aiek bai luzeak!

Baña ez! Lurrin aokada batek adierazi zien estalkia kendu zit-zaiola; gobara usai batek, ondoren, bilkai jarritako oiala atera zit-zaiola... ta okoretegi, jatetxe ta lisatzalle usai nasketa batek azke-nik, ontzitik aterea zala.

Minutu bat... eta andre Miren ozkorrituta, baña parresamurra ezpañetan zekarrela, bere budiñarekin sartu zan. Suaga-berunpilla bezin zut eta dirdizari, koñak gar artean, eta gorostiz apainduta zetorren budiña.

Budin bikaña! Ezkondu ezkerro andre Mirenek egindako lanik bikañenetakoa, onena ez bazan gero!, uraxe zala zion Yonek. Guzia ondo irten zala ikusirik, andre Mirenek irin geitxo jarri ote zuanen kezkek bildurrak euki zuala aitortu zioten. Guziak zerbait

esan bearra izan zuten: iñork ez ordea txikiegia zanik, gezur biri-billa izango baitzan.

Afaria bukatu ta maizapiak jasotakoan, lurra garbitu, sua bizitu ta Yonek gertatutako edaria maiera ekarri zuten. “Epaikariak” bete-betekoa zala erabaki ondoren, larraran eta sagarrez maia bete, ta, gar eta sutauts artean, gaztañak erretzen jarri zituzten. Zubiri sendia sutondoan eseri zan, aizeki itxuran, eta atera zituzten etxean ziran kristalezko ontzi guziak: bi edontzi ta kerten gabeko zukuontzi bat.

Urrezkoak ańean bete zuten alare bere eginbearra. Ta gaztain tunpada artean banatu zuan Yonek berak antolatutako edari bizia, eskeintza antzera,

–Eguarri zoriontsuak itzazute, ene maiteak! Jaunak onetsi gaitzala! –esanaz.

Guziak erantzun zioten, eta,

–Banaka-banaka onetsi gaitzala Jaunak guziok! –amaitu zuan Xabiartxok.

Aitaren aldameneko alkitxoan eserita zegon. Yonek, maiteena zuan uraxe norbait edo zerbaitek eraman nai ote lioken beldur balitz bezela, aren eskutxo aula bere esku artean zeukan.

–Gogouts! –esan zuan Ezkurrak ordu arteraño baño arreta geiagorekin–. Esaidazu, Xabiartxo biziko al da?

–Sutondoan alkitxo uts bat agertzen zait –erantzun zion Gogoutsak–. Eta jabea galdu duan galtzar-makiltxo bat oroigarri kutunena bezela jasota dakust. Etorkizunak errańu oiek aldatzen ez baditu, aurra laster ilko da.

–Ez! Ez! –oju egin zuan Ezkurrak–. Arren, ez! Gogouts on orrek, esaidazu luzaro biziko dala!

–Etorkizunak errańu oiek aldatzen ez baditu, ez nik eta ez bere ondorengoak ez degu bere tokian arkituko... Ta zer? Il dedilla, ala bear bada. Orixe litzake gańezka daudenak garbitzeko biderik egokiena.

Ezkurrak berak esandako itzak Gogoutsari entzunaz, burua makurtu zuan, barrengo zimiko ta ońazepean.

–Gizon! –esan zion Gogoutsak–. Gizona bazera beintzat eta ez arria! Ez dagokizu zuri onelako jaiotzak zer dakarten eta zergatik izan oi diran aztertzea. Nor zera zu iñoren bizi ala eriotza erabakitzeko? Goikoaren aurrean, zoritxarreko aurtxo orren bizia zerorena baño garrantzi aundiagokoa ez ote da gero? Jaungoikoa! Landare-galtzalle besterik ez dan xomorroa, bere kidekoen osasun geiegiagatik alaka ikusi bear!

Gogoutsaren asarre-itzak, apalki, dardar eta begiak lurretik jaso gabe entzun zituan Ezkurrak. Baña bat-batean bere izena entzun, eta altxa zuan burua.

–Ezkurra jauna! –zion Yonek–. Jai au berari zor diogun ezke-ro, zoriona opa dezaiogun Ezkurra jaunari!

–Ezkurra jauna? –esan zuan oso suminduta emazteak–. Ai, ementxe aurrean baneuka! Bereak eta bost entzun bearko lizkidak! Zorion ederra emango nioke nik!

–Miren –erantzun zion Yonek–. Seme-alabak ditugula! Eguarri dala!...

–Eguarri bear, Ezkurra zeken dollor ori bezin gizaseme gorrotagarri bateri zorionak opa izateko. Ta ongi dakizu zerorrek ere, Yon, zuzen ari naizela, iñork baño obeto jakin dezakezu ta!

–Ene maite! –esan zion goxoki Yonek–. Gaur bederik!...

–Dan eguna dalako... ta batez ere zuk nai dezulako, bere ize-nean edango det –esan zuan andre Mirenek–; baño ez beragatik! Osasun betean luzaro bizi dedilla! Eguarri zoriontsuak eta Urteberri on bitza! Ain zurkaitza danez, jai alaiak igaroko ditu noski ta...

Seme-alabak ere amaren eskeintza bera egin zuten, baño gau artan biotzak berez agintzen etzien gauzik egin bazuten, uraxe bat beintzat. Xabiartxok edan zuan azkena, ta aopeko errosarioa esanez edan ere. Ezkurra baitzan etxe artarako “Amalau-zaku” bildurgarriena. Bere izena aitatu utsak bost bat minutuan ezin uxatu izan zuten ondoeza nabaierazi zien.

Laster berpiztu zan ordea alaitasuna, len baño ere biziagoa apika, Ezkurrarekikoak egin eta munduan bazanik ere oldoztu bearrik etzutelako nunbait.

Keparentzat irabazpideren bat laster izango ote zuten bezela esan zuan Yonek. Gauzak ondo irteten baziran, eguneko SEI ERRIAL!! geiago izango zituzten beraz.

Kepa orrela aberastu zitekela oldozte utsak algara bizian jarri zituan bi anai tximista aiek. Eta Kepa bera, lepoko mutur artetik suari begira, onelako dirutzak berekin dakarzkina buruauste ta kardabapean gelditu zan, irabazi aiekin guziakin zer paper erosi bear-ko ote zituan ezin erabakirik bezela.

Martek, gajoa jostun-etxe batean ikasten ari baitzan, zer lan egin bear izaten zuan, zenbat orduan aritzen zan azaldu, ta urren-go egunean lanera jua bearrik etzuanetz, etzanda egon nai zukela zion.

Egun batzuek aurretik “kondesa” ta “konde” bat nola ezagutu zituan ere esan zien. Eta “kondea”, Keparen antz-antzekoa noski. Au entzun zuanean lepokoaren muturrak iges egin, eta Kepa gizajoa lepokoan galdu zan.

Bitartean gaztain eta zukuontziak berea egin zuten. Eta azkenik Xabiartxok txit egoki ta aots eztsitsuz, elurretan galdutako mutikoaren abesti polita abestu zuan.

Guzia, guzi-guzia, apalki, aunditasun ipitxik gabe egiña izan zan. Etziran dezatekenak, jazki txiroak zebizkiten, oñetakoak ura artzeko egiñak ziruditen, Kepak baitetxera bidea begi-itxuan ere asmatu baietz egin ziteken: baña zoriontsuak ziran, esker onekoak, zegokiena ondo artzen baitzuten.

Ikusgai ura ezkutatu baño len, Gogoutsak zuzi tanta batzuekin guziak are ta alaiago ta zoriontsuago jarri zituala nabaitu zuan Ezkurak.

Kaleratu ziranean, illun zegon eta elurra mara-mara ari zuan. Etxe ta dendatako argiak dirdir arrigarriak zegizkiten. Kale zear zijuazela: emen, sugañean afari goxo gertuketak, eta etxeakoak otza ta elurren aurka errezelak zabaltzeko asmotan arkitzen zituzten; an, lenbiziko agurra berena izan zedin, etxeke seme-alabak, eskaratzean, anai-arreba, osaba, lengusu ta abarren zai agertzen zitzaizkien; onuntzaxiago, leiar artetik, giza-emakume talde bat afari

asieran; aruntzago, beti nork bere txanda balu bezela, guziak batera berriketan, inguruko etxeren batera zijuan gazte taldea.

Besteren etxerako asmoan agertzen ziran taldeak ikusita, irixterakoan iñor arkitu bear zutenik ezin sinistu; baña, bestalde, nunnai, norbaitzuen zai zeudenen gertuketak nabaitzen ziran: sukaldetan, ikatza ta zer jana ugari ikusten zan beintzat.

Gogoutsaren atsegiña! Aren biotz ona, ta alaitasuna banatzeko esku zabala! Laspelargi-piztallea ere, Gabon lagunartean ospatzeko asmoan, beñere baño pizkorrago zijuala, algaraz pasa zitzaioten illunpea ixarrez tantoturik, Gaurko Eguarri Gogo aldameanean pasa zanik ezagutu ere gabe!

Ez bat eta ez bi, Gogoutsak itzik esan gabe, lekaro arritsu batean arkitu ziran. Alde guzitan erraldoi-obiak ziruditen arri pillak. Jelak katiatuta ez baleuka, laster litzake ura lur artan jaun ta jabe. Eguzki kondarra, irudi arriabartsu ura azken-izpi gorrixta batekin argitu, ta gau mende illunera jausi zan.

–Nun gabilta? –galdetu zion Ezkurrak.

–Lur azpian, lan ta lan bizi diran meatzari artean. Ezagutzen naute. Begira!

Txabol bateko leioetan argia ageri zan, eta aruntz jo zuten. Arri ta lokatzez egindako orma zear igazi, ta sutondoan billerarik alaiena arkitu zuten: aiton zar-zar bat, bere emaztea, bion seme-alabak, eta seme-alaben ondorengoak, jantzirik apañenakin zeuden. Aize durrunda menderatzeko, aultxo sortzen zitzaion aotsakin, bere gaztearorako oso zartzat zeukaten Eguarri abesti bat abesten ari zan aitona, ta onek bakarka amaitzen zuanean, guziak laguntzen zioten.

Etzan Gogoutsan luzaro gelditu, ta soinpekoari ondo eltzeko esanaz, lur sakon aien gañetik... noruntz jo zuala uste dezute? Itsasoruntz? Itsasoruntz! Ikaraturik ikusi zuan Ezkurrak lurra atzean utzi, ta ertzari azpia jan nairik, arkaitzak asarre arroz jasotako uin zaratatsuakin zatituaz, belarriak gortzen zizkion itsaso orrulariaren gañean zirala.

Itxasertzetik lau bat kilometrora, ugarri arkaitsu illun batean, aize ta urak astintzen zuten itsasargi bakar bat zegon. Itsas belar

eta landarez josia zeukan oña, ta bere argiak erakarritako antxeta-sallak jira ta bira zebizkin inguruan.

Bi gizonen zaipean zegon. Eta arresi zirritotik ur gañeratuko litzaken argitasun izpia bezela, sutzar baten dirdira ikusten zan. Lanean gogortutako esku babatsuak elkarri eman eta bata besteari Eguarri zorientsuak opa zizkien, bien arteko anaitasuna zurrut banakin bustiaz. Bitan batek, zarrenak, itsasoan igarotako ekaitzaldi guziak arpegian zeramazkila zirudin arek, abesti sendo bat asi zuan gero: aotsak berak ere ekaitz itxura obea zuan.

Berriro abiatu ziran Gogoutsa ta Ezkurra itsas asarrearen gañean, lurrunontzi batekin topo egin zuten arte. Lemazaiaren aldamenean jarri ziran, oartzalle, txanda agintari, ta mariñelai begira. Nor bere tokian, Eguarri abestiren bat ezpañetan zuala, edota etxean egindako Eguarri egunen bateko gertaerak lagunartean edestuaz arkitu zituzten guziak. Eta egun artan, lotan ala esna, gaizto ala on, guziak itz eztiren bat nun edo nundik sortzen zuten bere kidekoentzat.

Illunpean, Eriotza bera bezin sakon eta zingokaitzak ziran amiltegi igikor aietan ibiltzearen aunditasun gogaiak buruan zituela oldozkor zegon Ezkurra, arrituta, txundituta, baña oso ergelduta utzi zuan algara burrunbatsu batek. Bere illobaren algara ezagutu etzuan ba! Gogoutsa, bere illobari atsegiñez begira, aldamenean zuala, etxegela argi, atsegin, bero batean zegon.

–Ja!, ja!, ja! –ari zan Ezkurraren illoba–. Ja!, ja!, ja!

Ezkurraren illoba baño par-errezagokorik ezagutuko bazenu, zailtxo izango zaizu noski baña, aurkeztu zaidazu arren. Nere lagunik onena izango litzake ta.

Ordainpide-legeak agintzen dutenez, goibeltasun eta gaitzak kutsukorrak diran ezkerro, parra ta umore ona ere alaxe bear, eta algara batzuek bai kutsukorrak, ezer kutsukorrik bada. Ezkurra- ren illoba, sabelari eldu ta gomazko kopin bat bezela burua mugitu ta kiñuka asten zanean, Ezkurraren ezkon-illobak ere parrari erasotzen zion, eta aiekin ziran lagunak algaraz lertu bearrean jartzen zituzten bien artean.

–Ja, ja, ja! Ja, ja, ja!

–Eguarri ergelkeri bat dala esan etzidan ba! –zion illobak–. Ta benetan ari omen zan!

–Are ta okerrago! –esan zuan emazteak suminduta.

Txit polita zan, oso-oso polita: xulotxoz betetako arpegi alaia, irriparruts aoa, ta begi bizi txinpartutsak zituan. Oso begiratua izan arren, grina-piztutzallea zala aitortu ziteken: ez ordea gaizpide iritzian.

–Ori azala! –zion illobak–. Ikusgarria da arranoa! Ta bear luken baño askoz trikuagoa. Baña berak bestek ez du orrekin kalterik. Dagola ba, utzi dezaiozun pakean.

–Oso aberatsa izan bear du ba, Ibon –esan zuan andreak–. Zuk ala diozu beintzat.

–Eta zer? –erantzun zion Ibonek–. Zertarako du dirua? Ez du gauz onik egiten. Beretzat bederik zerbaiten atsegin eta lasaipiderik billatuko ezta ba? Ezer ez pentsatzeagatik, ja, ja, ja!, ezta bere txibota guziak guri utzi bearko dizkigunik ere pentsatzen.

–Nik ezin ikusi det –oarrarazi zuan emazteak, bere aizpa ta emakumezko guzien oniritzi artean.

–Nik bai ba! –esan zioten illobak–. Ondo begiratuta kupigarrria da. Ni ez nitzake naita ere arekin asarretuko. Nori kalte egiten dio bere setakin? Bere buruari. Ara, oraintxe, guri gorrotoa digula ta ez duala gurekin afaltzera etorri nai. Ondorenak? Ez duala ezer asko galdu.

–Bai jauna, afari eder bat galdu du –bota zion emazteak, afaldar guzien zorion-agur artean. Oek zerbait jakingo zuten noski, maietik altxa berriak ziran ta.

–Zorion-agur oek poztutzen naute! –esan zuan Ibonek–. Etxekoandre gaztegiak baexpakoak ote ziranen kezka bainerabilkin emen, barrenen. Zer derizkiok ik, Mikel?

Mikelek, Ibonen emaztearen aizpa bat begiz jota zeukan, eta ezkongai batek onelako arazotan sartzeko eskubiderik etzuala aitortu zuan. Itz oek Ibonen ezkon-arreba lotsarazi zuten. Txibistadun lodixka ura, ez arroxakin apaindurik zegona.

–Buka zazu, Ibon! –esan zion emazteak–. Beñere ez dezu asten dezuna bukatzen!

Bai kutsukorra Ibonen algara!

–Gu ezin ikusiak eta gure alaitasuna ikusi nai ezak on aundia egingo lioken txolarte au galerazten diola esan nai nuan, alegia. Bere lantoki edo etxean, bere gogamen illunenakin baño lagunarte obean ez ote legoke ba gaur gurean? Nik urtero-urtero nere eskeñia berrituko diot, danik eta purrustik aundienak egiten badizkit ere, errukia baitiot. Eguarri, gorrotagarria bazaio ere, urtero zorionak ezañean ditudala ikusten banau, noizbait biotz barrenen bederik begi obez ikustera iritxiko da. Azkenaian bere idazkari gizajoari milla bat peseta uzteko añean, besterik ez bada. Bai, bai, atzo limurtu nuan.

Ezkurra limurtu? Ori sinistu zitekenik gogoratze utsak algaraz ler-egiñerazi zien guziaz. Artara bildu baitziran gau artan, par egitera. Eta etzan Ibon atzean gelditu.

Tea artu ondoren, eresgaraia eldu zan. Guziak oso zaleak baitziran. Mikelek abesperen aots ederra zuan, eta batere indartu gabe, kopeteko zañak lertzeko zorian azaldu gabe, odola arpegiratu gabe, atsegintsu jardun zan. Ezkurraren ezkon-illoba maniura-jotzalle aparta zan, eta beste ereszati batzuekin batera, Ezkurraren billa ikastetxera juan zan neskatillari atsegiñena zitzaion bat jo zuan. Ura entzunda, Igarotako Eguarri Gogoutsak erakutsitako irudiak bururatu zitzaizkion Ezkurrari. Urte batzuek lenago gauza oei arreta geiagogz begiratu izan balie, biziak dituan benetako atsegiñak Marlegiren Mamutzar bearrik gabe, nun arkitu asmatuko zuan noski, berekiko zionez.

Eres-txolarte ondoren “ikusimakusitan” jostatu ziran, oso atsegin baita aldian bein aur biurtzea, batez ere Eguarritz, Jainkoa bera aur egin zan egunean. Baña au burua nerea! Aztutzen ez nitzan ba! Lenago “itxumustuka” ibilli ziran. Noski! Ta Mikelek beatz muturretan ere begiak zituala aitortu bear, nun ta sudur azpiraño sartzen zioten txapela zuloduna etzan.

Nere ustez, Ibonekin bat-eginda zebillen Mikel, eta Gaurko Eguarri Gogoutsaren laguntza ere berekin zuala esango nuke. Gañontzean, nola beti aizpa lodixka arekin topo egin? Siniskaitza ezta? Suburniakin estropozoka, alki ta maiakin kankarrekoak

artuaz, pianoakin kokotza autsirik, errezel-artean korapillatuta... beti aretxen atzetik arkituko zenuten, beste iñor aurrean jartzen bazitzaion ere ikutu gabe. Ori etzala bidezkoa esaten zuan neskak, eta egia zion. Eta azkenik, berea egin zuanean, txoko batean iñora iges egin eziñik arrapatu zuanean egin zizkionak ez dira iñori egitekoak: ille guziak nor zan ikusi nairik bezela nastu, ta, arek zionez, beatz batean bear zuan erraztuna arkitzeko aitzekian, eskua ainbeste denboran artuta euki etzion ba. Izugarria izan zan! Jostaketa ondoren, areto txoko bateratu ziranean, azterketa aregatik bereak aituko zituan noski.

Ezkurraren ezkon-illoba etzan “itxumustuka” ibilli. Alki batean eserita besteai begira egon zan. Baña “ikusimakusitan” eta “nola?, noiz?, nun?” izena duan jokoan aritu zan, bere erantzuera bizi ta zorrotzakin aizpak oso atzetik utziaz. Ibonen arrokeria!

Guziak iskanbilla bizian ari ziran, eta Ezkurra, an zeudenak ez bera ikusi, ez ziona entzun ezin zezatekenik gogoratu gabe, batzuetan oker eta bestetan egoki erantzuten ausartu zan.

Ezkurraren ustegabeko umekeri aiek Gogoutsa zorutzen zeukaten, eta arek poz au nabaiturik, mutil koxkor batek egingo luken bezelaxe, jostaketa guziak amaitu arte antxe egoten uzteko arren eskatu zion. Baña ezin zitekela erantzun zuan Gogoutsak.

–Ara, beste jolas bat astera dijuaz! –otsegin zion Ezkurrak–. Gogouts!, arren, beste ordu erditxo bat!

“Bai ta ez” izena zuan joko bat zan. Ezkurraren illobak oldoztutakoa zer zan asmatu bear zuten besteak, ari galderak egiñaz. Galdera oei, Ibonek bai ala ez erantzuten zioten, beren irudimena zuzen ala galduta zebillen jakin zezaten. Ezker-eskubi bota zizkio-tenai erantzundakotik, aberen bat izan bear zuan Ibonek oldozme-
nean zebilkiana. Abere bat, bizia bera, muker samarra, basatia, gurrinka ta orroka aritzen zana, Londonen bizi eta kalean zaitzallerik gabe aske zebillena: eta ez zaldia, ez astoa, ez beia, ez zezena, ez katamotza, ez zakurra, ez katua, ez artza... zer izan ziteken?

Galdera berri bakoitzak algaraz lertu bearrean jartzen zuten Ezkurraren illoba, azkenerako parraren parrez lurrean etzanda biraka asteraño. Bat-batean ezkon-arreba lodixkak oju egin zion:

–Badakit! Badakit zer dan, Ibon! Asmatu det!

–Zer da ba? –galdetu zion Ibonek.

–Zure osaba!

Ta alaxe izaki. Guziak arrituta utzi zituan. Baña geienak zioten, “Artza ote da?” galderari, “Bai” erantzuna zegokiola. “Ez” esanda, Ezkurraren irudia menetik kendu omen zien ta.

–Dana dala, txolarte ederra pasaerazi digu beintzat, eta bere izenean kopatxo bana ez ustutzea gaizki legoke –esan zuan Ibonek–. Tira ba... Bete... Orrela... Osaba Iñakiren izenean!

–Bere izenean! –erantzun zuten guziak.

–Nun-nai dagola, Eguarri zoriontsuak eta Urteberri on bitza! Etzuan nere zorion-agurrik eskertu eskeñi nionean, baña ez gera beti iritzi batekoak, eta onenean orain guzien eskeñiak ondo artuko ditu.

Ezkurraren alaitasuna! Gogoutsak utzi izan balio, illobaren eskeintzari pozik erantzun izango zion. Baña Ibonen azkeneko itzakin batera, irudi alai aiek ezkutatu, ta egan arkitu ziran berriro.

Asko ikusi zuten eta erridi bakanenetan izan ziran. Mota guzitako etxetara eraman zuan Gogoutsak, aberats eta txiro, osasuntu ta gaxo artera, baña nun-nai olde ona, eramanpena, pakea, itxaropena ta indarra arkitu zuten, ikerpena ondo amaiturik. Txiroetxe, Gaxotegi ta Espetxetan, zoritxar-kerizpe guzitan, gizakumearen indar aulak sarrera eragotzi ezin lezaioken Gogoutsak onespén bat utzirik, Ezkurrari bere aginduak erakutsi zizkion.

Guzia gau batean egiña zitekenik ere, sinistu ezin. Ezkurra kezka artean zegon, gertaera guziak elkarrekin zeramaten asti apurrean ikusiak izan arren, Gogoutsak begien aurrean zartzen baizijua-kion. Berarekin abiatu orduko nabaitu zuan au, baña etzion itzik esan aur billera bat utzi ta Gogoutsak buruzuri arkitu zuan arte.

–Baña ain laburra al dezu bizia? –galdetu zion.

⁷ Ezabatuta dago parentesi zuzenaren barrukoa *El Díako* jatorrizkoan. Hala ere, ematen du hori jarri behar duela (Edizio prestatzailearen oharra).

–Ludi ontako bizia oso motza da neretzat –erantzun [zion Gogoutsak ⁷]. Gaur gabeen amaitzen da.

–Gaur gabeen!

–Amabitan! Entzun! Nere azken ordua badator!

Amabiak laurdena gutxiago entzun ziran orduantxe.

–Barkatu nere galdera egokia ez dala baderizkiozu –esan zion Ezkurrak soinpekoari arretaz begiraturik–, baña zurea ez dan zer-bait ikusten dedala iruditzen zait. Soñeko ertzetik ageri dezuna zer da, oin bat ala atzapar bat?

–Atzaparra dala derizkiozu beraz? –erantzun zion Gogoutsak–. Begira!

Bere soinpeko toles artetik bi aur kupigarri, lander, izugarri, nardagarri irten ziran. Oñetan, bere soñekoari elduta, belaunikatu zitzaizkion.

–Gizon! Begira onera!

Nexka ta mutilla ziran, zurbil, zarpatsu, goseti, kopetillunak biak, baña apalki belaunikaturik zeuden. Gaztetasun bizia bear lukena, gazte-itxura negargarri bat besterik etzan. Aien azpegian agertzen etzan akats eta gaiztakeri mallarik ez liteke iñon arkitu.

Izuak atzera egiñerazi zion Ezkurrari. Aurren bat ikusi orduko nornairi ezpañeritzen zaizkion itz maitekorak esan nai zituan, baña etzion mingañak lagundu, gezurretan ari baño ixilik egon naiago zuan nunbait.

–Zureak al dira, Gogouts? –galdetu zuan noizbait.

–Gizonen semeak dituzu! –esan zion Gogoutsak, aiei begiraturik–. Ta neregana datozkit, beren sortzalleakandik igesi. Mutilla, Gogitxukeria da. Nexka, Zekenkeria. Kontu biakin, baña batez ere aurrenekoarekin, galbide guziak berekin ditu ta. Kopetean iñork kentzen ez dion bitartean, “Ondamena” idatzita darama.

–Kerizpe edo laguntzarik ez al dute? –galdetu zion Ezkurrak.

–Ez al dago kartzelik? –erantzun zion Gogoutsak len berak egindako galdera bikin–: Txiroetxeak ez al dute beren eginbearra betetzen?

Amabiak jo zuten.

Ezkurra Gogoutsaren billa asi zan, eta etzuan iñon arkitu. Azkeneko tantai otsarekin batera, Marlegiren iragarpena gogoratu zitzaion, eta, begiak jaso zituanean, itsas gañean lañoa bezela, lurraren gañean soñeko zabal eta burutxano batekin zetorkion mamu bat nabaitu zuan.

LAUGARREN AAPALDIA

Ta azkeneko Gogoutsa urreratu zitzaion...

Geldiro, ixilik, aundikiro urbildu ere. Ezkurra, aurrean belau-nikatu zitzaion, Gogoutsak inguru guzian zerion goibeltasun eta ezkutuki aideak menderatuta.

Illoial beltz antzeko batekin estalirik zetorren. Gorputz osoa ta buru-arpegiak gordeta zekarzkin. Esku bat bakar-bakarrik ageri zuan. Onexegatik izan ez balitz, illunpeakin bat egiñik, etzan Gogoutsa iñola nabaitzerik izango. Ezkurrari luze ta aundia iruditu zitzaion, eta ikusgai arek bildur adierazgaitz bat sartu zion barru-barruraño. Gogoutsak ez itzik egin ez ezer mugitzen zuan.

–Etorkizuneko Eguarri Gogoarekin ote nago? –galdetu zion Ezkurrak.

Itzik esan gabe, Gogoutsak eskua jasota zerbait erakutsi zion.

–Oraindik izan ez dan arren, biar gertatu bear duanaren berri ematera al zatozkit?

Une batean, illoialaren goiko muturra makurtu zan, Gogoutsak buruarekin baietz esan balu bezela. Auxe izan zan aren erantzupen bakarra.

Gogoutsakin oitzeko garaia bazuan ba, baña Ezkurra dardar bizian zegon. Mamua, dardar ura nabaiturik, geldi-geldi egon zan. Ezkurraren barrena pittin bat lasaitu zedin.

Baña batekoz bestera gertatu zitzaion: bera alegiñean saiatu arren, esku bat eta gauza beltz aundi ura besterik ikusten uzten etzion illunpe zear, oial beltz aren atzetik, bi mamutzar-begi begira-begira zeuzkala oldozte utsak izua ezurretaraño sartu zion.

–Etorkizun Gogouts! –marraskegin zuan–. Oraindañokotan, zu bildurgarriena! Baña nere kaltean etzatozela badakit. Eta aspal-dian utzitako bidera jo nairik, zure erakusbideak, eskertsu, ontzat artu ta jarraitzeko asmotan naiz. Ez al didazu itzik egin bear?

Etzion erantzun. Eskuak aurrera bidea erakusten zion.

–Esaidazu nundik jo! –zion Ezkurak–. Gaua laburra da, ta minutu guziak zein baño zein ederragoak neretzat! Arren, erakus zaidazu bidea! Erakutsi bidea, Gogouts!

Mamua etorri bezelaxe aldendu zitzaion. Baña aren soñeko errañuak berekin balerama bezela, Ezkurra Mamuaren atzetik abiatu zan.

Oek errira juan bearrean, erria bereganuntz zetorkiela zirudin. Eta bat-batean erri erdian arkitu ziran: Boltsan, salostari artean... Patriketan ontzakoen ota, taldeka jardunean, alde guzitan erlojua nagusi... Beren erraztunak igurtziaz antxe zebiltzan Ezkurak ainbeste aldiz ikusitako aiek, berak ainbat bider ikusi bezelaxe.

Gogouts tratalari-talde baten aldamenean gelditu, ta beatza-kin talde ura erakusten ziola ikusirik, urbildu zan Ezkurra ere aiekanuntz.

–Ez –zion gizaseme lodi, kokotz-luze batek–. Eztakit il dala besterik.

–Noiz il zan? –galdetu zion beste batek.

–Bart arratsean, entzun dedanez.

–Baña zerekin il da? –esan zuan irugarren batek, surrauts beazkada galanta artuaz–. Nik ez nuan ura beñere ilko zanik uste.

–Jainkoak daki! –erantzun zion lenengoak aoa zabalduaz.

–Zer egin ote du diruarekin? –galdetu zuan, sudurren puntan indiollo-muki antzeko zintzilikario bat zeraman jaun gorrixta batek.

–Eztakit ezer –erantzun zion kokotz luzeak–. Neri eztit beintzat utzi, ori ziur nago.

Algaraz artu zuten guziok irteera.

–Eortzi merkea izango da –jarraitu zuan berak–. Laguntzalleren bat izaten naiko lan. Juango ote gera geroni?

–Amaiketakoren bat izatekotan, ez legoke ain gaizki –esan zuan sudur-zintzilikaridunak–. Nerekiñ zerbait nai duanak, sabela bete dezaidala.

Len añako algarak.

–Nik ikusten dedana, guzietan fiñena neroni naizela –amaitu zuan lenengoak–. Ez det amaiketakorik ere eskatzen, eta beste norbaitek nai badu, ni juango naiz. Ondo pentsatzera, neroni ez ote nitzan ba aren lagunik kutunena? Elkarrekin topo egiten genun guzitan, zerbait itz egin bearra sortu oi zuan beintzat. Gero arte!

Taldea sakabanatu zan. Ezkurak guziak ezagutzen zituan, eta Gogoutsari zerbaiten azalpen eske bezela begiratu zion. Gogoutsak, kale kaskar batean barrena eramanez, elkarrekin topo egin zuten lagun bi erakutsi zizkion. Jakin nai zuanaren berri ikasi ote zezaken edo, aiek ziotena entzutera urbildu zan.

Biak oso ezagunak zituan. Tratalariak, salerosketan izen aundien jabe ta aberatsak biak. Aiekin ondo eukitzen alegindua zan beti.

–Nola gera? –zion batek.

–Ondo! Ta zu? –besteak

–Ainbestean! Zarrak ordaindu dituala beraz guziak?

–Ala diote. Otz dago, ez?

–Eguarritan gera ta ezta arritzekoa. Irristan ibilli bear ez?

–Ez. Aurreragoko egitekorik badabilkit. Agur!

–Agur, ba!

Ezta itzik ere geiago. Orrelaxe arkitu, itz oietxek esan eta elkar onelaxe agurtu zuten.

Ezkurra arrituta zeukan Gogoutsak. Uxkeri aiei arreta jarri eraziko zion ba? Bestalde entzundako itz aiek zerbait esan naiko zutela iruditzen zitzaion, eta auxe igarri nairik burua ondo nekatu zuan.

Ezin ziteken, Jagoba, baltzukide izandakoaren eriotz otsak izan: au aspaldi gertatua baitzan, eta Gogoutsari etorkizuna beste-

rik ez baitzegokion. Ura izan ezik, etzuan berriz iñoren aztarrenik arkitzen. Baña nornaigatik esanak zirala, atera zezaken ondore on guzia bereganatu nairik, ez itz ez kiñu bat galdu gabe guzia aztertu, ta, batez ere, bere buruaren irudia azaltzen zitzaionean arretaz begiratzea erabaki zuan. Ezkutuki aren argibidea beragan arkitzeko ustean nunbait.

Inguru guziak aztertu zituan. Bera antxe agertu oi zan ordua izan arren, bere tokian beste gizon bat ikusi zuan. Ez, etzegon bera iñon. Etzan arritu ala ere. Aspaldian bizikera berritzekotan baitzan, eta bere asmo aiei josi zien egun, une, eta leku artan bere bururik ez arkitzea.

Ililik, gotillun, Gogoutsa bere aldamenean eskua luzatuta zeukan. Bere oneratu zanean, Ezkurrak aren esku ta tankerari begiratuaz, Begi Ezkutu aiek begira-begira zeuzkala nabaiturik, izu otzikara bat goitik bera sentitu ta jela-aizeak izoztuta bezela gelditu zan.

Toki ura utzi ta Ezkurrak oso izen txarrekoztat euki oi zuan zoko batera juan ziran. Kaleak, estu ta ustel-usaia zeriottenak ziran; etxe ta dendak, kaskarrak; giza-emakumeak, ordi, itxura txarrekoak, erdi larrugorrian zebiltzan. Zornartate ta bidetxotatik, mallarik makurreneko jende zikiña, pillaka, amildegiratzen dan ibaiaren burrunbaz, kalerik aundienera sartzen zan.

Zekenkeri-leize aren erdi-erdian, salokitxo zapal bat ageri zan: zarpazar, botilla, ezur eta ondakin dendatxo bat. Lurrean giltza, iltze, kate ta burni zar mota guziak pillaka. Koipe ustel ta zatar zikin artean, iñork gogoz azterkatuko etzukean ezkutuko pizti bizikera bat nabari ziteken. Kirastasun aren jabea, irurogeitamar bat urteko alproja illezuria, sutontzi baten ondoan exerita, ondo irabazitako atsedean aldi gozartsuan pipa erreaz zegon, aizeak jo etzezan, listai batetik milla margoko zatar puskakin egindako errezel itxura bat zintzilik zuala.

Ezkurra ta Mamua, lotura aundi batekin zetorren emakume bat sartu zan une berean eldu ziran gizon aren aurrera. Emakume onen ondoren, beste bat etorri zan; zorroto batekin au ere. Eta bien

atzetik, beltzez jantzitako gizon bat. Bata bestea ikusteak, arrituta utzi zituan irurak.

Une batean guziak (pipa ortzetan zuan agurea ere arrituta zeukaten ba), guziak, diot, izuarekin ixilik egon ondoren, irurak parrari eraso zioten.

–Aurreratu bedi lenbizi esnezalea bakarrik –uju egin zuan aurrena sartutakoak–; betor gero gobarazalea. Eortzetxeko mutila, azkena. Zer derizkiok, Txomin? Ustegabeen irurak emen!

–Eta nun obeto? –esan zien Txomin zarrak pipa ortzartetik aterata–. Atozte “salara”. Guziok ezagutzen dezute. Baña zaudete... aurrena itxi dezadan denda. Au atearen kurrizka! Ez dago denda osoan ate-orpo oek baño burni zarragorik, ez nereak baño ezur igarragorik. A, a! Oiek nolako, ni alako! Guazen orain “salara”!

“Sala”, errezel atzeko zati ura zan. Sutontziko ikatzak igitu, ta bere pipa muturrarekin kandela antxitu zuan zarrak, berriro ortzartean sartu baño len.

Ortan ari zan bitartean, aurrena sartutako emakumeak bere lotura lurrean utzi, ta alkitxo batean exeri zan, ukalondoak belaun gañean zituala lotsagabe-lotsagabe beste biai begira jarririk,

–Zer da? E? Zer dezute? E, andre Joxepa? –esan zuan–. Nork bere buruari begiratu bear ez badio! “Ark” ere orrelaxe egin oi zuan beti.

–Egia da –erantzun zion gobarazaleak.

–Zer dala ta izu-arpegi ori orduan? Zeren bildur zera, emakumea? Nork jakin bear du ezer? Nun ta geroni asten ez geran gere kontuak zabaltzen.

–Ez noski! –erantzun zuten andre Joxepa ta gizonak batera–. Orrelakorik pentsatzea ere!

–Tira ba! Gauzatxo abek galdu dirala, ta nori zer dijuakio? Ildakoari ez beintzat.

–Ez, orixe ez –esan zuan parrez andre Joxepak.

–Eriotz ondoren ere gorde nai bazituan, zergatik etzan bizi zala eskuzabalagoa izan? Orrela egin izan balu, etzuan eriotzak, bakar-bakarrik, zakurra bezela arrapatuko.

–Egi aundiagorik...! –esan zuan andre Joxepak–. Orain guzia pagatu du.

–Ta geiago kostako zitzaion, oek baño geixiago balio duten gauzak artu al izan banizkio. Iriki zak lotura, Txomin, eta ia zenbat ematen didaken. Garbi itz egin. Etzaidak ni aurrena izatea ajolik, eta ez ekarri diatena besteak ikustea ere. Emen alkar arkitu baño len, zer ari giñan jakingo genun noski. Ez det uste pekatu egin degunik. Iriki zak lotura, Txomin.

Baña adeiz, gizalegez, ezin zezaken beltzez jantzitako gizonak orrelakorik egiten utzi, ta aurreratuaz bere lapurreta agertu zuan. Etzan gauza aundirik. Sellu bi, lapitz bat, alkandora biritx batzuek, balio gutxiko kakote bat. Agureak arretaz aztertu, zenbat eman ikusi, ta orman idazten zuan bakoitzarengatik zezakena, ta, guzia bukatutakoan, kopuruak batu zituan.

–Ona zure kontua –esan zion– ta [ez⁸] nizkizuke bost kuarto geiago emango, nere bizi truk eman bear banizkizu ere. Zein da orain?

Andre Joxepa. Maindire ta musuzapi, barrengo jazkiren batzuek, zillarrezko zalitxo pare bat, azukrea artzeko tresnatxo bat, oñetakoak. Ordaña orman idatzita gelditu zan, beltzez jantzitako gizonarenaren aldamenean.

–Emakumeakin dirua galtzen det –zion zarrak–. Goitik jotzen baitet guzia. Onek galdu bear nau. Ara zure kontua. Txakur txiki bat geiago eskatzen badidazu, bi errial gutxiago emango dizkizut.

–Ta orain, iriki zak nere lotura –esan zion emakumeak.

Txomin, lasaiago aritzeagatik, belaunikatu zan, eta, korapilloakin burrukan ainbeste denboran aritu ondoren, oial illun aundi astun bat atera zuan.

–Zer den au? –galdetu zion–. Trozela?

–Bai jauna! –erantzun zion emakumeak, ukalondoak belaun gañetik altxa gabe–. Trozela!

–Baña oraindik “bera” oean zegola, estun ta guzti jetxi al den?

⁸ Parentesi barrukoa edizio prestatzaileak erantsi du. Hala behar duela ematen du.

–Noski! Zergatik ez ba?

–Ik aberatsa bear unen⁹ –oarrarazi zion Txominek–, ta iritxi-ko aiz noski!

–Neregan baziok, ez nauk ni eskua luzatzeko bildurrak egongo beintzat, batez ere “aren” antzekoak ditukenen gauzakin. Kontu! Etzaidak koiperik bota burusi gañera!

–“Aren” burusiak?

–Norenak izatea nai dek ba? Eztizkik bear ta.

–Ez unen noski gaitz kutsukorren batekin ilko? –galdetu zuan agureak, kontuak alde batera utzita.

–Ez adi bildurtu. Orrela izan baukan ez nizkiken nik “gauxa” abek artzeko bear aña minutu ere bere inguruan egingo. Begira akiok, bai! Eztiok alkandora orri zulorik arkituko! Ori baitziken onena. Garaiz irixten ez banauk alperrikaltzen zidatek.

–Alperrikaldu?

–Lurrazpiratzeko ori jartzeko asmoak baizizkiteken –erantzun zuan parrez emakumeak–. Eskerrak atera zioatela. Bastoxiagoko batekin naikoa ez al dik ba?

Ezkurra ikaratuta zeukan elkarrizketa izugarri arek. Lau likitx aiei, nazkatuta, atsekabez begiratzen zien.

–Orra! –zion ontan emakumeak, Txomiñek emandako txanponak jasoaz–. Orra nola amaitzen dan guzia! Bizi zala aide ta lagun uxatu zituan, eta orain bere eriotzarekin gu bakarrik irabazle! Orra!

–Gogouts! –esan zuan Ezkurrak, buruko ille muturretatik oñetako azkazal muturretarañoko guzia dardar zuala–. Orain ulertzen det! Doakabe ori neroni izan nindekean! Nere biziaren amaia orrelakoxea izan zitekean! Jaungoiko aundia!... Baña zer da au?

Ikarak atzera bota zuan. Iruditokia aldatu, ta trozel gabeko oe baten aurrez aurre arkitu baitzuan bere burua! Xaretutako maindire zar baten azpian “zerbait” zegon, eta estalita geldi-geldik egoite arek garbi adierazten zuan “zer” izan ziteken.

⁹ Jatorrizkoan “uken” dator (Edizio prestatzailearen oharra).

Ezkurrak, lenengo unean, ezin izan zuan alegiñaren alegiñaz ezer ikusi, ain zegon illuna gela. Kanpotik sartutako argi-izpi motel batek zuzen-zuzen oe gañera jotzen zuan, eta antxe, iñoren laguntza gabe iñori maitasun malko bat ixuri erazi etzion gizon baten gorputz illotza zegon.

Ezkurrak Gogoutsari begiratu zion. Onek oe-burua ikusarazi nai zion itxuraz.

Illoiala zabarkeri aundiz jarria zegon, eta ikutu txiki bat nai-koa zan ildakoaren arpegia agerian uzteko.

Ezkurrak aditzen zuan au, txit errex egin zitekela nabaitzen zuan, “nai zukean”, baña bere aldamenetik Gogoutsa bialtzea bezin zail zitzaion.

Oera begira, gizon ura atzera piztuko balitz, bere lenengo gogaiak nolakoak izango ote liraken oldoztu zuan Ezkurrak. Dollorkeria? Biotz-gogortasuna? Buruausteak? Oietxek ziran noski bukaera beltz ura ekarri ziotenak!

Gela otz bakar artan, bere itz, oitura, maitasun egipen edo biotz onaren oroipen txikienik jaso ta gordetzeko etzuan iñor. Katu baten arramazkotsa atean, eta surik gabeko sukaldean xaguen karruska. Zeren bila zebiltzan? Zerk ote zeuzkan ain urduri? Ezkurrak etzuan jakin nai ere...

–Gogouts –esan zuan–. Au geiegi da. Toki izugarri ontatik alde egin, arren, onek erakutsi didana beti gogoan eukiko det, bai orixe. Guazen!

Baña Gogoutsak, bere eskua luzatuta, ildakoaren burua erakusten zion.

–Ulertzen dizut –esan zion Ezkurrak–, eta al banu egingo nuke. Baña ezin det, Gogouts, ezin. Erri guzian gizon onen eriotzak biotza ikutu dionen bat baldin balitz, arren, ikusi nai nuke.

Gogoutsak bere estalki beltza ego antzera zabaldu zuan, eta berriro biltzerakoan, egun argiz zegon gela batean ama bat seme-alabakin arkitu zituan Ezkurrak.

Amaren larritasunak, norbaiten zai zeudela adierazten zuan. Urduri zebillen batera ta bestera, edozein otsek bildurtzen zuan, noiznai leioratzen zan, erlojuari ainbeste aldiz begiratzen zion,

orratz lanean ezin asmatu-rik, aurren berriketa errugabeak ere min ematen ziola zirud- in.

Azkenean, ain larri zaitutako deia entzun zuan. Otsarekin batera atean zan. Bere senarra zetorkion: kardaba arpegitik zearo juan etzitzai- on arren, alako alaitasun batekin nastuan zekarren, eta alaitasun au, lotsatuta, estali nai zuala esan ziteken.

Maiean jarri zan, bazkari lege aurrean. Eta, luzaro ixilik egon ondoren, emazteak zer berri zekarzkin galdetu zionean, zer erant- zun ezin asmatu-rik bezela gelditu zan.

–Onak ala txarrak?

–Txarrak –esan zuan azkenean.

–Zearo ondatuta?

–Ez, oraindik itxarobide bat badegu, Karoline.

–“Bera” limurtzen badegu? –esan zion arrituta emazteak–. Alatz orrek...

–Ezingo da limurtu –erantzun zion senarrak–. Illa baita!

Arpegia gogo-ispillua baldin bada, andre gazte ura leial eta onutsa zan, baña berri ura entzun eta zerura eskuak baturik egin zuan begiratuak, berak nai baño geiago adierazi zuan. Bereala damutu zitzaion egiña, baña barrenak agindutakoa besterik etzuan agertu.

–Aste beteko epea eskatzera juan nitzai- onean, atea iriki zidan sorgin erdi mozkor arek ez sartzen uzteagatik esan zidala uste nua- na egia gertatu da. Oso gaizki zegola zion, eta, ikusten danez, azke- netan egon bear zuan.

–Eta gure zorra nork jasoko du orain?

–Ezta- kit; baña ordurako dirua izango degu noski, ta, ez bage- nu ere, ez al da urrengoa lengoa bezin biotz-gogorra izango! Gaur lasai egon gaitezen beintzat, Karoline.

Ulertzen etzuten aurtxo txiki aien arpegiak ere, gurasoen alai- tasuna zerioten. Etxe ontan gizon aren eriotza zorion ekartzalle izan zuten beraz! Orixe izan zan Gogoutsak Ezkurrari erakutsi al izan zion biozkada bakarra: alaitasuna!

–Baña ez al du maitasun apurrik ere sortu iñon bere eriotzak? –galdetu zuan Ezkurrak–. Eriotz-gela ori ametsik bildurgarriena

bezela, beti irudimenean erabiltzea nai ez badezu, arren, Gogouts, erakus zaidazu onelakorik balitz.

Gogoutsak txit ezagunak zituan kale batzutan barrena zera-mala, Ezkurra bere irudiaren billa saiatu zan, baña iñon arkitu gabe.

Lenago, beste bein izandako Yonen etxera eraman zuan berri-ro. Ama, seme-alabakin sutondoan zegon.

Ixilik! Oso ixilik! Bi Zubiritxo txinpart aiek arrirudiak bezin geldi, Keparen aurrean exerita zeuden, eta onek idazti bat zeukan eskuan. Ama-alabak josi ta josi ari ziran, baña... bai ixilik guziak!...

“...Eta aurtxo bat arturik, beren artean exeri zuan...”.

Nun entzun zituan itz aiek Ezkurrak? Etzuan ametsik egin ba. Ez, atal-buruan zirala, mutillak irakurriko zituan noski. Zergatik ez ba jarraitu?

Amak lana utzi ta arpegia esku artean ezkutatu zuan.

–Margo onek begian min egiten du –zion.

Margoak!... Xabierto gizajoa!...

–Juan da! Ezta ezer. Argi onek begiak nekatzen dizkit, baña ez nuke iñola ere, zuen aitak etortzen danean ezagutzerik nai. Onez-kero laxter da...

–Bai, berandutxo izan bear du! –esan zuan Kepak idaztia itxiaz–. Len baño geldiago etortzen dala egingo nuke aspaldi ontan.

Berriz ere ixildu ziran guziak. Eta andik puxka batera:

–Bai, Xabierto bizkarrean zuala bizkor asko etortzen ikusi izan det bein baño geiagotan –esan zuan amak, abots geldiz dardar une bat menderaturik.

–Bai nik ere –erantsi zion Kepak.

–Eta nik... –beste batek.

–Izan ere... aiñ zan ariña gixajoa –jarraitu zuan amak bere lanetik begirik jaso gabe–, ta ainbeste maite zuan aitak, ainbeste... Nola aren kiloak bizkar gañean nabaitu?... Ara, or da aita!

Yongana irten zan. Ondo bear zuan gizajoak! Bere tea gertu zegon, eta nork ekarri erabakitzeko burukatu ziran. Bi Zubiritxo

biziak beren arpegiak aitarenarekin bat egin zituzten, “Aita, ez atsekabetu! Ez samindu, aita!” esan nai baliote bezela.

Yonek alaitasuna zeriola azaldu nai zuan, eta guziakin jardun zan. Mai gañeko lanak aztertuaz, ama-alaben trebetasun eta beatz bizitasuna aitortu zituan.

–Iganderako guzia gertu egongo da –esan zien.

–Iganderako? An izan al zera, Yon? –galdetu zion, emazteak.

–Bai maite. Nerekin etorri baziña...! Guzia ain orlegi... Ikusi bazenu! Baña orain maiz ikusiko degu. Igandean berriz juango naitzela agindu diot. Ene semea...! Ene seme maitea!

Ta malkoak berak baño indar geiago izanik, mara-mara irten zitzaizkion.

Gelatik irten eta goiko bizitzara igo zan: Eguarri antzera, lore txorta ta zintzilakariz apaindua zeukaten.

Aurtxoaren aldamenean alki bat zegon, eta lentxiago norbait egondako aztarrenak agertzen ziran gela artan. Yon gizajoa exeri zan, eta, pixka batean oldozkor egon ondoren, arpegitxoan muñ eman zion aurrari.

Barrena lasaitu, ta, etsi-etsi eginda, alabear nonbait, jetxi zan berriro.

Sutondora urbildu ziran guziak, eta ama-alabak josi ta josi, ta besteak berriketan, antxe aritu ziran. Ezkurraren illoba bai atsegiña noski, Yonek zionez. Bein bakarrik ikusia izan arren, kalean gelditu ta ain itun egoteko zer ote zuan galdetu etzion ba.

–Ta ain biotz ona agertu duan ezkerro, egia esan diot –jarraitu zuan Yonek–. “Samintzen nau berri orrek, Zubiri”, esan zidan, “zugatik eta zure emazte onagatik”. Eta, aizu, nola jakin du au?

–Zer gero?

–Emazte ona zerala.

–Ori mundu guziak daki! –jardetsi zuan Kepak.

–Ederki esana, seme! –jarraitu zuan aita–. Nik ere alaxe uste diat. “Nere atsekabe-agurra artu” zion. “Zerbaitean lagundu al banezaizuteke, ona emen nere zuzenbidea” esan zidan bere ingorritxoa eskeñirik, “eta zuen etxera bezelaxe etorri”. Ta eskeñi au asko eskertu diot, ez egin dezaigukenagatik, bere gogo onagatik

baizik. Gure Xabierto ezagutu ta gurekin batera samindu balitz bezelaxe!

–Oso ona izan bear du! –esan zuan emazteak.

–Ezagutuko bazenu esango zenuke –erantzun [zion Yonek–. Keparentzat ¹⁰] irabazpide oberen bat arkitzen ez badigu!

–Entzun al dek, Kepa? –galdetu zion amak.

–Orduan –esan zuan arrebatatoko batek–, Kepa andregaiatopatu, ta bere kontu biziko zaigu.

–Etzazula umekeririk esan! –erantzun zion Kepak gorri-gorri eginda.

–Oraindik apika gertatuko eztan arren, noizbait iritxiko da ori ere noski –jarraitu zuan aita–. Baña gerta ala gerta, ez gera noski gure Xabierto gizajoatzaz aztuko, au jua baitzaigu aurrena.

–Nola aztu, aita? –esan zioten guziak.

–Banekien maiteak. Eta oso txikia izanagatik ain ona ta ain ixilla zala oroiturik, aren irudia beti gure arteko lokaia izan dedilla.

–Alaxe izango da, aita!

–Zorionekua egiten nazute, seme-alabok –esan zien aita–, txit zorionekua.

Emazteak besarkatu zuan, alabak ere bai, bi Zubiritxo txikiak berdin egin zuten, eta Kepak eskua eman zion. Xabiertoaren erra-ña! Jaungoikoagandik etorritako izpi bat ziñan noski gotzontxo polit ori!

–Gogouts –esan zuan Ezkurrak–, zeredozerk esaten dit laster bazuazkitela. Eztakit zergatik, baña ala esango nuke. Esaidazu beraz, norena zan an gela artan ikusi degun gorputzill ura?

Etorkizun Eguarri Gogoutsak, len bezela, tratalari artera eraman zuan, baña etzuan Ezkurrak bere irudirik iñon arkitzen. Etzan Mamua gelditzen, irudi aiek elkarrekin zer ikusirik etzutela esan ziteken, zerikusi ori oraindik gertatu gabeak izate utsean arkitu nai

¹⁰ Ezabatuta dago parentesi zuzenaren barrukoa *El Diako* jatorrizkoan. Hala ere, ematen du hori jarri behar duela (Edizio prestatzailearen oharra).

ez bazan beintzat. Alakorik batean, Ezkurrak, arren une batean gelditzeko eskatu zion.

–Zeitxo ontantxe dago nere landola –zion–. Ara, uraxe da etxea. Zer izan bear dedan ikusi nai nuke.

Gogoutsak gelditu zan, baña etzuan Ezkurrak zion aldera juaan nai, bere eskuak beste aldean erakusten zuan.

–Ez, ez, etxea or dago –oarrarazi zion Ezkurrak–. Nora eramana nai nazu?

Mamuaren beatza lenean zegon. Ezkurrak, ala ere, bere landola-leiotik barrena begiratu zuan. Bai uraxe zan: erredi berberak... baña... etzan bere landola, itxuraz... bere lan-maiean beste norbait zegon beintzat.

Mamuak lengo bidea erakusten zion. Ezkurra, bere burua nun arkituko, zalantzan jarri zan, eta Gogoutsarekin batera abiatu zan berriz ere. Elkarrekin, burni-sarez itxitako barruti batera eldu ziran.

Obitegi bat! Antxe zegon noski berak ezagutu nai zuan ura. Toki egokia ildako batentzat! Sapar eta muluz josia, eriotzaren irudi zan, ez biziarena. Ildako baten billa zebillen, ona ba ildakoa ugari; bere eriotz gosea ase zezaken. Toki egokia!

Gogoutsak obi artean aurrera jo, ta aietako bat erakutsi zion. Ezkurra dardar aurreratu zan. Mamua geldi-geldi zegon, baña aunditasun berezi bat nabaitzen zion Ezkurrak.

–Agintzen didazun arlau ortara urbildu baño len, galdera bat –zion–: ikuskizun oek naitanaez gertatu bear dutenak ala gertatu litezkenak bakarrik dira?

Gogoutsak illobia erakusten zion.

–Giza bizikerak, artan jarraitzekotan, bat zertaraño iritxi leiken igarri erazten du –zion Ezkurrak–. Baña bizikera aldatzen dala, amaia ere aldatu leike. Nik ikusitakoakin ere ala gertatzen al da?

Gogoutsak, lenean tenk.

Dardar-larriz, Ezkurra urbildu zan, eta illobi trakets baten arlauan bere izena irakurri zuan!/: “Ezkurratar Iñaki!!”.

–Ni nitzan, beraz, oe artan negona? –karraxi egin zuan belau-nikaturik.

Mamu-beatzak bera ta illobia ikutu zituan.

–Ez, Gogouts! Ez!, ez! Entzun! Ni ez naiz lengoa! Ez naiz zure erakusbide gabe izango nitzana! Zertarako erakutsi Etorkizuna, bera aldatzea nere esku ez badaukat?

Ura entzunik, Gogouts-eskuak dardar egin ote zuan esango nuke.

–Gogo on! –jarraitu zuan bi belaunak lurreean zituala–. Kupituko zera noski nitzaz, ona baitzera! Esaidazu nere bizikera aldatu dezakedala! Ikuskizun oek ez egi biurtzea nere esku daukadala esaidazu!

Eskua, ezparik gabe, dardar zeukan Mamuak.

–Eguarri ospatuko det, biotzez ospatu ere, ta urte guzian gogoa izango det. “Igarotakoa” zuzenduaz, “Gaur” ondo biziko naiz, “Etorkizunari” begira. Zuek irurok erakutsitakoak ez ditut alperrikalduko! Arren! Esaidazu arlau ortako izena oraindik kendu dezakedala!

Bere nekelarrian Gogoutsaren eskuari eldu zion. Onak askatzena egin zuan, baña estualdiak indar ikaragarria ematen zion ari, ta etzuan berealakoan askatzerik lortu. Azkenik, bultzada gogor batekin egotzi zuan orde.

Eskuak gora jaso zituan Ezkurrak, otolari tankeran. Eta Gogoutsaren estalki ta txanoa aldatzen ikusi zituan. Laburtu ta laburtu, estutu ta estutu, oaren abe biurtu zitzaizkion azkenean.

BOSKARREN AAPALDIA

Esnatu zanean...

...Oe-abe biurtu zitzaizkion. Eta bere logela azaldu zitzaion. Atsegiñena, adurrik onekoena, lengo bizikera ura aldatzeko aña asti aurrean arkitzen zuala.

–Igarotakoa zuzenduaz, Gaur ondo biziko naiz Etorkizunari begira –esan zuan Ezkurrak oetik jeikiatz–. Iru arotako Gogoak nere biotzean biziko dira. O, Marlegi! Jagoba adiskidea! Onetsiak bitez Urtzi ta Eguarriak! Belauniko diot au, Jagoba, belauniko!

Asmo onak gañezka zegioten, eta urduritasunak etzion nai zuana adierazten uzten. Mamuarekin burrukan ari zala negar egiña zan, eta arpegia malkoz bustita zeukan.

–Beren tokian daude! –zion trozela ikutuaz–. Beren tokian, estun ta guzti! Emen daude, ta neroni ere bai. Ta izan litekenaren errañoak eztira nik ikusi bezela izango. Nik aienatuko ditut, ziur alare.

Izketan ari zala, bere jantziak ikutu, alde guzitatik aztertu, ta lurrean uzten zituan, gogoan zebizkin nabarmenkeriakin nasturik.

–Eztakit zer egin! –ari zan erdi parrez erdi negarrez, bere galtzetan trabatuta–. Luma bat beziñ arin, ikasle bat bezin alai, gotzon bat beziñ zorioneko nabaitzen det nere burua. Guzia biraka dabilkit. Eguarri zoriontsuak guziaz! Urteberri on! Eup...! Au dek sasoa! Eup...!

Aldameneko gelan exeri bear izan zuan, erdi itota.

–Nere morokil eltzetxoa! –oiu egin zuan sukaldera sarturik–. Ta ona Marlegiren Mamutzarra sartu zitzaidan atea! Antxe eseri

zan Gaurko Eguarri Gogouts! Leio ortatixek ikusi nuan mamu-
talde ibilkaria! Egia! Egi-egia! Gertatua da guzia. Ja!, ja!, ja!

